

# ttipi-ttapa

## DONEZTEBEKO SAN MIGUEL ESKOLAK 50 URTE

Doneztebeko eta inguruko herrietako ikasleak hartzeko, duela mende erdi ireki zuten Doneztebeko San Miguel ikastetxea, eskola kontzentrazioa. 50 urte beranduago, bertatik pasatu diren iraskasleekin, ikasleekin, langileekin eta familiekin ospatu nahi dute urteurrena. Ekainaren 8an egun osoko egitaraua prestatu dute. / 10



Eskolaren 50. urteurreneko logoa egin duten laugarren mailako ikasleak.

## EH Mendi Erronka ekainaren 1ean

620 lasterkari espero dituzte Leitzañ hasi eta bukatuko den lasterketan. Aurtengoa Euskal Herriko Ultra txapelketa izanen da. / 39

### SINADURAK



ZOKKETA / 60



**Ane Apezetxea**  
goizuetarrarekin  
Nafarroako hezkuntza  
publikoa hizpide / 8



**Hamaika urteko**  
ibilbidea diskoan  
bildu du Elutxa  
txarangak / 19

**Taberma eta denda**  
faltari irtenbidea  
eman nahian ari  
dira Areson / 35

**Lehenbiziko aldiz**  
Baztangoizako  
besta antolatu dute  
Arizkunen / 40

# BERA LESAKA

## Agenda 2024

EKAINA

www.berakoagenda.eus  
www.lesaka.eus

<b>EKAINA</b>	<b>1</b> LARUNBATA	<b>BERAKO DANTZARI TTIKI EGUNA</b> Ant. Gure Txoko <b>BERA</b>	<b>8</b> LARUNBATA <b>LESAKA</b>	<b>BERTSO BESTA</b> 12:30 Antoiatik hasita Ant. Bertsozitalo bertso eskola	<b>21</b> ORTZIRALEA <b>BERA</b>	<b>SOLASALDIA EL VERANO 1946 EN BERA</b> (GASTELANAK) FERNANDO MICKELARENA 19:00 Berlandeta
<b>EKAINAREN</b>	<b>2</b> RA ARTE <b>BERA</b>	<b>ERAKUSKETA JOSETTE DACOSTA</b> Larunbat eta igandeetan 16:00-20:00 Ikastolako areto nagusia Ant. Labiaga Ikastola	<b>9</b> IGANDEA	<b>LESAKAKO MENDI ITZULIA</b> <b>LESAKA</b> Ant. Beti Gatz Ekarren	<b>22</b> LARUNBATA	<b>50. URTEURRENA TANTIRUMAIRU IKASTOLA</b> <b>LESAKA</b>
<b>2</b>	<b>2</b> IGANDEA	<b>LIBURU AURKEZPENA SU FESTAK</b> (GIN URZELAI) <b>BERA</b> 12:00 Berlandeta Ant. Kataku	<b>10</b> ASTELEHENA	<b>UDAKO KONTZERTUA</b> 18:00 Herriko etxeko plaza <b>BERA</b>	<b>23</b> IGANDEA	<b>KONTZERTUA LESAKAKO MUSIKA BANDA</b>
<b>5</b>	<b>7</b> ETIK RA <b>BERA</b>	<b>ANTZERKI JAIALDIA MUGAZ GAIN</b> 18:00 Ate irekiak	<b>13</b> ORTZEGUNA <b>BERA</b>	<b>ZORIONAK MARIMOTOTS</b> PERRITX ETA MARIMOTOTS 16:00   18:00 Kultur Etxoa Ant. Berrakillo gazte taldea	<b>26</b> ASTEAZKENA	<b>NAIZEN ELKARTEAREN HITZALDIA</b> <b>LESAKA</b> 17:30 Udal Pleno Aretoa
<b>7</b>	<b>7</b> ORTZIRALEA <b>LESAKA</b>	<b>KONTZERTU DINAMIKOA LESAKAKO SOINULARIAK</b> 19:30 Irubernako plazaletatik Ant. Lesakako Soinulariak	<b>14</b> ORTZIRALEA <b>LESAKA</b>	<b>DANTZA EMANALDIA PAUSOKA TALDEA</b> 16:00 Harrindoa Kultur Etxoa Ant. Irain eskolako gusao elk.	<b>27</b> ORTZEGUNA	<b>TAILERRA KRASK!</b> <b>LESAKA</b> GASCON MUIKAREKIN 11:00 Herrir liburutegia
<b>8</b>	<b>14</b> LARUNBATA <b>BERA</b>	<b>BERTAKO EKOIZLEEN MERKATUA</b> 10:30-13:30 Berlandeta <b>IBARDINGO IGOERA</b>	<b>14</b> TIK <b>BERA</b>	<b>16</b> RA <b>ALPZATEKO BESTAK</b>	<b>29</b> LARUNBATA <b>BERA</b>	<b>SOLASALDIA SUZGOS EN TORNO A LARHUN EN 1924 Y 1925</b> (GASTELANAK) FERNANDO MICKELARENA 18:00 Berlandeta
<b>8</b>	<b>15</b> LARUNBATA <b>BERA</b>		<b>15</b> LARUNBATA	<b>BERAKO ETT MARTXA</b> <b>BERA</b>		

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidades  
www.kulturkari.com

## Drone zerbitzuak

**Dronearekin sortutako  
edukiak**

Kalitatezko irudiak  
behar duzunerako

- Publizitatea
- Argazkiak
- Film laburrak
- Turismoa
- Eraikuntza lanak...

Dronearekin egindako  
irudien edizioa eta  
muntaiak aukeran



## NIRE TXANDA

JON ABRIL OLAETXEA

## 30 urte

Udaleku eskaintza zabala dago uda honetarako ere eskualdean. Ia osorik euskaraz. Orain 30 urte, aldiz, bertzelakoa zen egoera. Bortzirietan ez zegoen udaleku idekien eskaintzarik. Hala, hiru gazteren ekimenez, martxan paratu genuen Kaxerna Aisialdi Taldea, eta euskarazko lehenbiziko udaleku idekiak antolatu genituen Beran. Arrakasta berehalakoa izan zen. Euskaraz, eta modu hezigarrian, ongi pasatzeko gune bat altxatu genuen. Hiru begiraleko taldea segituan bihurtu zen hamarrekoa, eta Lesakan ere izan zuen erreplika:

Txalaparta Aisialdi Taldea.

Elkarrekin antolatu genuen

Udabentura, DBHko

ikasleentzako. Garai hartako

haur aunitzek, gaur oraindik,

oroitarazten digute zeinen uda

ederrak pasa genituen

elkarrekin. Euskarazko aisialdi eskaintza egiten segitzea

berebizikoa da. Euskararen biziberritzeak dituen erronken

arteana dago aisialdi eskaintza erakargarria egitea. Pantailek

eskaintzen ez dieten hizkuntza hautua emanez, hezigarria,

sormena sustatuko duena, eta komunitatea eraiki. Eta udako

eskaintza urte osora zabaltzea behar genuke helburu.

«EUSKARAZKO  
AISIALDI  
ESKAITZA  
BEREBIZIKOA DA»



## EZPALA

AITOR AROTZENA ALBIZU

## Euskalnapar abizenen txangoa

Larunbatean Goizuetan eginen duten txangoaren harira: jakina da gure abizen aunitz Erdi Aro inguruan, lanbidearen, etxearen edo familiaren ezaugarrien bidez osatu zirela. Eta gaur egun sortuko balira? Youtuberrez, Influencerale, Desjabetzetxea, Errentaundiegi, Amabakarrarena, Aitabikoa... izanen lirerateke 2.500. urteko euskal abizenak?

## NABARMENTZEKOAK



IDOIA  
IBARBOURE GALLEGO  
IKASLEA



JULEN  
GOIA MITXELENA  
XAKE JOKALARIA

Finlandian egindako Nazioarteko Filosofia Olinpiadan aritu da Idoia Ibarboure Gallego ikasle beratarra. Bertara joateko, espainiar estatuko hainbat ikaslerekin lehiatu da.

Xakean bikain moldatzen dela erakutsi du berriz ere Julen Goia Mitxelena leskarrak. Europako eskolarteko xake txapelketa inportanteena irabazi du zortzi urtez beheko mailan.

## GIBELERA BEGIRA



2014-05-29 · TTIPI-TTAPA · 615 zk.

## Gure Esku Dagoen gizakateaz

10 urte beteko dira aurtin Gure Esku Dago ekimenak euskal herritarren erabakitzeko eskubidea aldarrikatzeko Iruñea eta Durango lotu zituenetik. Herritar aunitz ibili ziren antolaketan inplikatuak herriz herri, tartean Jon Silveira lesakarra. Giza kateari eta aitzinetik herriz herri egindako dinamikari buruzko xehetasunak eman zizkion TTIPI-TTAPAri Silveirak: «Babesa edozein eragilek eman dezake, baina guk norbanakoak bilatzen ditugu, erabakitzeko eskubidearen alde dagoen edonor. Eta horrela, era aunitzetako jendea biltzen ari gara. Talde politikoetako militanteak ere egon daitezke Gure Esku Dago ekimenean lanean, baina ez talde horiek ordezkatzeko, beraien burua ordezkatzu baizik».



erran. eus



## Argitaratzailea

Ttipi-Ttapa Fundazioa  
Koskontako bidea, 7 - 1.  
31770 LESAKA  
T. (+34) 948 63 54 58  
F. (+34) 948 63 54 57  
WhatsApp 744 48 43 61  
info@ttipi.eus

## Zuzendaria

Aitor Arotzena

## Erredakzioa

Gurutze Pikabea, Ruben Oskariz,  
Eneritz Iraola, Ainhoa Larretxea

## Publizitatea

Amaia Odriozola

Arantza Agirre

## Berriemaileak

Arkaitz Mindegia, Marifa Irazoki,  
Koro Irazoki, Nerea Altzuri,  
Arantza Etxeberria, Iraia Jaurena,  
Irene Elizagoien, Maider Petrirena,

Ainhoa Ansa, Fermin Ebekolonea,  
Aintzane Leiza, Ana Iturbide,  
Itziar Mitxelena, Juan Mari Barriola,  
Maitane Maritorea, Arantxa  
Iturralde, Arantxa Gamio, Jaione  
Ariztegi, Jaione Zabalo, Nerea  
Mortalena, Jean Louis Bessonart,  
Ganex Etxeberrigarai, Maialen  
Iantzi, Olatz Mutuberria, Oier  
Zulaika.

## Fundazioaren Presidentea

Paskual Rekalde

## Kudeatzailea

Joxemanuel Irigoien

## Administrazioa

Amaia Goia

## Lege Gordailua

NA-1324/85

## ISSN

1578-4673

## Tirada

6.000 ale

## Erakunde laguntzaileak

Leitza, Goizuetan, Arano, Areso,  
Baztan, Sara eta Senpereko  
udalak, Malerrekako Zerbitzuen  
Mankomunitatea.

## 2024ko harpidetza sariak

Baztan, Urdazubi eta Malerrekako	47€
Leitza	40€
Hego Euskal Herria	50€
Ipar Euskal Herria, Europa	110€
Amerika eta Australia	155€



## KOLABORAZIOAK

MADDI LARRALDE APEZETXEA

## Panorama bat

Burutik beheitiko eskaner bat eginen baligute zer harrapatuko genukeen zalantza sortu zait gaur. Hausnarketa potoloetan sartu gabe, gure begiek etengabean eskanerrak egiten dituztela ohartu naiz ondotik. Azaleko eskaner bat. Goititik beheitikoa eta alde bikoa. Parez parekoa eta kristal gardenak erreflektatutakoa. Etxetik hasita, ispilu aitzinean ageri dena epaitzen hasten duzu eguna. Bizikideak dira hurrengoak, egunero ikusten diren gorputzak izanik, aldaketarik ez duzu nabaritzen. Bai, ordea, arropak gehiago edo gutxiago markatzen duenean. Eskailerak bajatu eta aspaldi ikusi gabeko bizilagunarekin topo egiterakoan, gerri bueltan agertu zaion *flotadoreaz* jabetzen zara. Eskerrak nik ez dudan horrelakorik pentsatzen duzu. Bere osasunarengatik diozula erraten duzu zure baitan, pentsatu duzun astakeria justifikatu nahian. Eta ez dut ergelkeria epaituko nik ere eginen baitut hau idatzi eta berehalakoan. Hain ditugu errotuak, non ideia horiei kontra egitea borroka kontsideratzen den, gorputzaren naturaltasuna ulertzea behar zukeenean.

Azken astean Madrilgo karrika nagusiak hartu dituen esaldi batek soluzioa omen dakar: *bertze uda batez hondartzako panorama aldatzen* lelopean (gaztelaraz,

**«SORTZETIKO GORPUTZA PRIBILEGIOA DA OSOTASUNEAN»**

noski). Talde aktibista batek argitaratutakoa izan zitekeela pentsatu nuen, zenbaiten jarrera aldaraziko duen kanpaina. Panoramaz aritzean gorputzaz ari zela konturatzean, flipatu egin nuen. Benetan oraindik ez dagoela horrelakoan aurkako zentsurarik? Non dago politika gorputzaren alde egin behar denean? Iragarkiaren webgunean sartu eta berehala zeuden ikusgai medikuntza estetikoak biltzen dituen alor guztiak: sabel murrizketak, baloi gastrikoak, liposukzioa, bularren areagotzea, abdominoplastia... Martxa honetan gorputzeko atal bakoitza erauzi eta gure gorputza josiko dugu. Natural dena lauso, eraikitako gorputz batean. Sortzetiko gorputza pribilegioa denean bere osotasunean.

Duela gutti bukatu dudan Karmele Jaioren *Maitasun kapitala* liburuan irakurri nuen larrutan egitean emakume aunitzek sabela barrenera sartzan dutela. Momentuan pentsaezina iruditu zitzaidan, gozamina behar lukeen momentuan *aspiradora* formatuan jardutea ezinezkoa zelakoan. Berehalako ideia burrunbak deuseztatu zidan pentsatutakoa. Bada, ileek, zimurrek, janari ez osasuntsuak, zelulitisak, titi bakarrak, orbainek, ipurdi eroriak, gorputz asimetrikoek eta abar luze batek ez baitute lekurik. Sartzan ahalegintzen diren sabel horien moduan, ez dute lekurik. Kanpoan beharrezkoa duten espazioa behar lukete. Agian bertzeen sabeletan sartuko dira orduan, begietatik barrenera. Zintzurrean arrotz izanen diren arren, erraierara heldu orduko goxatuko direnaren esperantzaz.



MIKEL TABERNA IRAZOKI KAPI

## Petto

Haur denboran, etxeko euskara galtzera utzi, eta fuerte aritzen ginen gaztelaniaz, baina euskal hitz mordoxka txertatua genuen geure erdara berezi hartan. Pilotan ari ginela, konparaziora, noiznahi aditzen zen «*Menuda 'ucha'!*», batek bertzeari espantuz errana. Alegia, norbaitek *huts* egin zuela (gehienak ez ginen Inaxio Errandonea izateko jai).

Noizbait ere, aspaldi, telebistan futbol partidua ikusten ari nintzela, harritu egin nintzen komentaria lanean ari zen Alfredo Di Stefano futbolari famatua izan zenari aditu nionean «*Menudas huchas, parece del Domund!*». Nonbait, jokalariren bat *huts* egiten ari zen, eta kontrarioari mesede egiten ari zitzaion. Jaun hura Real Madrilek fitxaturiko argentinarra baitzen, neure baitan pentsatu nuen XIX.-XX. mendeetan Ameriketara emigratu zuen euskaldunen bati aditu izanen ziola solas hori, gure gisara euskarak kutsaturiko erdara zuen norbaiti, baina bere hizkuntzaren logikan entenditu izanen zuela *hucha* egitea *karitatea* egitea zela; badakizue, gaztelaniazko *hucha* euskarazko *eltzeitsua* baita.

Gaur egun, ez dakit noiztik, *hutsa* eta *huts* egitea horiekin batera, ez dira gure artean batere arrotzak erdaratik ekarri

**«'PETTO' JA SARTU DUGU GURE HIZTEGI PARTIKULARRAREN ZAKUTOAN»**

Haren eskutik egin dugu Julia Fernandez Zabaleta pastorala sortzeko bidea. Hura buru, den-dena ikasi behar izan dugu. *Huts* edo oker egiten genuen aldiro, hark xuxentzen gintuen, noski. Kargu hartu ere bai (beharko!), kasurik egiten ez bagenion: «petto sobera egin duzue gaur; honela ezin dugu segitu». Zenbat aldiz aditu ote diogu *petto* hitza? Zer erran nahi zuen ongi konprenitzeko adina aldiz bai. *Petto*, Iparraldean, *huts* da. ТТИПІ ТТАРА etxean hartzen duzuen aunitzek jakinen duzue. Nik ez jakinki, ordea!

Herri antzerki hori, pastorala, elkarlan handiaren fruitu zoragarria izan da. Elkarrekin aritu gara, eta elkarrengandik izugarri ikasi dugu. Esperientzia trukea ere izan da, eta solasena ere bai. *Petto* ja sartua dugu gure hiztegi partikularren zakutoan.

ditugun *fallua* eta *fallatu* (mugaren hegoaldeko jendeaz ari naiz); edo, are okerrago, *faiua* eta *faiatu* (ai, hau beharriko mina!). Iruñean irakasle xiberotarra dugu Zaldiko Maldikoko kantu tailerrean.

## 11 GALDERA LABUR

OIHAN TELLETXEA SEIN IGANTZIKO FUTBOLARIA

# «Goi mailan jokatzera ederra izanen litzateke»

Realarekin Kadete mailan aritzen da futbolean Oihan Telletxea igantziarra, eta bigarren urtea du Euskadiko Selekzioarako deitzen dutela.

**Nola definituko zenuke zeure burua?**

Igantziako 15 urteko mutil lasaia eta nahiko lotsatia.

**Zein dira zure zaletasunak?**

Nire zaletasun nagusia kirola da, eta horien artean futbolekin aritzen naiz gehien, bertzetarako denborarik ez baitut.

**Noiz hasi zinen futbolekin?**

8 urterekin hasi nintzen Lesakako Beti Gazte taldean, Prebenjaminetan, herriko hiru lagunekin batera.

**Euskadiko Selekzioarekin aritzen zara gaur egun. Nola sortu zitzaizun aukera?**

Aurten hirugarren urtea dut Realarekin jokatzera ari naitzela, eta bertatik deituta suertatu izan zait bi urtez segidan.

**Kadete mailan aritzen zara. Nolako esperientzia izaten ari da?**

Hagitz esperientzia ona! Liga irabazi dugunez, gehiago motibatzen naiz.

**Maila aldetik salto handia izan da?**

Joko aldetik intentsitate handiagoa nabaritzen dut partiduetan, eta astean lau entrenamendu egiten ditugu. Partiduak, berriz, asteburuetan jokatzera ditugu.

**Sub-16 txapelketan finalera ailegatu zarete berriki, baina Katalunia nagusitu da. Nola ikusi duzu txapelketa?**



Bai, Katalunia nagusitu da. Maila altuko taldeak dira eta ez genuen espero finala jokatzera, beraz, hagitz kontent txapelkunorde izanda. Txapelketa hagitz berezia izan da.

**Zer eman dizu futbolak?**

Jende pila bat ezagutu dut eta lagun onak egin ditut. Aunitz bidaiatzen dugunez, hainbat leku ezagutzeko aukera ere eman dit.

**Kirolarekin betetzea gustatuko litzazukeen ametsik?**

Futbolekin segituko badut, goi mailako talde batean jokatzera ederra izanen litzateke.

**Zure asmoak epe motzera?**

Epe motzera, Realarekin denboraldia akabatzea eta... aurtengo Kadete mailako euskal kopa irabaztea!

**Eta epe luzera?**

Egia erran ez dakit, eta ez diot buelta gehiegirik ematen. Futbolarekin disfrutatzen segitzea gustatuko litzaidake, eta fisioterapeuta ikasketak egitea.



**Bilduma berria**

1951tik  
**Casa Cambra**  
lentzeria-etxea

Tafalla, 13 · IRUÑEA · 948 230 634

Albornozak

Mantelak

Kuxinak

Edredoi nordikoak

Ohe estalkiak

Maindireak

Toallak

Edredoi-azal nordikoak

# Zaindu maite duzun hori...

## Nola erran?

\* Izartxoak dutenak eta arrosez daudenak gaizki daude.

### Kaltetu edo kalte egin?

Kaltetu eta kalte egin ez dira baliokideak. Da (eta zaio) aditza da kaltetu; alegia, 'kaltea jasan' adierazi nahi duenean erabiltzekoa:

- Autoa kaltetu zitzaigun.
- Gauza kaltetua ontzat saldu.

Adiera horretan ez da egokia *du* aditz laguntzailea.

'Kaltea eragin' denean adiera, kalte egin da erabiltzekoa:

- \*Kaltetzen duten edariak > Kalte egiten duten edariak.
- \*Gorputza kaltetzen du horrek > Gorputzari egiten dio horrek kalte.
- \*Langabeziak kaltetzen du ekonomia > Langabeziak kalte egiten dio ekonomiari.

## Hizki zopa

Euskaltzaindiaren arabera, euskararen batasuna egin aitzinetik, urteko hilabeteen erdiek izen bana zuten; bertze erdiek, berriz, bina edo hiruna. Gainera, horietako bat, garagarri, bi hilabete izendatzeko erabiltzen zen... Horrexegatik hobetsi zituen izen batzuk Euskaltzaindiak.

B	E	Z	K	A	R	I	O	K	R	A	E	I	U
G	A	R	A	G	A	R	R	I	L	A	K	L	A
O	D	E	I	O	D	N	E	N	S	O	T	B	N
E	S	P	H	R	A	A	L	E	B	U	P	E	T
I	L	T	E	R	A	J	O	R	R	A	I	L	O
Z	E	B	U	I	F	A	R	R	I	M	T	T	I
U	H	R	M	L	E	T	A	N	A	X	T	Z	E
R	U	T	E	F	R	E	I	S	H	B	A	E	R
R	I	I	S	I	R	X	L	I	E	A	N	O	I
I	T	E	M	O	A	T	U	R	R	E	Z	R	O
E	R	P	A	Z	E	R	Z	T	A	M	E	I	A
T	O	N	E	U	O	T	O	X	I	U	T	A	L
A	L	B	U	R	U	I	L	O	N	E	M	A	K
R	L	E	T	I	E	L	O	T	A	Z	I	L	E

Asmatu al zenuen 854. aldizkariko erran zaharra? Hauxe zen:  
*Maiatzean kuku, ekainean mutu.*



## Zein da zuzena

### Sudur-luze edo sudurluze?

Euskaltzaindiak dioenez, *sudur-luze* moduko elkarte arruntak (izena + izenondoa) marratxo nahiz loturik idazteko aukera dago. Hona hemen adibide gehiago:  
adar-motz edo adarmotz, buru-soil edo burusoil, odol-bero edo odolbero, (adiskide) esku-zabal edo eskuzabal, angelu-zuzen edo angeluzuzen, punta-zorrotz edo puntazorrotz...

Hala ere, hainbat estilo liburuk loturik idaztea gomendatzen dute: ahobero, buruargi, burugogor, burusoil, hankamotz, muturbeltz, lepoluze, sudurluze...

Hala ere, Euskaltzaindiaren Hiztegian euskalkietako izenak bilduak daude: ilbeltz, izotzil (urtarril); barantaila (otsail); epail, marti (martxo); jorrail (apiril); lorail, hostaro (maiatz); bagil, ereiario, garagarri (ekain); garagarri, garil (uztail); agorri, dagonil (abuztu); buruil (irail); urrieta (urri); hazil, gorotzil (azaro); lotazil (abendua).

Horietako hamar bilatu beharko dituzu hizki zopa honetan.

## Eta zuk zer diozu?

Bidali zure zalantzak, proposamenak, azalpenak... Animatu eta parte hartu!



info@ttipi.eus



744 48 43 61

# «Ez badugu deus lortzen datorren ikasturte hasiera ez da ohikoa izanen»

**ANE APEZETXEA GORROTXATEGI** IRAKASLEA ETA STEILAS SINDIKATUKO LIBERATUA

Goizuetarra lanbidez Lehen Hezkuntzako irakaslea da Sarrigurengo eskolan. Azken ikasturtean Steilas sindikatuko liberatua da eta Nafarroako hezkuntza sistema publikoari erreposoa eman dio

**G. PIKABEA** GOIZUETA

Ofizios irakaslea da Ane Apezetxea Gorrotxategi (Goizueta, 1991) eta irailaz geroztik Steilas sindikatuko liberatua. Azken ardura hori «erronka handia» izaten ari dela aitortu du, baina aldi berean, «asko ikasten ari naiz». Nafarroako hezkuntza sistema publikoaren erreposoa egin dio TTIPI-TTAPARI, etapaz etapa dauden hutsuneak agerian utziz eta azken boladan eztabaida handia eragin duten gaiak hizpide hartuz. Kritiko mintzatu da Hezkuntza Departamentuarekin eta «dena atzeratzeko eta luzatzeko duten gaitasunarekin harrirituta» dagoela dio. Gehiago ere bai. Hobekuntzarik ez bada, heldu den ikasturte hasiera ezohikoa izanen dela ere iragarri du: «Sistema hankaz goiti jarri nahi dugu. Nekatuta gaude ikusezina izateaz». Egun batzuetako grebak deitzeko asmoa dute.

## Nolatan hasi zinen Steilasen?

Urte batzuk daramatzat bertan afiliatua eta aurreko ikasturtean nire eskolako delegatu izateko deitu zidaten. Hor muturra zertxobait sartu nuen sindikatuan. Ikasturte bukaeran, berriz, 2023-2024 ikasturterako liberazio osoa eskaini zidaten eta deia ustekabea hartu banuen ere, ez nuen gehiegi esperatu baiezkoa emateko. Irailean hasi nintzen eta erronka handia izaten ari da, baina asko ari naiz ikasten. Hezkuntzako barne antolaketa eta negoziazioak



Apezetxea irailetik Steilas sindikatuko liberatua da. UTZITAKO ARGAZKIA

nola izaten diren ezagutzea interesgarria da.

**Hainbatetan adierazi duzue Hezkuntza Departamentuarekin ez zaudetela ados. Azken boladan, besteak beste, organigrama ez dela aldatu salatu duzue...**

Aurreko agintaldian hezkuntzako langileen lan baldintzetan ez dela inongo hobekuntzarik egin salatu genuen. Lan zama areagotzen ari zen eta gobernuak ez zuen inolako pausorik eman negoziatzeko. Bestalde, politi-

ka euskarafobikoak izan ziren nagusi. Organigrama aldatzeko eskaera egin bagenuen ere, udako hauteskundeak pasata, kontseilari berarekin segitzen dugu eta beste behin ez dugu inongo aldaketarik sumatu.

**Etapaz etapa, haur eskolatik hasi eta unibertsitateraino, zer hutsune ikusten dituzu Nafarroako hezkuntza sistema publikoan?**

0-3 etapan, argi eta garbi dago Hezkuntza Departamentuak ez duela bere gain hartzen ziklo

horren ardura osoa. Ziklo hori kudeatzeko garaian izugarriko nahasketa administratiboa dago. Haur eskola batzuk Nafarroako Gobernuarenak dira, beste batzuk udalenak eta guztiz publikoak, eta gehienak udalenak baina kudeaketa pribatukoak. Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergo arteko hutsune nagusien artean egonkortasun eza, baliabide eskasia, ratioak eta aniztasunari erantzuteko gabeziak nabarmenduko nituzke. Besteak beste, gabezia horiek eragina dute hezkuntzaren kalitatean eta euskararen ezagutzan zein erabileran. Adinez nagusiagoak diren etapetan, espezialitateak ugaritzen dira eta zaila da eskari guztiari ongi erantzutea.

**Badira azken aldiak eztabaida sortu duten hainbat gai. Horieta bat eskolako jardunaldi mota erabakitzeke prozesua izan da...**

Prozesu gogorra izan da eta haserreak izan dira. 2007an hasi ziren eskola batzuk jardunaldi jarraitua esperimendatzen. Orduan, erabaki hori hartzeko, familien erroldaren % 60aren aldeko botoa eskatu zuten. Zerbait berria zen eta normala da hasiera batean halako aldaketa baten aurrean eskatzen den babesa handia izatea. Pandemia garaian, berriz, eskola guztiak jardunaldi jarraitua izatera behartu zituzten eta badirudi erabaki hori ongi hartu zutela eskola komunitate gehienetan. Ondoren, familiei eta irakasleei bozkatzeko aukera eman zieten eta gehiengo nagusi batek jardunaldi jarraitua hautatu zuen. Orain, eskoletako jardunaldia arautu nahi izan dute. Hori arautzea ongi iruditzen zait, fase esperimental luze joan baita. Fase esperimental bukatu ahala, Departamentuan egin duten balorazio pedagogikoak ez du jardunaldi baten edo bestearen eraginik ikusi ikasleen ongizate edo ikasketen mailan. Ondorioz, familien esku utzi dute erabakia, jakinda, gehiengoak dagoeneko jarraituaren aldeko hautua egin zuela. Alde batetik, hasie- →



Hezkuntzan «beti arazo bera» dutela salatu du Apezetxeak: «ekonomia». UTZITAKO ARGAZKIAK

→ ra puntua jardunaldi zati-tua izan da, eskolen gehiengo jarraituan bazegoen ere. Bestetik, irakasleek oraingoan ez dute bozkatzeko aukerarik izan. Ongi dago familien nahia eta iritzia kontuan hartzea, baina irakasleak gara eguneroko mar-txa eramaten dugun eskolako profesionalak eta gure iritzia ezinbestekoa zela iruditzen zait. Modu honetan, familien artean plataformak sortu dira eta be-raien kabuz hausnartu behar izan dute, horien artean istiluak edo deserosotasunak sortuz. Horrez gain, fase esperimentala luze joan dela kontuan har-tuta, ez da ulergarria oraingoan ere aldaketarako eroldaren % 60aren aldeko botoak behar izatea. Gehiengo sinplearekin nahikoa izanen litzateke. Prozesua ez da batere justua izan. **Baina hala ere, gehiengoak jarrai-tua aukeratu du...**

Eskola jardunaldia arautuko zuen Foru Aginduaren zirribor-roa irakurri genuenean, sindi-katuoi alegazioak egiteko den-bora tarte bat eman ziguten. Baina, sorpresa, ez zuten gure ekarpen bat bera ere kontuan hartu. Dena den, prozesua gar-dena izan ez bada ere, familiek beste behin berretsitu dute jar-dunaldi jarraituaren aldeko hautua. Izan ere, familien

gehiengo handiak bozkatu du horren alde, eta jarraitua izanen da eskola gehienetan. Beste ikastetxe batzuk, aldiz, boto batengatik edo birengatik ez dute gehiengo «kualifikatu» hori lortu eta horrek ezinegon handia sortu du. Iruñerriko beste eskola batzuetan, alde alde dauden bi eskolek garraioa par-tekatzen dutela eta, eskola ba-tean jarraitua eta bestean zati-tua atera bada, zati-tuan gelditu behar izan dute. Imajinatu ze saltsa. Eta gainera, datozen lau urteetan gutxienez horrela egon beharko dute. Ez dakit Depar-tamentua nora begira dagoen, baina uste dut kontseilariak hausnarketa sakona egin behar duela gai honen inguruan.

**Eta zer iruditzen zaizu eskoletan bi urteko gelak sartzeko erabakia?** Gai delikatua da. Ni pertsonal-ki sistema horretatik nator eta oso naturalki bizi dut. Ez zait inongo astakeria iruditzen; ni bi urteko gelan hasi nintzen eskolan. Baina ulertzen dut horretara ohituta ez dauden en-

tzat aldaketa zaila dela. Alde onak eta txarrak ikusten dizkiot. Iruñerriko haur eskoletan es-kari handia dago, baina plaza nahikorik ez. Herri txiki askotan, berriz, haur eskolarik ez. Uste dut eskaintza eskasia dagoen inguruetan arazo hori arindu-ko lukeela eta haur eskolarik ez dagoen herrietan zerbitzu berria izanen luketela. Bi kasuetan lanpostuak sortuko lirateke. Haur eskola dagoen herrietan eta eskari guztiari erantzuten dioten bitartean, dauden be-zala utziko nituzke. Gakoa, nire ustez, ez da gela hauek non txertatzen dituzten, baizik eta nola egiten dituzten. Edozein aldaketak baliabidez ongi hornitua izan behar du eta horrek inbertsio ekonomikoa dakar. Inbertsiorik ezean, jai dugu. **Zer ari da gertatzen jantokiek?** Nafarroako Gobernuak atera berri duen dekretuarekin, ku-deaketa erabat pribatizatu du. Jantoki gehien-gehienetan ca-tering enpresen helburua etekin ekonomikoa ateratzea da. On-

**«ZERGATIK EZ DUTE HEZKUNTZAN INBERTITU NAHI?»**

**«HARRITUA NAGO DENA LUZATZEKO DUTEN GAITASUNAREKIN»**

dorioz, elikagaien kalitatea eta langileen lan baldintzak oker-tuko dira. Dena guztiz publikoa izanen balitz, egoera bestelakoa izanen litzateke. Bestalde, es-kualdeko ikastetxeetako janto-kietan, horren arduraren dute irakasleek ez dute berariazko ordurik haien ordutegietan kudeaketaz arduratzeko.

**Zein dira Steilas sindikatuaren aldarrikapen nagusiak?**

Hezkuntzako langileen sindi-katua gara, haur eskolatik uni-berstiteraino hartzen ditugu. Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan aritzen gara 1977an sortu zenetik. Ezkerre-ko sindikatua gara, klasekoa, eta gure jardueraren hezkuntzatik haratago doa, jendartearen mugimenduekin ere elkarlanean aritzen baikara, eraldaketa so-ziala bultzatuz. Gure aldarrika-penetan daude langileen esku-bideak: lan baldintza egokiak, enplegu egonkorra, kalitatezkoa, lan osasuna, berdintasuna, lan banaketa eta ordeko zein gaz-teen eskubideak; beste aldarri-kapen bat gure nortasuna herri gisa da: gure etorkizuna eraba-kitzeko eskubidea, pertsona, ideia eta proiektu guztiak kon-tuan hartuko dituen etorkizuna; gizarte eredu berria da beste aldarrikapenetako bat: zerbitzu publiko indartsuak, aberasta-sunaren banaketa, desazkundera, nazioarteko elkartasuna, kul-turartekotasuna, genero arteko berdintasuna eta eskubide sozialak bultzatzen dituen gi-zartea. Militarismoaren, xeno-fobiaren, LGTBQfobiaren, globalizazio neoliberalaren, pribatizazioen, inperialismoa-ren eta gizarte eskubideen mu-rrizketen kontra ere egiten dugu. Eta azkenik, euskara, feminis-moa eta ekosozialismoa dira eraldaketarako ardatzak.

**Zein da Steilasek proposatzen duen hezkuntza eredu?**

Steilasek Euskal Eskola Publikoa defendatzen dugu. Pertsonen garapen integrala eta kritikoa bermatuko dituen hezkuntza sistema, baita gizarte kohesioa, euskalduntzea, hezkidetzeta, ka-litatea, bakea eta elkarbizitza



bermatuko dituen ere. Eskola inklusiboa, laikoa, parte har-tzailea eta demokratikoki ku-deatuko dena da gure eredua. **Negoziatzeko erresistentzia leporatu izan diozue Hezkuntza Departamentuari...**

Hala da. Denbora daramagu lau aldarrikapen nagusirekin: ratioen jaitsiera, irakasleok dugun gainzama murriztea, galdutako erosahalmena berreskuratzea eta *interinitate* tasa minimora jaitea. Iaz kontu honekin bi greba deialdi izan ziren. Departamentuak, berriz, badirudi ez dituela aldarrikapen horiek aditu nahi. Oso tarteka deitzen digute Negoziatzeko Mahai Sektorialetara eta bertan elkartzen gara hezkuntza publikoan dihardugun sindikatu guztiak. Ikasturte hau ere deus lortu gabe bukatzera doa. Apirilean eta maiatzean, lantalde batzuetan gai batzuk lantzen hasi gara, baina lehen ere aritu izan dira horrelako lantaldeetan eta ongi dakigu negoziazioak luzatzeko eta denbora galtzeko estrategia dela. Ni hasiberria naiz eta harriria nago dena atzeratzeko eta luzatzeko duten gaitasunarekin. Badirudi haien etsaiak garelara eta berez, hezkuntza sistemaren kalitatearen alde aritu beharko genuke elkarlanean, helburu berdinekin. Beti arazo berarekin egiten dugu topo: ekonomia. Zergatik ez dute hezkuntzan inbertitu nahi?

**Mobilizazioak iragarri dituzue...**

Bai, ikasturte honek ere eskue-tatik alde egin digu eta datorren ikasturterako ez dugu aldaketarik aurreikusten. Ikastetxeetan asanbladak egiten ari gara eta irakasleak oso haserre daude. Ratioak oso altuak dira, dokumentazioak betetzen orduak pasatzen dituzte, formakuntzak, bilerak, familiak, ebaluazioak, eta aurten, gainera, oposizioak. Gainezka daude eta ikasleei ematen dieten zuzeneko eta, batez ere, kalitatezko arreta geroz eta eskasagoa da. Ikasleen aniztasuna ere nabarmen handitu da, eta horri erantzuteko baliabideak falta dira. Horren aurrean, ikasturte amaiera hau



Hezkuntzako sindikatuek hainbat mobilizazio iragarri dituzte. Irudia bizikleta martxa aurkeztu zutenekoa da. Tartean da Apeztebea.

berotzen joan gara maiatzean eta ekainean hainbat mobilizazio eginez.

**Hobekuntzarik ez bada, heldu den ikasturte hasiera ez dela ohikoa izanen esan duzue. Zer asmo dituzue?**

Hori da. Ez badugu deus lortzen, datorren ikasturte hasiera ez da espero bezalako izanen. Irakasleek ere argi utzi digute egun bateko grebak ez direla eraginkorrak eta egun batzuetako grebak deitzea da asmoa. Sistema hankaz goiti jarri nahi dugu. Nekatuta gaude ikusezina izateaz, irakasleen lan baldintzak hobetzea ezinbestekoa da kalitatezko zerbitzua eman nahi bada. Horrek lehentasuna izan behar luke, ikasleak baitira gure etorkizuna.

**Mobilizazio horiekin zer erantzun espero duzue Hezkuntza Departamentuaren aldetik?**

Galdera ona. Hemen ikusiko dugu gobernuak hezkuntzari ematen dion garrantzia zenbaterainokoa den. Ez zaie komunikabideetan haien aurkako

**«ONGI DAKIGU MUGITU GABE EZ DUGULA DEUS LORTUKO»**

berriak ateratzea gustatzen eta ongi dakigu mugitu gabe ez dugula deus lortuko. Irakasleok eta sindikatuok mugimenduak egiten ditugunean edo agerian uzten ditugunean deitzen digute negoziatzera. Baina negoziazio mahai horietan deus gutxi aldatzen denez, espero dugu sistema hankaz goiti jarrita zerbait egingen dela. Gobernuari sustengua ematen dioten parlamentuko talde guztiekin bildu gara eta arrazoia eman digute. Aldiz, gure aldarrikapenen aldekotasuna ez da islatzen Nafarroako aurrekontuetan. Espero dugu hitzetatik ekintzetara pasatzea, hau da, 2025eko aurrekontuetan irakasle lan baldintzak hobetzeko nahia diru partidetan zehaztea. **Irakasleak inplikatuak daude?**

Bai, arrunt. Eskolaz eskola gabiltza haiekin elkartu eta iritzia biltzen. Guztiak ikusten dituzte euren buruak eta lankideak gainezka, geroz eta antsietate arazo handiagoekin. Gehiagora joan eta dena lehertu aurre-

**«LEHERTU AURRETIK ZERBAIT EGITEKO BEHARRA ARGIA DA»**

tik zerbait egiteko beharra argia da. Mobilizazio dinamika hau ere irakasleengandik sortua da, ideiak eskoletan jaso baititugu. **Zer mezu zabalduko zenieke hezkuntza publikoko profesionaleri?** Mobilizazioei adi egon eta hauekin bat egiteko esanen nieke, guztion indarrarekin zerbait egin dezakegulako. Hezkuntza sistema publikoan sinesten dugunak borrokatzen ez bagara, inork ez du guregatik egingen. Eta batez ere, oso ongi ari direla esanen nieke. Eskola batzuetan dituzten egoerak ikusita, txapeldun batzuk dira eta zorionak egiten duzuen lanagatik. **Zer etorkizun ikusten diozu hezkuntza sistema publikoari?** Hezkuntza sistema publikoak, gainontzeko zerbitzu publikoekin batera, bermatzen du gizarte osoaren kohesioa. Hortaz, ezinbestekoa da erdigunean jartzea. Urrutira joan gabe, pasatu berri diren EAEko hauteskundeetan argi ikusi dugu ez dela politikarien kanpainetan hezkuntzarekiko interesik izan, eta hor arazo larria dugu. Osasun publikoa defendatzen dute eta ez dago zalantzarik, baina nork defendatzen du euskal hezkuntza publikoa? Gaia erdigunean jartzea ezinbestekoa da hezkuntza sistema publikoak etorkizun osasuntsua izan dezan.

## Doneztebeko eskolak 50 urte bete ditu

Mende erdia ospatzeko, ekainaren 8an egun osoko egitaraua prestatu dute Donezteben. Urteurrenaren harira, 50 urteko bidean eskolarekin lotura zuzena izan duten hainbat lagunen testigantzak bildu ditu TTIPI-TTAPAK

### G. PIKABEA DONEZTEBE

Herriko eta inguruko bertze herrietako ikasleei arreta emateko sortu zuten Doneztebeko San Miguel ikastetxea, eskola kontzentrazioa deitua. 32 milioi pezetako inbertsioa eginda, halaxe hasi zuen bidea 1973ko ekainean; batetik, Doneztebeko ikasleak hartuz, eta bertzetik, eskola kontzentrazioa irekita eskolarik gabe gelditu ziren herrietako ikasleei atea irekiz.

Bortz hamarkada berandua, Doneztebeko, Eratsungo, Zubietako, Elgorriagako, Beintza-Labaiengo, Oizko, Urrozko, Donamariako eta Legasako 300 bat ikasleren bilgune da: «Erdiak baino gehiago Doneztebekoak dira eta gainerakoak sei autobusetan bertze herrietatik datozenak». Jantokiak ere martxa ona du: «Egunero 180-190 lagun gelditzen dira. Hasieran garraiatuendako zerbitzua zen, baina gero eta Doneztebeko familia gehiagok eskatzen dute». Hala azaldu du Ernesto Dominguez Olea eskolako zuzendariak.

### Hasiera

Eskola kontzentrazioa ireki aitzinetik, gaur egun Doneztebeko herriko etxea den eraikinean izaten zen Doneztebeko eskola. Dominguezek kontatu duenez, «1973an akitu zituzten eskola kontzentrazioa eraikitze lanak eta ikasturtea akitzera honat ekarri zituzten ikasleak, ekainean. 1974an hasi zen lehenbiziko promozioa». Horrez gain, «garai hartan eskola bi zatitan banatua» zegoen: «batetik, eskola bera, eta bertzetik, *escuela hogar* deitua». Bertze eskualdeetako haurrak

hortxe egoten ziren eta udan udalekuak egiten zituzten. «1995ean obra egin eta *escuela hogar* zena bigarren hezkuntzako ikastetxe bihurtu zen. 1996-1997an handitzeko bertze lan batzuk egin zituzten».

### A gainbeheran, D goratuz

Hizkuntza ereduie dagokienez, San Miguel ikastetxeak «dena erdaraz» hasi zuen bidea, baina agudo eman zuten euskaraz egiteko aukera: «D ereduia 1976-1977 ikasturtean paratu zuten martxan», dio zuzendariak.

«Aditu dudanez, urte gogorak eta mugituak izan ziren». Horren harira, «garai hartako irakasleen inplikazioa» nabarmendu du: «Familia euskaldun aunitzek A ereduia defendatu zuten, ez zutelako euskaraz jakiteagatik eurek pasatu zutena errepikatzea nahi. Baina irakasle batzuk aunitz saiatu ziren D ereduaren alde, familiak animatuz. Lehenbiziko promozioan D ereduko 24 ikasle atera ziren».

Urteen joanean, gauzak aldatu dira, eta gaur egun, «A ereduan sei ikasle baino ez dira

gelditzen, eta horietako lau sei-garren mailan, heldu den ikasturtean institutura joan denenak. Bilakaera ikaragarria izan da. D ereduak sartzearekin batera, A eredu desagertzeaz dago». Ikasleak «euskalduntzen» ari direla nabarmendu du, baina jakitun da «oraindik lan handia egin behar dela arlo guzietan, eskolan zein karrikan».

### Erronkak

*Eskola euskalduna, hezkidetzazkoa eta inklusiboa.* Lelo hori aukeratu dute eskolaren 50. urteurrenaren harira prestatu duten pankartarako. Hiru esparru horiek dituzte begiz joak. «Gure helburuetako bat euskalduna izatea da, Euskal Herrian eta eremu euskaldunean bizi gara. Inklusioa da bertze helburua. Gero eta behar gehiago ditugu eskoletan, eta horiei erantzun behar diegu. Horrekin batera, kanpotik heldu zaizkigun familietako ikasleak hementxe integratzea nahi dugu, eta horretarako hizkuntza tresna baliagarria da. D ereduan bertzeekin batera egiten dute bidea, bertze ez dira integratzen». Eta hezkidetzaz da hirugarren erronka: «Berdintasuna, pertsona guztiak maila berean partatzea. Ahalik eta hobekien egiten saiatzen gara, baina baliabideak behar ditugu».

Momentuko erronka, halere, ekainaren 8ko urteurren besta dute. Egun horri begira daude orain, «urduritasun puntua batekin». Lehenagotik hasiko dituzte beroketak, ekainaren 3tik 7ra eskolatik pasatu diren hainbat irakasle, ikasle eta langileren testigantzak aditzeko aukera izanen baitute ikasleek. Eta egunean bertan, goizetik hasita ekitaldiak, egitarauan iragarritakoak eta «sorpresak». Hala, parte hartzeko gonbita egin du zuzendariak: «ikasle ohi, irakasle ohi, atautxi, amaxi, izeba, osaba... Nahi duena etor dadila. Jende aunitz pasatu da eskolatik, bakoitzak bere oroitzapenak izanen ditu, eta 50 urte ez direnez urtero betetzen, animatu».



80ko hamarkadan eskola ikasleekin ateratako argazkia. UTZITAKOIA

### 50. urteurreneko besta

San Miguel eskolaren 50. urteurrena handiki ospatu nahi dute, eta horretarako, hitzordua ekainaren 8an egin dute. Egun osorako ekitaldiak prestatu dituzte: 10:30ean eskolatik abiatuta kalejira erraldoiekin, dultzaineroekin eta txistulariekin; 11:30ean lekukoa pasatzea hamarkadaz hamarkada. Eskola zaharretik (herriko etxea) eskola berrira (San Miguel) bidea egiten dute. Ibilbidea sei puntutan banatu eta bakoitzean hamarkada batek hartuko du lekukoa; 12:00etan lehenbiziko promozioa ikasleak omenduko dituzte eta Erreka Dantza Taldearen saioa; 13:00etan Batupintxo; 14:30ean bazkaria; 16:30ean mutxikoak; ondotik DJ J&J eta zirku tailerra.

## «Parte hartzera animatuko nuke, egunero ez baitira 50 urte betetzen»

**LEIRE UTERGA LABIANO** IKASLE OHIA ETA GURASOA

Hiru semeren ama da Leire Uterga doneztebarra eta bi ditu gaur egun Doneztebeko eskolan; «zaharrena DBHn dago». Aitzinetik bera ibili zen San Miguel eskolan, eta orduko oroitzapenez galdetuta, «ttikitari eskolan denetarik izan zela» aipatu du: «Halere, momentu onak txarrak baino gehiago izan ziren. Ikastea gustuko nuen eta kontent joaten nintzen». Geroztik eskola aldatu dela dio, «baina gauza batzuek orduan bezala segitzen dute. Azken urteetan ikasgelen irudia aldatzen hasi dira eta hezkuntza gure garaietara egokitzen ari da pixkanaka. Beti badira hobetzeko gauzak, baina orokorrean kontent nago». Gehiago ere bai: «Ama bezala, gurasoen parte hartze eta inplikazio falta sumatzen dut». Berari parte hartzea gustatzen zaio eta hala, ekainaren 8an, «goizean argazkiak aterako ditut eta bazkarira familian joanen gara». Bide batez, gonbita ere egin du: «Jendea parte hartzera animatuko nuke, egunero ez dira 50 urte betetzen!».



Leire Uterga Labiano doneztebarra.

## «Sunbillako eskolatik Doneztebera joatea aldaketa handia izan zen»

**TERE ARRETXEKA IRAIZOZ** IKASLE ETA ADMINISTRARI OHIA

Doneztebeko eskola ederki aski ezagutzen du Tere Arretxeaka sunbillak. Ikasle izan zen lehenbizi, eta 23 urtez administrari ondotik. 13 urtekin hasi zen Doneztebeko eskolan: «Orduan egin zuten eskola berria, eta Sunbillako eskolatik ekainean 7. maila akitzera joan ginen. Hurrengo ikasturtea, 8. maila, han egin genuen». Hasi hartan, eskola «handia, hotza eta tristea» iruditzen omen zitzaion: «Eskola ttikian ohituak ginen, denak elkar ezagutzen genuen eta irakasle bakarrarekin egoten ginen, baina Donezteben ez. Autobusa hartu beharra, jantoki ikaragarria... Aldaketa handia izan zen». Baditu orduko anekdotak: «Lehenbizian ez zegoen txirrinik eta solairu guzietan eta kanpoan klasera sartzeko eta ateratzeko ezkila jotzen zuten. Bertzalde, Doneztebekoek baserriarroi irri egiten ziguten usaina genuela eta». Ekainaren 8ko bestari begira, han izanen da: «Aspaldi ikusi gabekoekin biltzeko aukera ederra izanen da. Hurbildu!»



Tere Arretxeaka Iraizoz sunbillarra.

## «D ereduarekin aldaketa sumatu zen, baina berriz gibelera egin du euskarak»


**FELIPE GANBOA ZABALO** IKASLEA, IRAKASLEA ETA IKASKETA BURU OHIA

Felipe Ganboa doneztebarrak «ttiki-ttikitatik» ezagutzen du Doneztebeko eskola, ikasle zela hantxe eman baitzituen bere lehenbiziko pausoak, erran duenez, «8. mailara arte». D ereduko bigarren promozioa ikaslea izan zen eta orduko «oroitzapen onak» ditu gordeak. Kontatu duenez, «D ereduko ikasle gehienak inguruko herrietakoak ziren» eta herri batetik bertzera zerbait nabarmentzekotan horixe omen zen «alderdik handiena»: «Herri ttikieta-koak euskaraz gehiago aritzen ziren eta Donezteben gehiago kostatzen zen euskara sumatzea. Gure kuadrillan, adibidez, aunitz A ereduari ibili ziren eta euskaraz ez ziren solastatzen. Herrietakoek, ordea, beraien artean euskaraz egiten zuten».

Dena den, D ereduak bere arrastoa utzi zuen: «Gerora harremana erabat euskaraz izan duten kuadrillak ezagutu ditut Donezteben, hiketan aritu diren lagun kuadrillak». Hala ere, «berriz ere euskarak Donezteben gibelera» egin duela iruditzen zaio.

Eskola bera ere «aldatua» ikusten du, «gauza guztiak bezala, momentuko beharretara egokitu behar izan du, baina bere esentzia ez du galdu. Inguruko eskolarik handiena izanen da, baina edozein herritako eskola bat bezala da, denok ezagutzen dugu elkar eta nahiko giro lasaia dago».

Ikasle denbora gibelean utzita, ez zuen alde batera utzi bere eskola. Izan ere, «hamalau urtez bertako irakasle eta horietatik



Felipe Ganboa Zabalo doneztebarra.

hamabitan zuzendaritzan izan nintzen, ikasketa buru». Eta ongi moldatu omen zen sorterrian arduratzen: «Eskolan pasatzen den guztiak herrian eragina du, baina nik ez nuen arazorik izan. Gainera, Erreka Kirol Elkartearen ibiltzen naiz eta banituen bertze harremanak familiarekin eta ikasleekin. Ez dut deus negatiborik sumatu».

Duela hiru urte utzi zuen San Miguel eskola, eta geroztik

Lekarozko Irakasle Laguntza Zentroko (ILZ) zuzendaria da. Baina bere plaza Doneztebeko eskolan du, nahiz eta ez duen argitu bueltatuko den edo ez: «Nire eskola Doneztebekoa da, hori argi dut, hainbertze urte pasatu nituen ikasten, eta gehiago irakasle, baina ez dakit bueltatuko naizen. Etapa bat ixten duzunean, berriz bueltatzea... Oraingoan, bortz urtetarako nago Lekarozko ILZn, hau hirugarrena dut, eta bosgarren urtean hemen segituz gero, plaza galduko nuke. Momentua ailegatzean, ongi pentsatu beharko dut, gainera, nire azken urteak izanen dira».

Gerokoak geroko utzita, garbi du ekainaren 8ko urteurren bestan ez duela hutsik egiten, eta aukera probestuz, «animatzeko» deia egin du: «Ospatzeko eguna izanen da. Herri batean eskola garrantzitsua da eta merezi du. Seguru egun polita eta hunkigarria izanen dela».

## «Eskola hau aunitz maite dut eta ezin dut objektiboa izan»

**SARA MAYLIN MINDEGIA** IKASLE OHIA ETA IRAKASLEA

«Malerrekako herri gehienetako ikasleak bildu ginen eta lagun gehiago egin genituen. Oroitzapen onak ditut». Halaxe oroitzen ditu Sara Maylin doneztebarrak San Miguel eskolako lehenbiziko urteak. 6. maila akitzear zela utzi zuen eskola zaharra eta «herrian bertan, eskola berria... Ederki moldatu ginen».

Gerora berriz bueltatu zen hainbertze maite duen eskolara: «Lanean Donezteben hasi nintzen». Ondotik «Zubietako, Iturengo, Arantzako eta Nartabarko eskolatan» ibili zen, «eta haurdun gelditu nintzenez, Doneztebera bueltatu nintzen». Duela 19 urte izan zen hori eta hor segitzen du. «Hamar urte zuzendaritza ere pasatu nituen» eta tartean «erabaki gogorrak» hartu behar izan zituela dio.

Halere, hori ez da oztopo izan herrian lan egiteko: «Niretako hagitik polita izan da. Ez dut inoiz arazorik izan, eta gurasoek eta ikasleek nahiko ongi errespetatu dute nire esparru pertsonala eta eskolako esparrua».

Hain zuzen, zuzendari zela erabaki zuten B ereduaren kentzea: «D eta B ereduaren artean ia ez zegoen alderik, plastika bakarrik ematen zen gaztelan. Batzuetan B ereduaren erabilera ez zen egokia, herrietatik Doneztebera etortzeko probesten baitzuten, garraioa eta jantokia dohainik izateko, eta kendu genuen. Gaur egun, A eta D ereduak daude, baina A ereduak hagitik marjinala da».

D ereduaren igoera, ordea, ez da erabileran nabaritu. «Donezteben arazo bat dugu.



Sara Maylin Mindegia doneztebarrak.

Aunitzek badakigu euskaraz, baina ez dugu behar bezala erabiltzen. Gauza bera eskolan. Eskola orduetan euskaraz ariko dira, baina joko librean eta eskolatik aterata aunitzetan erdaraz. Inguruko herrietan ez da hori gertatzen, Donezteben bai».

Erretiroa ere hizpide hartu du, gutti gelditzen baitzaio: «Bi ikasturte falta zaizkit % 100 kobratu ahal izateko eta urtez urte erabakiko dut. Ikasturtea indar-

tsu hasten dut, baina bukaeran nekea nabaritzen da». Agerian utzi du behintzat ofizioa maite duela: «Irakaskuntza hagitik zoriontsu izan naiz eta uzteak pena handia ematen dit». Halere, ez dirudi erretiraturata asper-tuko denik: «Ingelesa ikasi nahi dut, baratzean ari, amarekin denbora gehiago pasatu, bidaia-tu...». Bidean ezagutu dituen eskolen artean «Arantzakoa bihotzean» izan den duela aitortu du, baina bere eskola Doneztebekoa dela argi utzi du: «Sentimendu aunitz ditut eskola honekin. Ikasle izan nintzen, irakasle, zuzendari, semea ere ikasle izan da... Eskola hau aunitz maite dut eta ezin dut objektiboa izan. Badira aldatu edo hobetu beharrekoak, baina eskola polita da eta aitzinera egiten lagundu behar diogu». Ekainaren 8an ere han izan den eta jendeari «faborez, etortzeko» eskatu dio: «Urte aunitz konpartitu ditugu eta polita izan den elkartzeara».

## «Gure aurretik apustu sendoa egin zuten euskal lerroa atera zedin»

**MARISOL URIA JAUREGI** IRAKASLE OHIA

Irakasle ikasketak akitu eta Doneztebeko San Miguel eskolan hasi zen Marisol Uria tolosarra (Gipuzkoa): «1983ko irailean izan zen, 21 urterekin», kontatu duenez, «euskarazko lerroa seigarren mailan zegoen» ikasturtean. Bertzelako datuez ere oroitzen da. «Taldea kopuruari dagokionez, adibidez, 1984-85 ikasturtean, 6. mailako lau talde zeuden: 46 ikasle gaztelarazko lerroan eta 34 euskarakoan».

1983tik 1989ra izan zen irakasle eta «askotariko oroitzapenak» dituela dio. Tartean, gogoan du «eskola txikitako irakasleekin biltzen ginela edo euskara ikasteko ikastaroak antolatzen zirela eskolan irakasleentzat». Gehiago ere bai:

«Ikastetxeetatik kanpora egindako irteerak, ikastetxe barruko jarduerak edo inguruarekin lankidetzan egindako proiektuak» ere oroimenean ditu. Batzuk aipatu ditu: «1983-84 ikasturtean 4-5 urtekoekin Berrara egindako bidaia, 1984-85ean 6. mailakoekin Altzora egindako irteera, 1985-86an Bartzelonako eskola batekoekin egindako elkaturkea, urtero euskararen astea...». Gisa berean, «familiek irakasleon lana baloratzen zutela» eta «guraso elkar-teak oso parte aktiboa» zuela aipatu du.

Euskal lerroaren alde bere aletxo ere jarri zuen: «Gure aurretik irakasle batzuek eta beste askok apustu sendoa egin zuten euskal lerroa atera



Marisol Uria Jauregi tolosarra.

zedin. Eskolako irakasleen erdia baino gehiago elebidunak ginen eta, oztopoak oztopo, bidea eginda aurkitu genuen. Bide horretan paper garrantzitsua izan zuen, besteak beste, Maria Jesus Perurena irakasleak. Hasieratik euskarazko taldearekin egin zuen bidea euskal lerroaren lehen promozioa atera arte, 1985-86 ikasturtean. 86-87an zuzendaritza hartu zuen,

eta bere taldean ikasketa buru hiru urtez aritu nintzen». Badu orduko «gertaera berezi» bat: 1987-88 ikasturtean Erein argitaletxearen Gizarteko liburu bat erabiltzea debekatu ziguten, Nafarroako guraso batzuk jarritako helegite bat medio. Arrazoia Euskal Herriari buruzko mapa izan zen, zazpi probintziak ateratzen zirelako».

Urteak pasatu dira geroztik baina ez du atzendu Doneztebeko egonaldia. Oraindik ere «Malerrekara urtean bizpahiru aldiz lagunekin egotera» hurbiltzen da eta «1983tik 89ra aritu ginen hamaika lagun maiz elkartzen gara. Gelditu zaigun legatu ederra da hori, lagun taldea».

Ekainaren 8an ere «gustura» joan den kontatu du. «50 urte urteak dira. Bide luzea egin da, eta tartean lagun batzuk utzi gaituzte. Baina merezi du ospatzea, eta ospatuz, aurrera begiratzea. Zorionak Doneztebe!»

## «Lehen irakaskuntza magistrala zen, orain bertze aspektuak lantzen dira»

**BITTORI MENDIBURU MARTIN** IKASLE OHIA ETA IRAKASLEA

San Miguel eskola eraiki zutenean, hirugarren maila akitzearen Bittori Mendiburu doneztebarra eta orduan egin zuen batetik bertzerara salto. Esplikatu duenez, «Malerrekako eta Bertizaranako haurrak elkartu ginen eta aldaketa niretako hagitz positiboa izan zen. Bertze eskolan, 3. mailatik 8. mailara bitarteko neskak elkartuak egoten ginen eta ni ttikienetarikoa nintzen. Eskolaz aldatu ginenean, adinaren arabera antolatuta, giro goxoagoa eta alaiagoa sortu zela oroitzen naiz». Orduko oroitzen gehiago ere baditu, tartean, «12 bat urterekin torneoetara hasi gine-la: atletismoa, saskibaloia txapelketak... Ordura arte mutilak bakarrik joaten ziren. Parte

hartu nahi genuen erran zigutenean, segidan animatu ginen».

Ikasle lehenbizi eta irakasle gerora. «1991tik Doneztebeko eskolako irakaslea naiz, Gorputz Hezkuntzakoa». Ikasle izatek irakasle izateko bidean «aldaketa aunitzen» lekuko izan da. Bertzeak bertze, «lehen irakaskuntza magistrala» zela dio; «gehienbat edukietan oinarritzen zen, horiek memorizatzen, aniztasuna eta inklusioa kontuan hartu gabe». Gehiago ere bai: «Ikasle nintzenean, Gorputz Hezkuntzan, adibidez, kirola eta gaitasun fisikoak lantzen ziren. Gaur egun, horiez gain, bertze zenbait aspektu ere lantzen dira: lankidetzak, osasuna, errespetua, balio sozialak eta zibikoak, kiroltasuna,



Bittori Mendiburu doneztebarra.

berdintasuna... Ikasleek ongi pasatzen dute eta haien gustura badaude, ni ere gustura lanean».

Sumatu duen bertze «aldaketa nagusia teknologia berriak» izan dira eta «ikasleak teknologia berrietan trebatu behar dira, baina erabilera mugatu» behar dela uste du.

Hizkuntza ere aipatu du. «Kontzentrazioa pasatu nin-

tzenean arlo guztiak erdaraz ikasten genituen. 6. mailan euskara ekintza osagarri bezala ematen hasi ginen, apezarekin». Gerora, egoera «pixkanaka» aldatzen hasi zela gehitu du: «Denborarekin eskolan euskara gehiago aditzen hasi zen. Doneztebeko eskolan irakasle hasi nintzenean hiru hizkuntza eredu genituen: A, B eta D ereduak. Gaur egun, haur gehienak D ereduari ditugu, eta A ereduko gela bakarrik dugu. Eskolak euskararen alde lan handia egiten du eta poztekoa da bertze herrialde batetik datozen haurrak euskaraz solas egiten akitzen dutela aditzea».

Ekainaren 8ko bestaren hari- ra, «Malerreka osoa elkartzeko» deia egin du eta «belaunaldiz belaunaldi lekukoa pasatzeko ekitaldian ikasle ohiak animatzea eta eskolak sortutako elkartasun keinu hau bizitzea» nahi luke.

## «Nahiz eta institutuan banatuko garen, lagunak beti bihotzean izanen ditugu»

SEIGARREN MAILAKO IKASLEAK

Gehienak bi edo hiru urterekin hasi ziren Doneztebeko eskolan, bertze batzuk bidean elkartu ziren taldera, baina denek hau dute Doneztebeko eskolan hondarreko ikasturtea. Seigarren mailako ikasleak dira, Doneztebe, Elgorriaga, Legasa, Gaztelu, Zubieta, Donamaria eta Urrozkoak eta ia hamarkada batez San Miguel eskola izan dute bilgune.

Ez dituzte atzenduak hasierako urteak. Onartu dute «batzuk bihurriak» zirela; «tontakeriak egitea gustatzen zitzaigun». Baina ez hori bakarrik: «Arma- ruko dinosauroarekin jostatzea gustuko genuen eta jolastokian eta saltogelan aunitz disfrutatzen genuen. Gosaria denon artean jan, eraikuntzak egin, siesta, kantatu, txoko librea, honda-

rraren tokia, M<sup>a</sup> Eugeniaren trikitixa urtebetetze egunetan...». Oroitzapen politak dituzte.

Eta gaur egun? Argi dute zer gustatzen zaien eta zer ez: «Lagunekin egotea eskolara etortzeko arrazoi bat da. Gutako aunitzi Gorputz Hezkuntza eta patioa gustatzen zaigu gehien, eta klaseak eta etxeke lanak guttien». Horri lotuta, hori bota dute proposa- mena: «Ez dugu ulertzen zergatik ditugun Gorputz Hezkuntzako saio gutti, hagitz ongi pasatzen baitugu. Bertze ikas- gaiak bikain dominatzen ditugu, ez ditugu horrenbertze behar». Azterketek edo «barne eta kanpo frogak beldur handia» ematen dietela ere aipatu dute, baita «irakasle batzuekin pixka bat gehiago sufritu» dutela ere.



Seigarren mailako ikasleak tutorearekin.

Institutura joateko gogoz ote dauden galdetuta «dudak» dituzte: «Aunitzek etapa berria hasteko ilusioa dugu. Gainera, lagunak egiteko eta jendea ezagutzeko aukera izanen dugu. Baina bertze batzuk eskolan gelditu nahi dugu». Kezka hori dute: «Beldurra ematen digu institutuan dena zailtzen baita. Lan pila bat egin beharko dugu eta denak urduritzen gaitu». Garbi dago, oroitzapenez bete-

tako motxilarekin joanen direla. Tartean, irakasleak gogoan izanen dituzte: «batzuk onerako eta bertzeak ez horrenbertze. Otsagabiko astea, txangoak, jantokiko momentuak, patioko futbol partidak, beisbola eta pilotako puntuak eta Gorputz Hezkuntzako jolasak ez ditugu atzenduko». Denaren gainetik «lagunekin bizitako oroitzen eta bihurrikeriak» bihotzean egiten dute DBHra salto.

## Gure eskualdearen etorkizuna, gure esku

**ARANTXA ARREGI**

CEDERNA-GARALUR ELKARTEKO LEHENDAKARIA

CEDERNA GARALUREk Baztan-Bidasoko Aktibazio Planaren zirriborroa prestatzeko hausnarketa estrategikoko prozesua jarriko du abian, eta herritarrek parte hartu ahal izanen dute.

### Zer lortu nahi du CEDERNA GARALUREk ekimen honekin?

Munduan aldaketa aunitz gertatzen ari dira, eta aldaketa horiek, berandu baino lehen eragina izanen dute gure herrien etorkizuneko garapenean. Enplegua, etxebizitza, hezkuntza edo osasuna bezalako gai garrantzitsuak, datozen aldaketen arabera birdefinitu beharko dira. Erronka horren aitzinean, ezartzen dizkiguten ereduera egokitu behar dugu, edo bertzenaz, geure eredu definitzeko ahalegin kolektiboa egin. Horiek horrela, hausnarketa estrategikoko prozesu bat egitea da Cederna Garalurren apustua, prozesuan parte hartzen duten erakunde guztien artean adostutako ekintzara igaro ahal izateko. Aurreko agintaldian hasi zen prozesua da, eta hauteskunde ondo-rioz gelditu egin zen. Orain, lehendik egondako pertsona batzuekin hasiko dira berriz lanean, eta bertze batzuk, aldiz, agintaldi berrikoak izanen dira.

### Nola pentsatu duzue prozesu estrategiko hori egitea?

Prozesua hasteko, Eskualdea Aktibatze Planaren zirriborro bat idatziko da, aurreko agintaldian egindako prospekzio-fase batean lortutako emaitzetan oinarrituta. Zirriborroa eztabaida-mahai batzuetan aztertuko da eta, ondotik, eskualdeko biztanleek aztertuko dute. Prozesuak

izaera berritzailea du eta bi aldeak, kualitatiboa eta kuantitatiboa, uztartzen ditu.

### Nork egingen du planaren zirriborroa eta nola finantzatuko da?

CEDERNA GARALUREk Iñigo Doria berrikuntzako ekosistemetan espezializatutako aholkularia kontratatu du plana egiteko. Doriak esperientzia du gisa horretako prozesuetan eta balio erantsia ematen dio prozesuari, aurreko agintaldian hasi zelako eta eskualdea ezagutzen zuelako. Plana egitea Nafarroako Gobernuak finantzatzen du, Industria Departamentuaren eta Trantsizio Ekologiko eta Digital Enpresariaren bitartez, lurraldearen garapena eta kohesioa sustatzea helburu duten eskualde-aktibazioko planak egiteko eta gauzatzeko laguntzen urteko deialdiaren bidez.

### Zer emaitza espero dituzue prozesu hau aktibatzean?

Lehenik eta behin, eskualdearen etorkizunaren ikuspegi partekatua eta adostua lortu nahi genuke, parte-hartze publiko eta pribatuko berrikuntzaren bidez. Era berean,



Arantxa Arregi, Cederna Garalur garapen agentziako lehendakaria. UTZITAKO ARG.

erakunde bat edo lan egiteko modu bat sortzea, eskualdeari egonkortasuna eta aurrerapena emateko, bai proiektuetan, bai gobernantzan. Eskualdeko garapen sozioekonomikoaren prozesuan tokiko gobernantza aldia baino ikuspegi zabalagoa izatea, epe labur, ertain eta luzerako dinamikak izanen dituen prozesu baten bidez, emaitza ezin

izanen baita epe laburrean neurtu.

**«ENPLEGUA, ETXEBIZITZA, HEZKUNTZA EDO OSASUNA BEZALAKO GAIK, DATOZEN ALDAKETEN ARABERA BIRDEFINITU BEHARKO DIRA»**



**BAZTAN-BIDASOA**

**Aktibazio Plana**

[aktibazioplana@baztanbidasoa.org](mailto:aktibazioplana@baztanbidasoa.org)

# Elkarlanak prestatuko du Baztan-Bidasoa etorkizuneko erronkei aurre egiteko

IÑIGO DORIA INNOVATION MAKER



Iñigo Doria, berrikuntzako ekosistemetan espezializatutako aholkulariak gidatuko du prozesua. TTPI-TTAPA

## Baztan-Bidasoak bere etorkizunari buruzko hausnarketa estrategikoko prozesu bati ekinen dio. Zein da zure kualifikazioa proiektu honi ekiteko?

Hasieratik nire ibilbide profesionala Baztan-Bidasoari lotuta egon da. Lehenik, Nafarroako Gobernuako teknikari gisa, eskualde horretako 25 udalak batzeko eginkizunarekin, garai hartan Leitzarain ere barne hartzen baitzuen; gero, Mattari Alzuarte eta Mitxel Ibarrolarekin batera, BKZ eratu nuen; gero, oposizio bat irabazi nuen negozio-turismoa Foru Erkidego osora hedatzen zuen Nafarroako Kongresu Jauregiaren eta Auditorioaren proiektua zuzentzeko; hortik, proiektuen kudeatzaile gisa

sartu nintzen IV. Belaunaldiko turismoan espezializatutako THR multinazionalan, ondotik, MIK Berrikuntza Zentroarekin lankidetzan aritzeko, Mondragon Unibertsitateko Bidasoko campusean, non hainbat kluster aktibatze aukera izan nuen, hala nola Nafarroako Nekazaritzako Elikagaiak. Lanpostu horietan guztietan, berrikuntzako ekosistemak diseinatzen eta aktibatzen lan egin dut, eragile desberdinen arteko lankidetzaren bidez.

## Baztan-Bidasoko prozesu estrategikoan, zer izanen da berrikuntza?

Baztan-Bidasoan plangintza estrategikoa egiteko sistema berri bat esperimentatuko

dugu, kualitatiboa eta kuantitatiboa uztartuko dituen. 0 fasean, parte har dezaketen agenteen prospekzioa egin genuen joan den agintaldian, Nafarroako Gobernuaren enkarguz. Hortik atera genituen Eskualdea Aktibatze Planaren lehen zirriborroa egiteko oinarriak, eta fase horri ekinen diogu orain. Lehen zirriborroa aurrez hautatutako eragileek aztertuko dute, bigarren zirriborroa berriz egiteko. Bigarren

zirriborro hori Baztan-Bidasoko biztanleek aztertu beharko dute, parte hartzeko plataforma telematikoa baten bidez. Plataforma horren bidez, edonork bere iritzia eta proposamenak eman ahal izanen ditu, bai eta Plan osoa eta proposamenak bozketa birtualeko sistema baten bidez baloratu ere.

## Berrikuntza orok bere arriskuak ditu; beraz, zeintzuk izanen dira prozesu berri honetan arrakasta izateko funtsezko faktoreak?

Egia da berrikuntza orok porroterako arriskua duela. Hala ere, egia da arriskatzen ez duenak ez duela aurrera egiten. Alde horretatik, arrakasta izateko oinarriko lehen faktorea autokonfiantza da, hau da, prozesuan parte hartuko dutenek erronkei aurre egiteko eta besteekin lankidetzan aritzeko beren gaitasunetan izan behar duten konfiantza. Faktore horrek beste faktore garrantzitsu batekin ere badu zerikusia, hau da, gure komunitateak dituen behar kolektiboei gure komunitatea osatzen duten guztien arteko lankidetzakonpromisoarekin erantzungo zaiela dioen sentimendu partekatuekin du zerikusia.

## «PARTE HARTZEKO PLATAFORMA TELEMATIKO BATEN BIDEZ, EDONORK BERE IRITZIAK ETA PROPOSAMENAK EMAN AHAL IZANEN DITU»

Prozesua zabalik dago eta ideiak edo proposamenak aurkeztu nahi dituztenek helbide honetara jo dezakete:

[aktibazioplana@baztanbidasoa.org](mailto:aktibazioplana@baztanbidasoa.org)

## Ekainaren 1ean eginen dute Dantzari Ttiki Eguna

Goizean herriko hainbat auzotara joanen dira dantzatzera eta 12:30ean dantza jaialdia eginen dute

### A. LARRETxea

Dantzari ttikien bilgune bihurtuko da berriz ere Bera heldu den larunbatean. Gure Txokoa Dantza Taldeak ekainaren 1erako antolatu du aurtengo Dantzari Ttiki Eguna. Herriko dantzari ttikiez gain, Lezoko Murixka, Zaldibiako Iztueta eta Tolosako Udaberri taldeetako haurrak etorriko dira herrira.

Goizean ailegatuko dira haurrak Berara eta 10:30etik aitzinera herriko hainbat auzotara joanen dira dantzariak hainbat taldetan banatuta.

Hamaiketakoa egin, eta bueltan, 12:30ean dantza jaialdia eginen dute. Eguraldi ona bada Merkatu plazan elkartuko dira, eta txarra bada, aldiz, Eztegarra pilotalekuan. Jaialdian dantzari denak ariko dira.

### Arratsaldean erromeria

Dantza jaialdiaren ondotik, kanpoko dantza taldeetako haurrak Berako haurren etxetara joanen dira bazkaltzera, eta eguna borobiltzeko, 16:00etan denak elkartu eta dantzaldia izanen da Jaiki Hadi taldearekin.

## 'Su festak' liburua aurkeztuko dute ekainaren 2an

Kataku kultur elkarteak Jon Urzelai kazetariaren *Su festak* liburuaren aurkezpena antolatu du, igandean, ekainaren 2an, 12:00etan Beralandetan. Idazlea aurkezpenean izanen da makrofestibalei eta kultur ereduari buruz solastatzeko. Luntxa ere izanen dute.

## Ibardingo igoyeraren VIII. edizioa ekainaren 8an

Ziharka Sport eskuderiak Ibardingo Igoeraren VIII. edizioa antolatu du ekainaren 8rako. 12:30ean itxiko dute errepidea, eta 13:30ean hasiko da lehen manga. Proba puntuagarria izanen da Nafarroako Mendiko Koparako eta juniorren Mendiko Koparako.



UTZITAKOIA

## Txistulari gazteak txistu txapelketan

Maiatzaren 1In Musika Eskolako Xabier Suasnavas, Xuban Lasaga eta Aiert Yanci txistulari gazteek Bilboko Bidebarrieta Kulturgunean ospatutako Euskal Herriko Txistulari Gaztetxoan Txapelketan parte hartu zuten. Txistu eta danbolina jotzen hagitz trebeak direla erakutsi zuten. Zorionak!



LABIAGA IKASTOLAK UTZIA

## Komikia izan da protagonista

Udalak antolatuta, Komikialdia egin dute herrian. Lau eskoletako ikasleak Joseba Larratxerekin komikiaren munduan murgildu dira, eta beren lanak ikusteko aukera izan da Euskal Irudigileen lanekin batera. 'Ni ez naiz Mikel Laboa' komikiaren aurkezpena ere izan da zikloaren barrenean.

**BIDASOA**  
GURPILAK • GASOLINGOIAK  
100% BERRIK  
948 446 693 - 948 625 663  
www.bidasoa.com

**GASOLIOA ETXERA**  
erazten dugu

Gurel eskaintze berezik  
24h-ko esizentziak errepideetan  
IA7 euskaraz zerbitzu beharrik  
Gasolindegik 24h irekita

**Alkaga Industrialdea**  
Zubi Kalea 6  
31170 Lesaka (Nafarroa)

**Noain-Eskiroz Industrialdea**  
Y Kalea 10  
31110 Noain (Nafarroa)

**Zelain**  
JATETXEA RESTAURANTE

Eramateko janaria  
astelehenetik ortziratera

Zelain Auzoa BERA t. 948 631 106 w. www.zelain.info

**Alberto RETEGI**  
abokatuak  
abokatuak  
© 948 630 763 - Altzate, 17 - BERA

**Ainhoa Alzuguren Mitxelena**

Abokatutza orokorrean • Herentziak  
Alokairuak • Arazo administratiboak

Zerbitzua euskaraz ematen dut. Deltu hitzordua hartzeko

Legia 42, BERA - M. 630 97 21 89 - ainhoaalzuguren@gmail.com





Dinamiketan parte hartu duten hezkuntzako eragileak. UTZITAKOIA

## Herri hezitzailea izateko bidean urrats sendoak

Oinherri herri hezitzaileen sareko kide da Bera eta lehen hiru foroak egin dituzte udaberrian

### A. LARRETXEIA

Herri hezitzaileen sareko kide da dagoeneko Bera, eta lehen urratsak hiru hezkuntza forotan eman dituzte. Hezkuntza komunitatearen parte diren eragileak aritu dira horietan: udal ordezkariak, hezkuntza formalean zein informalean parte hartzen dutenak, eta herri mugimendutako kideak. Etorkezinean lantzeko hiru erronka nagusi zehaztu dituzte: hezkuntza euskalduna sustatzea kanpoko familiek D eredua ereduaren aldeko apustua eginez; hezkuntza anitza, inklusiboa eta elkartzunean oinarritua sus-

tatzea, herrian dauden bertze lurralde batzuetatik etorriko herritarrek herri euskaldun batean sentitzea, euren jatorria ahanzi gabe; eta eguneroko jardueretan ikuspegi feminista presente izatea.

Hiru taldetan ariko dira lanean. Talde eragilea hezkuntza egitasmoen jarraipena egiteaz arduratuko da eta hezkuntza formaleko, ez formaleko eta udaleko kideek osatuko dute. Bigarren taldea dauden ekimenen arabera sortuko diren lan taldeak izanen dira eta hirugarrena, urtean hirutan egingen dituzten hezkuntza foroak.

## Mugaz gain antzerki jaialdia egingen dute ekainaren 5ean, 6an eta 7an

### TTIPI-TTAPA


Antzerkia izanen da protagonista Kultur Etxean ekainaren 5ean, 6an eta 7an. Mugaz gain jaialdia egingen dute, eta herriko ikasleak ariko dira oholtza gainean. Ekainaren 5ean DBH-ko ikasleak ariko dira taula gainean, eta 6an eta 7an, aldiz,

LHkoak. Azken bi egun horietan, goizeko ikasleentzako saioez gain, arratsaldean ate irekiak izanen dira 18:00etan.

Lerro hauek idazterakoan egitaraua eta ordutegiak zehazten ariziren oraindik, eta beraz, informazio osatua [erran.eus](http://erran.eus) atarian aurkituko duzue.

## Auzolanean aritu dira Garaitarretako bizilagunak

Berriki Garaitarreta auzoko bizilagunak auzolanean aritu dira auzoko biderako ubideak eta kunetak hormigoiz betetzen. Lan horien bidez, ibilgailuak gurutzatzeko aukerak hobetu dituzte, eta segurtasuna ere irabazi dute auzoko bideetan. Udalak materiala paratu du eta auzotarrak eskulana.



UTZITAKOIA



UTZITAKOIA

## Suhiltzaileak Palestinaren alde

Urriaren 7an Israelen Palestinaren kontra hasitako gerraren ondotik, aunitz izan dira Palestinako herriaren aldeko babes mezuak. Herriko suhiltzaile boluntarioek ere bat egin nahi izan dute Palestinako herriarekin, eta beren babesa adieraziz pankarta egin eta argazkia atera dute.

Ansoenea

MUS TXIMISTA TXAPELKETA

BERTAN BEHERA

Ekainak 16 30€ bikoteko

SARIAK

Lehenengo saria 1.200 € eta txapelak

Bigarren saria 600 €

Bertan Behera

Foruen plaza, 1 | BERA

948 630 107

649 337 723

# Joseba Irazoki, Janus Lester eta Rüdiger sarituak

Musika Bulegoa elkarteak hamaika proiektu saritu ditu denera, horietatik hirutan herriko musikariak ari dira

## A. LARRETxea

Maiatzaren 16an banatu zituen Musika Bulegoa elkarteak aurtengo sariak. Denera 11 sari eman zituzten eta horietako hiru Berako musika proiektuek lortu zituzten: Joseba Irazoki gitarrista aritzen den Bas(h) oan proiektuak, Jokin Pinatxoren Janus Lesterrek, eta azken urteetan Beran bizi den Felix Buffen Rüdigerrek.

Bas(h) oan proposamen «berzia» eta «desberdina» dela nabarmendu du epaimahaiak, gaur egungo moldeetatik «kanpo» dagoena: «Musika herrikoa, folka alegia, modu garaikidean plazaratzen du. Originala, ausarta, 'salgarri' edo *mainstream* izatetik urruti, eta euskal musika modernoari ekarpen itzela egiten dio».

Janus Lesterri dagokionez, bere ahots «zoragarriare-

kin», popa eta funkia euskaraz «ederki eta lotsagabe» uztar daitezkeela nabarmendu dute. «Zuzeneko diskoa izugarri ondo grabatua egoteaz gain, demostratzen du taldeak ezin hobeki defendatzen dituela bere kantak zuzenekoetan. Instrumentu guztiak maila onean, eta zuzenekoak behar duen ukitu konplizea ondo landuarekin».

Felix Buffen Rüdiger da hirugarren saritua. Iazko sorpresarik «atseginena eta erakargarriena zalantzarik gabe». New Yorken 60. eta 70. hamarkadetan egiten zen musika Euskal Herrira ekartzen asmatu izana saritu dute: «Bateria utzita, gitarra hartu eta kantatzeari ekin dio Felixek, eta sekulako poztasuna eragin digu Lou Reed, Nico edo John Cale Euskal Herrian berpiztu direla pentsatu baitugu. Izugarria!».



Hainbat langile grabazioa prestatzen. ANDONI ANDUEZA

## Netflixerako pelikula bat grabatzen aritu dira herriko hainbat txokotan

### A. LARRETxea

Netflixek ekoiztutako eta Agustin Diaz Yanes zuzendutako 'Un fantasma en la batalla' pelikula (behin-behineko izena da) grabatzen aritu dira hainbat egunez Beran. Susana Abaitua da pelikulako protagonista eta Gorostipalako bordan, Auzoa jatetxearen inguruan eta herriko etxeko plaza eta eliza inguruan aritu dira grabaketa lanak egiten.

Aunitz izan dira grabaketaren bueltan herrira lanera etorritako langileak, eta gra-

baketa lekuez gain, Kultur Etxeko erakusketa aretoan ere ibili dira prestaketa lanetan. Otorduetarako, aldiz, Gure Txokoa elkarteak jangela erabili dute, bertzeak bertze.

Thriller politikoa izanen da, eta ETaren kontrako borroka antiterroristan aritu ziren hainbat Guardia Zibilen testigantzetan oinarrituta dago. Pelikulak ETAn infiltratutako Guardia Zibil baten historia kontatzen du. Susana Abaituaz gain, Raul Arevalo, Ariadna Gil eta Iraia Elias aktoreak ere ageri dira pelikulan.



TTIPI-TTAPA

## 'Loratzen' dokumentalari babesa

Espidobaita elkarteak Kotto Altzugureni buruzko dokumentala egiten ari da eta finantzatzeko diru bilketa hasi dute *itsulapikoa.eus* atarian. Dokumentala babesten duten hainbat herritarrek argazkia atera zuten maiatzaren 18an.

## Idoia Ibarboure Nazioarteko Filosofia Olinpiadan

Toki Onako Idoia Ibarboure ikaslea Finlandian izan da Nazioarteko Filosofia Olinpiadan parte hartzen. Sailkapen fasea egin du lehenik, eta espainiar estatuko bi ikasle bakkarik aukeratu dituzte.

Bertzalde, Erasmus+ programara proiektu bat aurkeztu du Toki Onak, eta saritua izan da. Proiektuaren helburua irakasleak irakaskuntza modu berrietan formatzea eta metodologia horietan esperientzia duten ikastetxeetan behaketa egitea da. 16 hilabete izanen dituzte garatzeko.



Elutxa txarangako musikariak maiatzaren 20an plazan, Bergarako bestatara joateko prest. AITOR AROTZENA

## «Hainbat musikari eta talde trebatu gara Elutxa txarangan»

AMAIA TELLETXEA MENDIGUTXIA ELUTXA TXARANGAKOIA

‘Ttak’ diskoa karrikaratu berri du Elutxa txaranga. Hamaika urteko ibilbidea hamaika piezarekin borobildu dute, hamaika bizipen eta herritan jotako musikaren laburpen

**AITOR AROTZENA LESAKA**  
Hamargarren urteurrenaren inguruan hasi zineten diskoa prestatzen, baina hamaika urte egin dituzuen karrikaratu...

Gaur egungo denboretan ohikoa den bezala, hamaika istoriotan sartuak gaude denak eta zaila izaten da edozein gauzarako tartea ateratzea. Halere, diskoaren produkzio osoa hamargarren urteurren iraun duen bitartean egitea lortu dugu. Esperientzia hagitz polita izan da eta urteetan Elutxatik pasatako hainbat musikaririk eta kolaboratzailek parte hartu dugu.

**Zergatik ‘Ttak’?**

Disko barrualdean azaltzen dugun moduan: *xirripi-xarra-*

*pa, ttipi-ttapa, hala-nola, han-hemen, hau ta hori ta hura, Elutxa Txaranga hamar, eta hamaika, urte. TTAk.* 16-19 urte artean genituen taldea osatu genuenean, fundamente eta ezagutza handiegirik gabe, baina ilusioz beterik ginen. Pixkanaka, xuabe-xuabe, urteak pasatzen joan dira, egoerak aldatzen: batzuei musikaren afizioak gogor hartu die eta profesionalak egin dira, bertzeak bertze lanbidetan hasi gara, taldekide batzuk joan zaizkigu eta bertze batzuk etorri, batzuetan ia zerotik hastearen sententzioa izan dugu, pandemia medio... Azkenik, kontu bat eta bertze, ttipi-ttapa, ia espero izan gabe,

10 urte bete ditu Elutxak. Hor-txe gure diskoa: Ttak.

**Txaranga musikarekin batera, ahotsa ere sartu duzue zenbait piezatan. Hori berezia da, ez?**

Lau kantetan sartu dugu ahotsa, hainbat arrazoi medio. Alde batetik, Altsasuko Kalez kale peñako lagunei oparitu genien ereserkiak, baita gureak ere, letra dutelako. Bertzetik, gure ustez diskoa aberasten duelako txaranga soinuaren

**«AHOTSA NOIZEAN BEHIN SARTZEAK MONOTONIA HAUSTEN DU»**

monotonia noizean behin hautsiz. Eta azkenik, Egoitz Telletxeak diskorako espreski eginiko *Kankatzen* kanta grabatzeko, Kanka Rock taldearen abeslaria zen Jabier Fagoagaren kolaborazioa bai edo bai sartu nahi izan dugulako. **Hamaika urte hamaika herritara ailegatu izanen zarete... Zein da oroitzen onena uzten dituztena?**

Beti ibili gara inguruko herrietan gehienbat, txarangarekin edo gabe, edozein modutan joan ginen bestetan: Bortzirietan, Malerrekan, Sara inguruan... Beraz, oroitzen onakizaten ditugu, ia denetan, gure inguruko jendearekin egoten baikara. Urtero huts egiten ez dugun hainbat herri ditugu: Donostia, Doneztebe, Etxalar, Altsasu, Legazpi, Lesaka...

**Jendeak badu oraindik txaranga gibeletik dantzan karrikaz karrika ibitzeko ohiturarik?**

Herriaren arabera eta/edo egunaren arabera txaranga segida gehiago edo guttiago izaten du. Badira momentu puntual batzuk bestetan txaranga garrantzia handia hartzen duena: Lesakako peñen jaitziera, Etxalarko Asau eguna, Donostiako danborrada eguna, herri aunitzetako txupinazoak... Horrez gain, badira herri batzuk txaranga beti jarraitzen dutenak. Malerrekako herrietan, orokorrean, aunitz gustatzen zaie txaranga gazte zein helduei.

**Bertze hamaika urterako soka gelditzen zaizue?**

Nik behintzat ez ditut bertze hamaika eginen, hori seguru. Baina nahiko nuke Elutxak egiten balitu. Lesaka eta inguruko herrietarako musikari harrobi ederra dela uste dut. Gure inguruko gazteen artean musika ikasteko eta hainbat instrumentutan trebatzeko motibazioa eta bidea izan da urte hauek guztietan, musikari munduan hasteko lehen pausua. Hainbat talde eta musikari osatu gara Elutxan. *Elkarriketa osoa: erran.eus*

# Hainbat ekintza izanen dituen Beti Gazteren Astea abian

Larunbateko Beti Gazte Egunean bazkaria izanen da eta igandean margo lehiaketa eta argazki rallya, bertzeak bertze

## AITOR AROTZENA

Beti Gazte elkarteak, udalaren laguntzarekin, Beti Gazte Astea antolatu du eta hainbat ekitaldi prestatu ditu, maiztze azken eta ekaineko lehen asteburuetarako gehien bat. **Maiatzaren 29an** futbol torneoa, **30ean** bizikleta ginkana eta **31n** Ezagutu Dezagun Lesaka lehiaketaren sari banaketa eta herri kirolak izanen dituzte. **Ekainaren 1ean**, larunbatean, Beti Gazte Eguna egingen dute. Ohi bezala, mendi buelta, futbol partidak Mastegin eta bazkaria izanen da Alondegiko arkupetan. Bazkalondoan DJ Fifi&Fefak paratuko du musika.

**Argazkilariak eta margolariak Ekainaren 2an**, igandean, argazkilariak eta margolariak ibiliko herriko txokoetan. Alde batetik, Elias Garralda XI. Margo Azkarreko lehiaketa antolatu dute, udalarekin eta Lesakako Zerbitzuen Elkartearekin elkarlanean. Lehenbiziko saria 750 eurokoa izanen da, bigarrena 400 eurokoa eta herritar baten margolan onenak 200 euro jasoko ditu. Haur Margolarien Eguna ere izanen da eta, adinaren arabera, hiru kategoriatan banatuko dituzte lehiaketara aurkeztuko diren haurren lanak. Maila bakoitzean margolan onena sarituko dute. Sari banaketa 18:00etan egingen dute.

Bertzetik VIII. Argazki rally-a ere izanen da. Izen-ematea 09:00etatik 10:00etara egin daiteke (bazkide eta 16 urtetik beheitikoek doan, gainerakoek 5 euro) eta argazkiak 14:00 arte atera daitezke. Lanak aurkezteko epea ekainaren 8an bukatuko da, [argazkilaritza@betigazte.net](mailto:argazkilaritza@betigazte.net) helbidean. Rallyaren hasieran jakinaraziko dituzten borts gai proposatuko dituzte eta gai bakoitzeko irabazleak 100 euro jasoko ditu, bazkide baten argazki onenak bezalaxe. Gainera, 150 euroko saria izanen da bilduma onenarentzat.

**Mendi Itzulia ekainaren 9an Ekainaren 9an XVI.** Mendi Itzulia antolatu dute. Izen-ematea zabalik da [www.mendizmendi.com](http://www.mendizmendi.com) webgunean.



UTZITAKOA

## Robin Chess irabazi du Julen Goiak

Maiatzaren 1n Santanderren jokaturako Robin Chess torneo entzutetsua, Europako eskolarteko xake txapelketarik handiena eta munduko bigarrena, irabazi zuen Julen Goia Mitxelena herritarra, zortzi urtez beheitiko mailan (226 jokalaritari ziren maila horretan, 1.200 denera).



UTZITAKOA

## Bizikletaren inguruko hainbat ekintza

Lehiaketa ofizialean kronometroarekin izandako arazoak alde batera utzita, bizikletarekin lotutako hainbat jarduera ekarri ditu II. Bizibide Enduro probak. Erraterako, Kemen Pertsona Ezinduen Kirol Klubaren eskutik, bizikleta egokituen erakustaldia egin zuten plazan eta hurrek ere probatu zuten.

**F. LANCHAS**  
Akutxiladorea eta bernizatzailea  
Parket eta parket flotatzailea jartzea  
Mota guztietako zolak  
Tel: 948 630 735 M: 620 172 679

**ZUBIONDO**  
JATETXEA-SAGARDOTEGIA  
EGUNEKO MENUA  
SAGARDOTEGI MENUA  
KARTA  
OGITARTEKOAK  
PLATER KOMBINATUAK ...  
T. 948 625 472  
Alasta karrika - BERA  
[zubiondojatetxea.com](http://zubiondojatetxea.com)

**Goieko**  
GOI MAILAKO EKOLOGIA  
Bidurre Ureder Ind. 2. P4 partzela 20305 Irún 943 63 45 36

LAN BERTIKALAK |  
ALTUERAKO KIMAKETA  
**boralan**  
+34 628 85 00 27 | [boralan04@gmail.com](mailto:boralan04@gmail.com) | Lesaka, Nafarroa  
+34 676 19 75 60

# Giro ederrean ospatu dute Udalerri Euskaldunen Eguna

Iturenekin batera, Bakaiku, Lakuntza eta Zegama UEMAko kide egin dira maiatzaren 18ko batzarrean eta 111 udal dira orain

## A. AROTZENA

Udalerri Euskaldunen Eguna ospatu zuten maiatzaren 18an herrian, festa eta aldarrikapena uzartuz. Goizean UEMAren batzar nagusia egin zuten udalerri euskaldunetako ehun bat alkate eta zinegotzik, eta eguerdian ekitaldi instituzionala ere izan zen plazan, erakunde publikoetako eta euskalgintzako ordezkariak zabalarekin.

Horien babesarekin deialdi argia egin zuten UEMAKo lehendakari Martin Aramendik: «zubiek orube sendoak behar dituzte, alde batekoak eta besteak elkartzeko balio dute, auzolanean eraiki izan dira mendeetan zehar, eta harri bakoitzak du garrantzia. Guztiak elkartuta sortzen da zubia, auzolanean, eta horrela gainditzen dira oztopoak. Baita euskararen aurkako erasoak ere. Lesakan, badakizue zerbait zubiei buruz, eta irudi ederra da euskara eta udalerri euskaldunak zer diren islatzeko ere. Udalerri Euskaldunen Eguna bera ere zubia da, UEMA bezala: hanka bat euskalgintzan eta bestea erakunde publikoetan dugu, eta biak uzartuta ari gara lanean, auzolanean, zubigintzan».

UEMAren batzar nagusia izan zen Harriondoan. Euskal Herri osotik heldutako ehun bat alkate eta zinegotzi bildu ziren. Bakaiku, Ituren, Lakuntza eta Zegamako udalek UEMAko kide izatea eskatu zuten, eta baiezkota eman zitzaizen. Beraz, UEMA 111 udal izatera iritsi da. Guztien artean 346.000 biztanleko lurgune euskalduna osatzen dute. Gaur egun,

175 udalerri inguru dira udalerri euskaldunak, biztanleen %70etik gora euskalduna dutenak. Herriko Etxean euskara taldeen topaketa ere antolatu zen, euskararen aldeko olatu berria sortzeko gakoak aztertzeko. Horretarako, euskara taldeen lana ezagutzea eta elkarren berri izatea garrantzitsua iruditu zaie antolatzailerei, eta lan-saio praktikoak antolatu zuten Bor-bor Bortzirietako Euskaltzaleen Mugimenduaren laguntzarekin. Hasieran gaur egungo egoeraren diagnostiko laburra azaldu zuten, eta ondoren erronka berriei heltzeko gakoak aztertu zituzten, sartzeko moduekin batera.

## Euskal Herrian Euskaraz elkarteari omenaldia

Ladis Satrustegi alkatearen hitzen ondotik, Euskal Herrian Euskaraz elkarteak hainbat urtez egindako lana aitortu eta omendu zuten. Horien ordezkari, taldea sustatu zuten Kontxi Erro eta Antton Erkizia lesakarrak bereziki omendu zituzten. Beraiek antolatu zuten Euskal Herrian Euskaraz taldearen lehen bilera Lesakan eta Kontxi Erro gogoratu zenez, «Txillardegia izan zen taldearen motorra». Ekitaldiaren amaieran, Udalerri Euskaldunen Egunerako sortutako abestia zuzenean jo zuten Lesakako hainbat musikariren artean, Tantirumairu dantza taldeko kideen koreografiarekin. Frontoian egindako bazkariarekin eta arratsaldeko eta gau parteko dantza, bertso-triki-poteoa eta musikarekin borobildu zuten egun dotorea.



Harriondoan egindako batzarrean UEMAko kide berriak onartu zituzten.



Tantirumairu euskal folklore taldeak emanaldi polita egin zuen plazan.



Antton Erkizia eta Kontxi Erro omendu zituzten.



UEMAko zuzendaritza batzordeko kideak kioskoan.

## XXXI. gasna eta artisau feria prest du Altxata elkarteak

Ardi zakur lehiaketarekin hasi eta Bankako kantariekin bukatuko da ekaineko lehen asteburua

### IRUNE ELIZAGOIEN

Ohi bezala, ekaineko lehenengo asteburua bete bete izanen da Etxalarren. Ekainaren 1ean, larunbatean, 18:00etan Etxalarko V. Ardi zakur lehiaketa egingen dute errota pareko zelaian. Punta puntako lau zakur ariko dira beraien lana ahalik eta hobekien burutzen: Roger Jauretche Baigorrikoa Popzakurrarekin, Marzel Hualde Aldudekoa Sua zakurrarekin, Antonio Alustiza Aresokoa Tiki zakurrarekin eta Julen Arburua Orabidekoa Ipar zakurrarekin.



Herri bazkarian giroa izanen da.

### Gasna lehiaketa igandean

Ekainaren 2a, igandea, izanen da Altxatak antolatutako egun handia. Goizean trikitilariak karrikak alaituko dituzte, Iriondoan baserriko lan tresna zaharren erakusketa izanen

da eta Eskola zaharretan Etxalarko eskulan ikastaroko lanak ikusgai egonen dira. Frontoian, berriz, 10:00etatik 11:00etara lehiaketako ardi gasnen herrera egingen dute. 13:30 arte Euskal Herri osotik etorriko artisauen postuak eta salmenta izanen da plazan eta frontoian. 13:30ean XXXI. Eskualdeko Ardi Gasna Lehiaketako sari banaketa egingen da eta, gero, Bankako kantariekin girotutako herri bazkaria.

## Asteburuetan eliza bisitatzeko ordutegia paratu du parrokiak

### I. ELIZAGOIEN

Etxalar bisitatzen duten turisten eskaera handienetako bat, eliza barrenetik ikustea izan ohi da eta Parrokiako hainbat bolondresi esker, maiatzaren 18tik aitzinera, hori posible izanen da. Ataka ondoko karrelean ikus daitekeen bezala, hasiera batean, elizak irekiera ordutegi bat izanen du, larunbatetan 11:00etatik 13:00etara eta igandetan 10:00etatik 12:00etara eta denbora horretan, Parrokiako boluntarioak egonen dira elizan, bisitariak laguntza behar balute. Udari

begira, bisita gidatuak antolatzea ere burutan dute, baina oraindik zehaztu gabe dago ekimen hau.

### Igerilekuak

Udalak lau langile kontratatuko ditu, horietatik bi udan igerilekuetan sorosle bezala aritzeko eta bertze biak funtzionamendu lanak (ostatua eta sarrerak) egiteko. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 3an, astelehenean, 14:00etan bukatuko da. Baldintzak udaleko webgunean eta idazkari-tzan daude ikusgai.



IRUNE ELIZAGOIEN

## XIII. Aitor Danboriena Memoriala abian

Bertze urte batez, herriko gazteek Aitor Danboriena gogoratuz, Etxalarko eskuz binakako pilota txapelketa jokatuko dute. Maiatzaren azken asteburuan hasita, izena eman duten 7 bikoteak elkarren aurka lehiatuko dira, abuztuaren 10-11n jokatuko diren finalerdietara iristeko.



LAURA ELIZAGOIEN

## 'La canción del mar' liburua aurkeztua

Sebastian, Etxalarren sortu zen mutiko ipurtarinari mundua gainera erortzen zaio bere aitaren heriotzarekin eta bere izeba-osabekin gelditzen da. Marta Lanz Beunza idazleak *La canción del mar* eleberria aurkeztu zien ekainaren 17an, Pello Apeztexea Kulturgunera joan ziren hamalau lagunei.

**ELUTSA**

EGUNEKO ETA ASTEBURUKO MENUAK PINTXOAK - BOKATZE RAZIOAK

Anduetzeta, 13 - ETXALAR T. 948 635 191

**Jauzena**

Denda, 948 631 217  
T. 630 136 863  
Julio Caro Baroja, 6 - BERA  
jauzenabera@gmail.com

Elektrizitate lanak orokorrean  
Erreformak, etxe berriak  
Lantegietako mantentze-lanak

Eguzki-panelen instalazioa  
eta dirulaguntzen gestioa

## Baratzondokoak Milagrora doaz ereiaraoren 16an

Bazkalondoan, berriz, Erriberri bisitatuko dute eta animatzen direnek hilaren 7ra arte eman dezakete izena

### ANA ETA ITZIAR

Ereiaraoren 16rako Baratzondo elkartekoak Milagrora irteera antolatzen ari dira, egitarau politarekin.

Igande horretan, 08:00etan abiatuko da autobusa eta 11:00etarako Milagrora ailegatuko direla aurreikusten dute. Goiza bertan pasatu ondotik, Villa Castejon-eko hotelean bazkari ederraz disfrutatzeko aukera izanen dute. Bazkalondoan Erriberriko karriketan barna herria bisitatuz ibiliko dira. 19:00ak aldera herri aldera abiatuko dira eta bukatzeko Baratzondo elkartean afari-merienda izanen dute. Guzti honen prezioa 25 eurokoa izanen da bazkideentzat eta 30 eurokoa bazkide ez direnentzat. Animatezen direnak ereiaraoren 7ra arte izanen dute izena emateko



Andoni Esparzaren hitzaldia.

modua ohiko telefonoetara deituta.

### Andoni Esparzaren hitzaldia

Andoni Esparzaren eskutik hitzaldia izan zen Eskolzarrean maiatzaren 10ean, udalak antolatua. Armariak, genealogia eta familia historiari buruzko gaiaren bueltan solasaldi interesgarria izan zen. Hartuean interesgarriak izan ziren bertaratuen esperientzien eta iritzien inguruan.

## Igantzi Bizirik taldearen sinadura bilketa abiatu da

Zelena Renewable enpresak aurkeztu duen aurreproiektuari eta ingurumenean izanen lituzkeen eraginekin desadostasuna adierazteko, Igantzi Bizirik taldek firma bilketa antolatu du. Ohiko lekuetan badira sinatzeko orriak eta etxez etxe ere banatu dituzte.

## Udalekuetan izena emateko epea maiatzaren 31 arte

Maiatzaren 31 arte idekia dago udalekuetan izena emateko epea. Lau aste izanen dira guztira (uztailaren 1etik uztailaren 26ra, 10:00etatik 13:00etara) baina asteka joateko aukera ere bada. Inskripzioa online egin behar da. *Info* + 948 63 41 25 - 680 65 06 50.



ANA ETA ITZIAR

## Mus tximista azken txanpan

Denboraldi hontako azken txanpan sartua da mus tximista txapelketa. Maiatzaren 17an jokatu zen saioan Jabier Taberna eta Patxi Loiarte izan ziren garaile (argazkian). Hilaren 31n jokatu diren partidak izanen dira azkenekoak. Denboraldiari adio errateko sari bereziak izanen dira.



ANA ETA ITZIAR

## Lehen jaunartzea egin dute

Bortz gaztetxok beraien lehen jaunartzea egin zuten maiatzaren 19an San Migel elizan: Ainara Hita Aranguren, Ibai Telletxea Sein, Mikel Eugi Mendizabal, Oihan Andueza Larzabal eta Laia Genua Bazterrika. Ondotik, Erretorebaitan hamaiketako oparoa eskaini zuten hurbildu zen guziarentzat.

## MARTIX

· INGENIARITZA ELEKTRIKOA · BOLETIN INDUSTRIA  
· PROIEKTU ELEKTRIKOAK · INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

T. (0034) 636 617 450 Legia, 23 - BERA



**KATEA BIKE**

**Bizikleten salmenta eta konponketa.**

- 📍 Kanttonberri, 1 | BERA
- ☎ T. 948 631 218
- ✉ joxemi@kateabike.com
- 🌐 [www.kateabike.com](http://www.kateabike.com)



ORBEA



PINARELLO



MONTY



BERCAMONT



BH



MERIDA

## Eskolarteko txapelketako finala Arantzan izanen da

14 eta 18 urte bitarteko hamar bertsolari ariko dira kantari eta tartean izanen da Kattin Madariaga Apaolaza herritarra

### NEREA ALZURI

Bertsozaleek hitzordu ederraz gozatzeko aukera izanen dute ekainaren 15ean, egun horretan egingen baitute Euskal Herriko Eskolarteko bertsolari txapelketako finala Arantzan. Euskal Herriko 14 eta 18 urte arteko hamar bertsolarik hartuko dute parte bertan. Herrialdeetako txapeldunak eta txapeldunordeak izanen dira partaide, eta Nafarroako Eskolartekoa irabazita, tartean izanen da, Kattin Madariaga Apaolaza herritarra. Nafarroako bertze ordezkaria Kattalin Lizarraga Mendia

leitzarra izanen da. Gipuzkoatik June Aiestaran eta Joanes Azpillaga ariko dira finalean eta Arabatik Hegoi Amabizka eta Iraide Onaindia. Bizkaiko sailkatuak erabakitze saioa maiatzaren 25ean egitekoa zuten eta Ipar Euskal Herriko sailkatuak erabakitze saioa Xilaba Gazte txapelketa, berriz, ekainaren 1ean Itsasun (Lapurdi).

Finala herriko frontoian izanen da, 17:00etan, eta sarrera irekia izanen da. Saioaren ondotik, hurbiltzen direnentzako merienda-afaria emanen dute debalde frontoian bertan.

## 735.770 euroko aurrekontua onartu du udalak

### N. ALZURI

Udalak 2024ko aurrekontuak onartu ditu eta 735.770,46 euroko gastuak eta sarrerak aurreikusitu ditu aurtengo jardueretarako. Martxoaren 15ean egindako osoko bilkuran onartu zituen udalak. Alegazioak paratzeko epean, inork ez zuen

deus aurkeztu, behin betiko erabakiak gelditu dira. Maiatzaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen aurrekontuen berria eta bertan ageri dira aurrekontuei buruzko hainbat xehetasun. Aurrekontuaz gain, udaleko plantilla organikoa ere onartua izan da.



**LIDERA**  
HORTZ KLINIKA - ESTUDIO DENTAL

---

**INGURUNE BERRI BAT ZURE IRRIBARREARENTZAT**  
astelehenetik ortziratera  
**08:00-13:00**  
**15:00-20:00**  
larunbatetan goizez

---

Iturrunzubiko plaza, 9-10 • 31770 LESAKA  
Tel. **722 662 478** | lidera@hortzklina.es  
@liderahortzklina



Maiatzaren 9an Koldo Zuazorekin bildu ziren herritarrak. G. PIKABEA

## Arantzako euskara ikertzen ari da Koldo Zuazo hizkuntzalaria

### TTIPI-TTAPA

«Euskalkiak galtzen direnean, euskara bera galtzen da». Halaxe erran zuen duela urte batzuk Koldo Zuazo Zelaieta hizkuntzalaria ezagunak, baita euskalkiak galtzen ari direla ere. Urteak daramatza euskalkiak aztertzen, eta bidean Euskal Herriko bazter azkarkitako euskalkiak goitik beheiti landu ditu. Horren emaitza dira, bertzeak bertze, bere liburuak edo [www.euskalkiak.eus](http://www.euskalkiak.eus) webgunea.

Azken asteotan, Arantzan dabil Zuazo. Bertako euskalkia ikertzeko intentzioarekin

etorri da maiatza pasatzera eta dagoeneko hainbat herritarrekin bildu da. Horietako batzuk elkarrizketatu ditu, eta bertze batzuekin elkarlanean ari da.

Joan den maiatzaren 9an eskolan egindako aurkezpenean aitzindu zuenez, emaitza urte batzuen buruan etorriko da. Arantzako euskararen gramatika eta hiztegia biltzea ditu begiz joak eta bide beretik segitu nahi du Bortzirietan. Bere ibilbidea ikusita, emaitza benetako altxorra izanen da, hori segurua.



ESKOLAK UTZITAKOIA

## Ikasturte akabailako jarduerak

Ikasturte akabailaren seinale, dagoeneko kanpaldiak egin dituzte eskolakoek –irudian DBHkoak-. Baina ikasturtea bukatu aitzinetik ekintza gehiago izanen dituzte: herrian zabor bilketa, ur jokoak, Dani Martirena idazlearen bisita... Ekainaren 20an, azken egunean, Hernaniko igerilekuetara joanen dira.



# Arantza Bizirik-ek 851 sinadura aurkeztu ditu

Azkua proiektu eolikoaren kontra txostenak aurkeztu dituzte udalak, Arantza Bizirik-ek, ehiztariek, zerbitzuek eta baserritarrek

## TTIPI-TTAPA

Azkua proiektu eolikoari ezezko garbia erran diote herritarrek. Zelena Renovable enpresak Nafarroako Gobernuko Ingurumen Departamentuan aurreproiektua aurkeztu zuenetik, lan eta lan ibili da Arantza Bizirik taldea. Alde batetik, aurreproiektuaren kontrako txostena aurkeztu du gobernuan, eta udalak, turismo eta zerbitzuen batzordeak, baserritarrek eta ehiztariek ere euren aurreraketa egin dute.

Bertzetik, Arantza Bizirik taldeak sinadurak bildu ditu Etxalarko Azkua Bizirik eta Igantzi Bizirik taldeekin elkarlanean eta «erantzuna hagitzen ona» izan dela adierazi du: «Arantza Bizirik taldeak, adibidez, 851 sinadura bildu ditu, eta tartean, Arantzan eroldatutako 18 urtetik goitikoan



Herritarrek sinatzen.

artean, % 70 baino gehiagok erran diogu proiektuari ezeza». Sinadura horiek ere gobernura bidali ditu Arantza Bizirik taldeak. Edozein moduz, hementik aitzinera ere sinadurak biltzen segituko du taldeak eta agudo Internet bidez sinatzeko aukera zabalduko duela jakinarazi du. Bide batez, «Nafarroako Gobernuari kontrako ebazpena emateko» eskatu dio.



MIKEL LARRETxea

## 200 mendizale eskas mendi itzulian

Ez zen iragarria bezain eguraldi kaskarra izan maiatzaren 19ko mendi itzulian. Goizaldeko erauntsiaren ondotik, ateri mantendu zen buelta egiteko, eta animatu zirenek erran zuten, giro ezin hobea izan zen ibiltzeko. Bide batez, Ekaitza Elkartek lagundu eta parte hartu zuten guzietan eskerrak eman dizkie.

## Parrokiako laguntzaileen hitzorduak

Urtero, parrokiako laguntzaileentzat ateraldia eta merienda antolatzen ditu parrokiak. Hala, ekainaren 6an Iruñera joan dena, bertzeak bertze, katedrala, udaletxea eta alde zaharra ikustera. Joan ezin dutenek ekainaren 3an merienda eginen dute, 19:00etan, Zahar Txokon.

## Kinto bestak ekainaren 8an egingen dituzte

Aurten, estreinako aldiz, kintoen besta eguna antolatu dute ekainaren 8an. Data jakinarazi zutenetik agerikoa izan da sortu den ilusioa, eta egun horretan ere seguru mugimendua izanen dela. Kintoek bazkariak egingen dituzte eta besta egun polita izaten ahal da.

## Palestinari elkartasuna adierazteko manifestuarekin bat egin dute gurasoek

### N. ALZURI

Gure haurrak ere badira lelopean, Gazako gerra eta Palestinako haurrak eta nerabeak sufritzen ari direna bukatzeko eskatuz, manifestu bat aurkeztu zuten duela aste batzuk Bilboko hainbat ikastetxe. Geroztik, Euskal Herriko hainbat bazterretara zabaldu dute manifestua atxikimendu eske, eta Arantzako Guraso Elkartek ere bat egin du.

Manifestuan bildu dutenez, «Palestinan lanean ari diren hainbat elkarteren arabera, 13.000 haur baino gehiago hil

dituzte Gazan egindako aire-erasoetan eta Euro-Med Human Rights Monitorren arabera, joan den urritik 34.000 lagun hil dituzte lurralde palestinar okupatuetan, eta zaurituak 70.000 baino gehiago dira». Manifestuaren bitartez genozidioa salatuz, Palestinari elkartasuna adierazi, eta bertzeak bertze, «haurrak gerra helburu ez daitezela izan bermatzea» exijitu dute, baita «giza eskubideen urraketen kontra justizia» aldarrikatu ere, eta «Gazan berehalako su eten iraukorra» eskatu.



MARKOS LANDA

## Herriko futbolari gaztetxoak Taxoaren

Osasuna Fundazioak antolatuta ikasturtean zehar futboleko aritzen diren haurrek Taxoaren arratsalde polita pasatzeko aukera izan zuten maiatzaren 18an. Puzgarrietan ibili ziren lehenbizi eta ondotik, partidak jokatu zituzten. Domina bana hartuta bueltatu ziren neska-mutikoak etxera.

## Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Eguna hilaren 8an

Gosari-tertulia, herri kirolak, gazte bazkaria, bingo musikatua, mojito txapelketa, zapatila tiraketa eta kontzertuak izanen dituzte

### MAIDER PETRIRENA

Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Eguna ekainaren 8an antolatu dute Sunbillan, egitarau zabalarekin.

Larunbatean, 09:30ean herri ernatzea egingen dute plazatik. 10:00etan gosari tertulia izanen dute, *Ze ongi bizi garen uaingo gaztik?!* goiburupean. 11:30ean herrien arteko herri kirolak izanen dituzte jokoan eta 14:30ean gazte bazkaria. Txartelak salgai daude (14 euro, opariarekin) Iturengo Herriko Ostatuan, Donamariako Ostatuan, Doneztebeko Xarmant ostatuan, Sunbillako Fonda ostatuan eta Legasako Kattalin ostatuan.

Bazkalondoan bingo musikatua izanen dute, 17:30ean mojito txapelketa, 19:30ean zapatila tiraketa eta 20:30ean bokatak izanen dituzte plazan.



Matxarda taldeak joko du.

22:00etan kontzertuak hasiko dira Matxarda, Zinez, Thebekatu eta DJ Liatu Garetarekin. Ospakizunak borobiltzeko, goizaldean, 06:00etan, gaupaseroen argazkia aterako dute.



MAIDER PETRIRENA

### Herriko abesbatzak kontzertua larunbatean

2020ko otsailaren 22an herriko abesbatzak bigarren kontzertua eskaini zuen. Pandemia tarteko, abesbatzak hilero egiten zuen entsegu hori ere egiteari utzi zion. 2023ko irailean hasi ziren berriz eta ekainaren 1ean, larunbatean 19:30ean elizan, beraien hirugarren kontzertua eskainiko dute.



Ane Petrirena bigarren izan zen ibilbide laburrean. ANA ALBISTUR

### Ane Petrirena eta Ekaitz Bertiz bikain ibili dira Goizutrail mendia lasterketan

#### M. PETRIRENA

Goizutrail Mendi Lasterketaren bederatzigarren edizioa egin zen maiatzaren 18an Goizuetan. Bertan bi herritarrek parte hartu zuten: Ane Petrirena Insaustik eta Ekaitz Bertiz Apezetxeak. 10 kilometroko ibilbide laburrean Ane Petrirenak podiumera igotzea lortu zuen, bigarren postua eginez. Ordu bete, 5 minutu eta 26 segundo behar izan zituen ibilbidea osatzeko, garaile izan zen Berriozar KKE taldeko Guratz Azpiroz uitzia-rrak baino 23 segundo gehi-ago bakarrik. Ekaitz Bertizek



Petrirena eta Bertiz helmugan.

ere 10 kilometroko lasterketa egin zuen eta seigarren izan zen, ibilbide hori akitu zuten 138 kirolarien artean. Ordu bete baino guttiago behar izan zuen horretarako (59.55).

### Aritz Bertizek eta Aner Petrirenak lehen jaunartzea

Maiatzaren 19an herriko Aritz Bertiz Juanenea eta Aner Petrirena Gonzalez mutikoen beraien lehen jaunartzea egin zuten elizan. Mezaren ondotik, familiarekin bazkaldu, opariak hartu eta lagunekin jostetan egun zoragarria pasatu zuten. Zorionak bie!



MAIDER PETRIRENA

## Larunbatean ospatuko dute Errekaren Eguna

Egun haundia larunbatean izanen bada ere, ortziralean hasiko dira ekintzak eskubaloi partiduekin eta mus txapelketarekin

### OIER ZULAIKA

Kopa irabazi eta ospakizuna bukatuta, maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean ospatuko dute XVI. Errekaren Eguna prestatzen murgilduta dago Erreka Kirol Elkarteak. Erreka antolatu du egitaraua udalaren eta Gazte Burrunbaren laguntzarekin.

Maiatzaren 31n, ortziralea, hasiko da egitaraua. 17:00etan hasita, aurrebenjaminak eta benjaminak eskubaloiari ariko dira kiroldegian. Ondotik, parte hartzaileentzat merienda izanen dute. 22:00etan, berriz, Santa Luzia plazan mus txapelketa jokatu dute. Sari ederrak izanen dituzte, gainera. Irabazleek 300 euro eta txapela lortuko dituzte, eta bigarren sailkatuek 100 euro. Izen ematea han bertan egin beharko da, bikote bakoitzak 10 euro ordainduta.

### Egun handia larunbatean

Larunbatean, izanen du segida bestak. 08:30ean paratu dute eguneko lehen hitzordua. Malerrekari bizikletaz buelta emateko gelditu dira. Denera 56 kilometroko ibilbidea osatuko

### Agorreta musika eskolako matrikula ekainaren 3tik 14ra

Agorretan izena emateko epea irekiko dute hilaren 3an. Pianoa, gitarra, txistua, bateria, trikitia eta eskusoinua ikasteko aukera izanen da. Izen ematea eskolan, [esmusidoneztebe@gmail.com](mailto:esmusidoneztebe@gmail.com) helbidean edo 948 45 14 12 eta 636 66 97 50 zenbakian egiten ahal da.

dute Pepas kafetegitik hasi eta Legasa, Gaztelu, Donamaria, Oiz, Urroz, Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra, Zubietza, Ituren eta Elgorriaga gurutzatu, eta berriz ere herri-ira itzuliko dira.

09:15ean kiroldegian elkartuko dira eta eskubaloiari ariko dira infantiletako, alebinitako eta kadeteetako neskek eta mutilak. Ondotik, 12:15ean Errekako judo eskolako ikasleen erakustaldia izanen da, eta akitzean hamaiketako izanen da kirolarientzat.

17:00etan izanen du kirol bestak segida, eskubaloiari lauko finala jokatu baitute senior neskek, mutilek eta jokalari ohiek. Tartean Erreka Dantza Taldearen emanaldia izanen da eta ondotik zozketak egingen dituzte kiroldegian bertan. Asteburu osoan herriarteko pilota txapelketako partidak ere izanen Ezkurra pilotalekuan.

Asteburua borobiltzeko, 21:00etan herri afaria izanen dute Santa Luzia plazan eta ondotik Trikidantz eta DJ J&J ariko dira.

### Poema liburua kaleratu du Luis Garde idazleak

*Urrats galduen hotsa* poema liburua kaleratu du azken urteetan herrian bizi den Luis Garde poetak. Idazlearen bederatzigarren poesia liburua da, eta idazleak berak aurkezpenean azaldu zuenez, «negurako bidaia» bat da liburua.



ALICIA DEL CASTILLO

### Bestetako kartel lehiaketak

Herriarrek bozkatu dute, eta dagoeneko erabaki dute zeinena izanen den aurtengo bestetako kartela. Haizea Arozena Fresnedak irabazi du udalak antolatutako lehiaketa. Haurren lehiaketa, aldiz, Ada Iribarren Del Castillork irabazi du, eta programaren kontraportadan agertuko da.

### Merkatarien elkarteak 500 euroko hiru bonu, eta 25 euroko 11 zozketatu ditu

#### OIER ZULAIKA

Merkatariek hainbat zozketa egin dituzte Udaberri berri kanpainan. Elkarteko kide diren komertzioetan gastatzeko 500 euroko hiru bonu zozketatu dituzte, eta irabazleak Iturengo Eider Altxu eta Janire Mindegia, eta Ainhoa Berasain herriarra

izan dira. 25 euroko 11 bonuen irabazleak Arantxa Dorregarai, Ana Mari Etxeberria Sistiaga, Miren Agirre, Serafina Grazena, Javier Migueltoarena, Juliana Ursuegi, Pilar Martiarena, Eva Elizalde, Ane Erregerena, Josune Mikelarena eta Ainara Amoros izan dira.

### Korrontzi taldearen emanaldia maiatzaren 31n

Maiatzaren 31n, ortziralea, emanaldi ederraz gozatzeko aukera izanen da herrian. Korrontzi taldeak emanaldia egingen du Bear Zana frontoian. 20 urte beteko ditu aurten taldeak, eta urteurrena dela eta bira berezia egiten ari dira, eta tartean herrian egingen dute geldialdia. Emanaldia 21:00etan abiatuko da, eta sarrera debalde izanen da.

Emanaldia EITBK antolatu du, eta hainbat gonbidatu ariko dira oholtzan Korrontzirekin batera. Aitzinetik, kalejira izanen da.

### Hamazazpi ahari Udaberriko Feriako lehiaketan

Maiatzaren 10ean egin zuten 16. aldiz Udaberriko Feria eta Malerrekako 16. Ahari Lehiaketa. 17 ahari aurkeztu ziren eta mutur beltzetan Joxe Mari Indak lortu zuen lehen saria, bigarrena Jose Miguel Lasagak eta hirugarrena Aitor Beratainek. Mutur gorriek dagokionez, Lourdes Elizalde irabazi zuen, bigarrena Koro Antxorenak eta hirugarrena Nicolas Lasagak. Ahariez gain, lehiaketaz kanpo, behiak eta behorrak ere aurkeztu zituzten, eta eskulangileek postuak paratu zituzten.



Plazan atera zuten taldeko argazkia. UTZITAKOAK

## Palestinaren aldeko elkartasun egunak jende aunitz bildu du

Herri bazkarian 80 lagun izan ziren eta bildutako dirua Yala Nafarroa Palestinarekin Plataformara bideratuko dute

### ARKAITZ MINDEGIA

Palestinari elkartasuna adierazi eta genozidioa gelditzea eskatuz elkartasun eguna egin zuten maiatzaren 18an. Goizean tailerrak, merkatu ttikia, erakusketa eta dokumentala izan zituzten eta herri bazkarian 80 lagun bildu ziren. Arratsaldean hitzaldia izan zuten euskal armagintzari buruz. Antolatzaileak kontent gelditu dira erantzunarekin eta lortutako diru guztia Yala Nafarroa Palestinarekin plataformara bideratuko dute.

Argazkien eta panelen erakusketa Saldiasen egon da



80 lagun bildu ziren herri bazkarian.

ikusgai asteburu honetan, Malerrekako Egurenaren harira. Hala ere, norbaitek erakusketak bere herrian paratu nahi badu, horretarako aukera izanen duela jakinarazi dute.



ESKOLAK UTZIA

## Pulunpa eskolakoak Zugarramurdin

Pulunpa eskolako irakasle eta ikasleak kanpaldian Zugarramurdin izan dira. Maiatzaren 15ean eta 16an Graxiana aterpetxean egon ziren. Herria ezagutu bidenabar txangoa, ginkana, jostetak, diskofesta, aterpetxeko egonaldia eta lezeak ikusi zituzten, eguraldi ederra lagun.



UTZITAKOAK

## Lehen jaunartzea egin dute

Lehen jaunartzea egin zuten Oier Bazterrikak, Irati Iñigok, Naikari Altzurik, Iraia Seinek eta Ruben Telletxeak. Meza eder baten ondotik amabirjinari loreak eskaintzen akitu zuten. Ez ziren bakarrik egon beraien egun handian, aingeru egiten ari direnak bertze igande batez bertan egon baitziren.

## Udaleri Euskaldunen Mankomunitateko kide egin da Iturengo Udala

Maiatzaren 18an ospatu zen Udaleri Euskaldunen eguna Lesakan. Goizean, Harriondoa kultur etxean Udaleri Euskaldunen Mankomunitatearen (UEMA) batzarra egin zuten. Bertan, aurten mankomunitatean sartzea eskatu duten herriei baiezkua eman eta ongi

etorria egin zitzaizen. Herri horien artean Ituren daukagu (Bakaiku, Lakuntza eta Zegamarekin batera) eta denera 111 dira Euskal Herri osoan. UEMAn sartzea erabaki du udalak, euskararen normalizazioaren urrats gehiago emateko asmoarekin.



Jabier Bereau alkatea, UEMAn sartu diren bertze udal ordezkariekin.

## Bestaberri eguna ospatuko dute igandean Zubietan

Ekainaren 2an, arratsaldean meza izanen da eta ondotik Modestorekin musika eta merienda eskainiko du udalak

### FERMIN ETXEKOLONEA

Bestaberri eguna ospatuko dute Zubietan igande honetan, ekainaren 2an. Ohi bezala, berriz ere erlijio ospakizuna bestelakoekin lotu nahi dute. Pandemiara bitarte gazta lehiaketa ere egiten zen, baina azken urteetan ez da halakorik egin eta aurten ere ez da egingen. Arratsaldean meza izanen dute eta meza ondotik musika izanen da plazan Modesto soinuariarekin. Merienda ere eskainiko du Zubietako Udalak herriko gaztekin. Horretaz gain, seguru herritarrek plaza ingurua eta kaleak txukundu eta dotore-dotore apainduko dituztela.

### Ahari lehiaketan sarituak

Malerrekako 16. Ahari lehiaketan herriko lau artzainenak aurkeztu zituzten Donezteben:



Ahari mutur gorri sarituak.

Lurdes Elizalderenak lehen saria lortu zuen mutur gorrietan eta Estibaliz Mitxelenak, Mikel Mendiburuk eta Periko Santestebanek ere aurkeztu zituzten bereak.

### Mus txapelketa

Xabier Bendoiro eta Ezekiel Baleztena izan dira herriko ordezkariak Malerrekako Egunean, Jexux Santesteban eta Josetxo Elizalderen kontrako finala irabazi ondotik.



MALERREKAKO BERTSO ESKOLA

## Bertso eskolako kideak Elgorriagan

Maiatzaren 10ean Malerrekako Bertso Eskolako ikasleek bertso saio esperimentalak egin zuten Elgorriagako ostatuan. Giro goxo bezain ederrean bertsoekin esperimentatzeko aukera paregabea izan zuten bertaratutakoek eta merienda eder batekin borobildu zuten ilunabarra.



UTZITAKO ARGAZKIAK

## Ekitaldiz ekitaldi Donamarian

Bertso pilota, Gadeia taldearen emanaldia, gitarra klasikoaren errezitaldia... Ekitaldiz betetako hilabetea izan dute maiatza Donamarian. Ekainerako bertze hitzordu bat finkatu dute: Ekainaren 15ean *Bihotz, bi hots, bi txotx* bakarrizketa izanen dute Garazi San Martinekin, 18:00etan herriko ostaturako terrazan.

## Mintzodromoa egingen dute ekainaren 6an Donezteben

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Ikasturtea borobiltzeko, Solaslaguna egitasmoak Mintzodromoa antolatu du eskualdeko euskaltegien laguntzarekin. Euskaldunen artean elkar eza-gutzeko dinamika da mintzodromoa, euskaraz solas egiteko aukera bat ematen duena,

eta aldi berean, «euskaldunen arteko harreman berriak sortu, sendotu eta saretzen» dituen. Malerrekan, ekainaren 6an, ortzeguna, egingen dute Mintzodromoa. 18:00etan Doneztebeko Intzakardi parkean bilduko dira, eta eguraldi txarra baldin bada, Herrigunean.





Maiatzaren 16an txostena eta sinadurak aurkeztu zituzten Malerreka Bizirik-ekoek.

## Mila sinadura baino gehiago Irakurriko proiektuaren kontra

Malerreka Bizirik taldeak Irakurri poligono eolikoaren kontrako kontsiderazioen txostena aurkeztu du, baita sinadurak ere

### TTIPI-TTAPA

Malerreka Bizirik taldeko kideak Nafarroako Gobernuko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko Ingurumen Ebaluazioaren atalean izan ziren maiatzaren 16an eta Irakurri poligono eolikoaren kontrako kontsiderazioen txostena aurkeztu zuten. Horrekin batera, eskualdeko herritarren artean bildutako mila sinadura baino gehiago entregatu zituzten.

Malerreka Bizirik taldeak aurkeztu dituen makroproiektuaren kontrako txostenean hainbat gai bildu dituzte. Tartean, «poligono eolikoa arreta bereziko paisaia kokatuko litzatekeela eta aerosorgailuen kokapena gaitu gabeko eremuetan aurreikusita dela» nabarmendu dute, baita «aerosorgailuak monumentu megalitikoaren ondoan ezarriko litzatekeela» ere. Red Natura 2000 aipatzen duen lur eremuan «eragin zuzena» izan lukeela ere gaineratu dute: «Erreken arroak, paisaiarekiko inpaktu ikaragarriak eta bertan bizi diren espezieen galerak jasanezinak izanzen lirateke (pausalekuak, elikadura, migrazioa...). Landaretza eta

zuhaitzen erauzketa masiboak ere eragingen luke».

Ez da hori bakarrik, «zaratak eta kutsadura elektromagnetikoak giza osasunean kalteak areagotuko litzatekeela» gehitu dute Malerreka Bizirik-ekoek eta «jarduera sozio-ekonomikoetan eragina» izan lukeela: «turismo jasangarria, nekazaritzan, abeltzaintzan eta mendien ustiapenean, ehiza eremuan...». Argi dute, «atzerazinezko kalteak egingen litzateke lur mugimenduak egiterakoan: lur azpiko akuiferoen hondamena, luizien arriskuak...». Gisa berean, «aerosorgailuetako eta ebakuzio elektrikoko lineako sute arriskuak» ere aipatu dituzte: «Sutea larriagotu egingen litzateke mendietan eta landaretza handia dagoen eremuan egoteagatik, baserri, borda eta herriguneetatik hurbil».

Malerreka Bizirik-en ustez, «Zelena Renovablek sustatzen duen proiektuak ingurunean eragin larriak eta atzera buelta ezinak sortuko litzateke eskualdean» eta horregatik Nafarroako Gobernuari «aurreikusitako proiektuaren tramitazioari bukaera ematea» exijitu dio.

## Malerrekako Mankomunitateak ardi ilea bilketa egingen du uztailean

### TTIPI-TTAPA

Abeltzaintzak inguruan duen garrantzia ikusita eta baserriarrek ardi ilea kudeatzeko izaten dituzten zailtasunak zein diren jakitun, azken urteotan erabili duen kudeaketa sistema paratu du martxan berriz ere Malerrekako Mankomunitateak: ardi ilea bilduko du. Hala nahi duten baserriarrek aitzinetik egin behar dute eskaera, ekainaren 17a baino lehen mankomunitatera deituz (948 45 17 46), 09:00etatik 14:00etara.

Eskaerak orain eginda, uztailean egingen du bilketa. Mankomunitateak eskaera egin duten artzain guztiak kontuan hartuta, bilketa antolatuko du, eta ondotik, baserriarrei deituko die ardi ilea zein puntutara eraman behar duten zehaztuz. Jakinarazi



Ardi ilea bilduko du mankomunitateak.

duenez, «aitzinekoetan bezala, bilketa puntuak ardi ilea sortzen den tokitik ahalik eta hurbilen» kokatuko ditu.

### Zakurik eta sokarik ez

Baserriarrek ardi ilea zakurik eta sokarik gabe utzi behar dute. Argi utzi dute «zakuetan dagoen edo sokak dituen ardi ilea ez» dutela bilduko. Horrez gain, «mankomunitateak bilketa, kudeaketa eta horien kostua bere gain hartuko ditu».



MAITE BERTIZ

## Antzerkia eta mendi itzulia Narbarten

Maiatzaren 17an, Gure Etxeko Antzezleak-en eskutik antzerki ederra ikusteko aukera izan zuten Narbarten. Herriko haur talde bat izan zen protagonista eta emanaldi polita egin zuten. Bihar munean, eguraldia lagun, mendi itzulia egin zuten lehenbiziko aldiz. Ondotik, plazan bazkaria izan zuten giro ederrean.



## Inoiz baino gehiago bertako aukerak eta zerbitzuak, 0 KM-koak



**JULEN OSKOZ ELIZONDO**  
ARANTZAKO UDALA

**«Mendiari lotutako turismo errespetutsua bultzatu nahi dugu»**

Abenduan osatu zuten alkatetza talde berria Arantzan eta kultur zinegotzia da Julen Oskoz. Orain artekoak «balorazio positiboa» egin du, «baina ikasten ari gara, kanpotik ikusten ez diren lan aunitz baitaude». Aurtengo agenda kulturala lotua dute, «dirulaguntzak eskatzeko denborarekin egin behar baita. Herriaren ttitikitasunaren barnean, denentzako ekitaldiak prestatzen saiatu gara». Etorikizunera begira, «udalaren erronkarik haundiena eolikoak dira, eragin

handia izanen baitute herriko martxan eta turismoan». Izan ere, «herri aktiboa izaten saiatzen gara, bertakoei eskaintza ona eginez eta baita turistei ere. Mendiari lotutako turismo errespetutsua bultzatu nahi dugu, elkarbizitza sustatu».



**GOIO HUALDE ARRIADA**  
URDAZUBIKO LEZEAK

**«Herriak lan haundia egin zuen lezea bisitariendako moldatzeko»**

Duela 30 urte hartu zuen Urdazubiko Udalak Ikaburuko lezea, Pantxo Iribarren zena alkatea zelarik. «Herriak bere baitan kontu nahi zuen, eta esfortzu ekonomiko haundia egin zuten Nafarroako Gobernuaren laguntzarekin. Lezeak lehenagotik bisitariak bazituen ere, lan haundia egin zuten eta azpiegitura berriak paratu zituzten: ura, argia, aparkalekua...». Horrez gain, «ko-bazuloan ibilbide bat egin zen eta argi sistema kontrolatua paratu zuten, oraindik martxan

dagoena. Argiak bisitariekin bakarrik pizten dira, bertzela itzaliak egoten dira, kalte guttiago egiteko. Horri esker, gaurko egunean oraindik gauenarak ikusten ahal dira barnean, erasotuak sentitzen ez direnaren seinale».



**YEMOFA ZUBIRI**  
LARHUNGO TRENA

**«Aurten 100 urte eginen ditu trenak eta besta berezia prestatzen ari gara»**

Ekainaren 30ean 100 urte izanen dira Larhongo trenak lehenbiziko igoera egin zutenetik eta urteurrena ospatzeko, asteburu horretan egitarau berezia izanen dute: «erakusketa historikoa paratuko dugu beheko geltokian eta igandean besta izanen dugu galurrean; musika, dantza, bertsoak... egitaraua aitzinerago aterako dugu». Trenbidea iaz zaharberitu bazuten ere, «trenak hastapenekoak dira, duela 100 urtekoak. Mantentze lanak egiten ditugu urtero,

baina ez dira aldatu». Baina hori ez da berritasun bakarra; «audioz gidatutako bisita bat prestatu dugu, urririk. QR kodigoen bidez trenaren eta mendiaren historia, fauna, flora... aditzeko aukera izanen da lau hizkuntzatan».



**JASONE ASTIBIA LEGORBURU**  
BAZTANGO TURISMO BULEGOA

**«Jendeak paseoak eta ibilaldiak eskatzen ditu gehien»**

Baztanek eskaintza ugari ditu ikusteko eta egiteko, eta azken urteetan berritasunak aurkeztu dituzte; «bertako muralen berri izateko Mural Xenda online jokoa, Amaiurko Altzor Ezkutua *street escapea* herria modu dibertigarrian ezagutzeko eta Elizondoko Hiruko *escape rooma*, Mugarkin ro-kodromora joan daiteke arratsalde pasa, Irurritako Dorrea ere ikusgai dago...». Hala ere, «jendeak ibilbideak eskatzen ditu gehien; paseo motzak, ibilaldi luzeak... eta ibili nahi

ez dutenek inguruko herriak bisitatu nahi izaten dituzte». Aste Santuan «normalean baino jende guttiago etorri da. Hala ere, asteburuetan iaz baino jende gehiago etortzen da eta ikusi beharko dugu udako joera zein den».



## Kotizazio bikoiztuen erreklamazioa egiteko aukera

Ekainaren 27a izanen da erreklamazioak aurkezteko azken eguna eta instatzia bat aurkeztuz egin beharko da

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 27an bukatuko da epea 1967 eta 1978 urteen artean mutualitateari eta Gizarte Segurantzari egindako kotizazio bikoiztua erreklamatzeko. Auzitegi Gorenak aitortu du mutualitateari ekarpenak egin zizkieten erretiratuek 1978ko abenduaren 31 arte ez zutela kontzeptu horrengatik zergarik ordaindu behar.

Erreklamazioa 1978ko abenduaren 31 baino lehen lan egin eta kotizatu duen edozein erretiratuek egin dezake, Gizarte Segurantzaren pentsio bat ja-

sotzen duten pertsonak zein ezintasun iraunkorragatik jasotzen dutenek.

Erreklamazioa, aurrez aurre Foru Ogasunaren bulegoetan eta Nafarroako Gobernuako edozein erregistro-bulegotan egiten ahal da. Eskabide orokorra aurkeztu beharko da, eta ez da beharrezkoa bertze dokumentaziorik eranstea.

### Delegatu berria Baztanen

Hemendik aitzinera bertze delegatu bat izanen da Elizondo, Elbete eta Lekarozera: Mari Atxa Mindegia. Ongi etorri!



UTZITAKOIA

## 81 bazkide Benidormen oporretan

Elkarteko 81 lagun Benidormen izan dira oporretan. Eguraldi ederraz gozatu ahal izan zuten; batzuk paseoan, bertzeak uretan (batzuentzat fresko xamar zegoen), ederki igaro zituzten egunak. Gainera, ez zuten hutsik egin urtero egiten duten Calpeko marisko jatean.

## Albaniako bidaiarako hainbat azalpen plazaratu ditu elkarteak

### TTIPI-TTAPA

Ekainaren 16tik 23ra Albaniara joanen dira hainbat bazkide, eta bidaiari begira, hainbat gomendio egin dituzte.

Maleta handia fakturatu eginen dute, eta eskuko maletak gehienez 10 kilo eta 54x40x25eko dimentsioa izan beharko du.

Maleta horretan ezin dira sartu puntazorrotza duten objektuak, horiek, fakturatutakoan sartu beharko dira. Maleta galdu edo hautsiz gero, aireportutik atera baino lehen erreklamatu beharko da. Botikak bere kaxan eta medikuaren informarekin eraman beharko dira.

Arropari dagokionez, udako arropak eta oinetako eroak eramateko gomendatu dute, baita leporako zapiren bat eramateko ere, eliza ortodoxoren batean sartzeko. Horrez gain, ulitxen kontrako botika uxagarria eraman beharko da. Roamingak ez du funtzionatzen, eta norberak bere konpainia informatu beharko du. Hoteletan, aldiz, wifia debalde egoten ahal da.

Albanian Lek izeneko moneta erabiltzen dute. Eurotan ordaintzen ahal da, baina Leketan itzultzen dute, beraz, billete tikiak eraman beharko dira. Txartela ez dute leku aunitzetan onartzen.

Pasaportearen duenari eramateko gomendioa egin diote. Europako osasun txartelak ez du balio, Corfu irlan bakarrik. Hala ere, mediku gastuetarako aseguruia egina dago.



**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicación  
www.kulturkari.com

### Enpresentzako materiala

Txartelak, gutun-azalak, orriak, talonarioak, karpetak, zigiluak...



### Hainbat euskarri

Era guztietako formatuak eskaintzen dizkizugu zure enpresa bistaratzeko











# Berako Altzate karrikako 15. zenbakiko birgaitze lanak bukatu dituzte!



12 etxebizitza dituen eraikineko bizilagunek 2022an erabaki zuten eraikina zaharberritzea. Nahuel Ibarburi Lompre bertako bizilagunaren arabera, «hasiera hartan, fatxada pintatzea eta teilatua berritzea zen gure asmoa, baina Nasuvinsaren bitartez, zaharberritze energetikorako dauden aukeren berri izan genuenean, eraikinaren ingurutzaila termikoa osorik berritzea erabaki genuen».

## PROIEKTUAREN AZALPENA

Eraikinaren ingurutzaila termikoa hobetzeko eta eraikina birgaitzeko hainbat neurri hartu dituzte:

1. Eraikinak zituen gabeziak konpondu.
2. Fatxadan Kanpoko Isolamendu Termikorako Sistema paratu, eraikinaren energia kontsumoa murrizteko, itxura hobetzeko eta fatxadako gabeziak eta kalteak konpontzeko.
3. Teilatuan ere isolamendua hobetu nahi izan da.
4. EKTren eskakizunak betetzen ez dituzten arotz lanak egitea.

## ZER ABANTAILA DITU ZAHARBERRITZE ENERGETIKOAK?

1. Bizi kalitatea hobetzea.
2. Etxebizitzaren barreneko erosotasuna nabarmen hobetzea. Egonkortasun termikoa etxebizitzaren barrenean.
3. Energia kontsumoa murriztea.
4. Kondentsazio arazoak konpontzea.
5. Eraikinaren estetika hobetzea.
6. Aire infiltrazioak murriztea.
7. CO2 emisioak murriztea.

Abantailak bistakoak izan dira eta hala berretsi du Ibarburik. Horren seinale, adibide bat eman du: «Negu honetan ez dugu berogailua piztu, eta hori izan da abantaila nagusia. Temperatura hobekiago mantentzen da, eta etxea ez da hainbertze hozten».

## ZER EGIN DU NASUVINSAK?

Europako Inbertsio Bankuak finantzatutako ELENA-PRIMAVERA proiektuari eta Nasuvinsak eta Berako Udalak sinatutako lankidetzaren hitzarmenari esker, Nasuvinsak laguntza teknikoa, finantzarioa eta soziala eman die Altzate 15eko bizilagunei, jarduerak planifikatzen lagunduz eta eragile publikoak zein pribatuak koordinatuz.

Horren harira, Ibarburik «Nasuvinsarekin eta obra egin digun enpresarekin hagitz kontent» daudela gaineratu du. Eta bide beretik joateko deia egin die herritarrei, «animatzeko» erranez. «merezki baitu».

## INGURATZE TERMIKOA ZAHARBERRITZEKO DIRULAGUNTZAK

Berako Altzate karrikako 15. zenbakiko bizilagunek guztira 231.600 euroko dirulaguntza publikoak eskuratu dituzte. Horietatik 72.000 euro Nafarroako Gobernutik eta gainerako 159.600 euroak PREE 5000 Europako laguntzetatik. Europako laguntza horietara eskaerak aurkezteko epea 2024ko uztailaren 31n bukatuko da.



Nahuel Ibarburi

«Nasuvinsarekin eta obra egin digun enpresarekin hagitz kontent»

«Negu honetan ez dugu berogailua piztu, eta hori izan da abantaila nagusia. Temperatura hobekiago mantentzen da, eta etxea ez da hainbertze hozten».

## HURRENGO LANAK BERAN: HEGOALDE 35

## Festei begira lotu beharreko kontuak mahai gainean

Plazaola aldizkarirako azalak eta idatziak biltzen ari dira eta herritarrek aukeratuko dute nork botako duen txupinazoa

### TTIPI-TTAPA

Ator beltzak eta galtza zuriak jantzi eta festa giroan sartu aurretik, bada galtza bete lan. Aurrera Elkarteko kideak eta festa batzordekoak hasi dira pixkanaka gauzak lotzen. Txupinazoa botako duen pertsona aukeratzeko prozedura jarri dute martxan eta Plazaola aldizkariko edukiak eta azal lehiaketako lanak biltzen ari dira.

### Txupinazoa

Herritarren eskuetan utzi dute txupinazoa botako duen pertsona edo eragilea aukeratzeko ardura. Maiatzaren 26ra arte jasotzekoak zituzten proposamenak eta herritarrek aurkeztutako hautagai guztien artean hiru aukeratuko ditu festa batzordeak. Hautagaitzak aurkezteko orduan izen abizenak jarri eta proposamenaren arrazoiak

zehaztu behar zituzten. Datozen egunetan jakinaraziko dute hiru hautagaiak zeintzuk diren eta, berriz ere, herritarrek izanen dute hitza. Hamasei urtetik gorako herritarrek, bata ala besteari botoa emanaz, aukeratuko dute nork botako duen aurtengo txupinazoa.

### Plazaola aldizkariko edukiak

Plazaola aldizkaria ere prestatzen hasi da Aurrera Elkartea eta herritarren idazlanak biltzeko epea ireki eta azal lehiaketan parte hartu nahi

## EKAINAREN 30A IZANEN DA LANAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

dutenek Aurrera elkartearen edo Maimur liburu dendan aurkeztu beharko dituzte lanak. Bere idazlanak aldizkarian agertzea nahi dutenek, berriz, aurrerake@hotmail.com helbidera bidal ditzakete berain idatziak, ipuinak, kontakizunak, kekek, komikiak, olerkiak... Batean zein bestean ekainaren 30a izanen da lanak aurkezteko azken eguna.

### Azal lehiaketa

16 urtetik beherakoek Plazaola-Leitzako aldizkaria-44. zenbakia testua jarri beharko dute eta 16 urtetik gorakoek Leitza 2024-Tiburtzio Donearen Pestak-44. zenbakia. Gutxienez A3 neurrian eginak izan beharko dute eta ekainaren 30a baino lehen Aurrera elkartearen edo Maimur liburu dendan aurkeztu beharko dituzte. Irabazleak bozketa publiko bidez aukeratu dituzte eta aurrerago zehaztuko dituzte bozketa lekua eta egunak.

### Atekabeltzen bilerak

Herriko gazteak ere hasiak dira abuztuaren 14ko Gazte Eguna antolatzen. Maiatzean bi bilera egin dituzte eta hurrengo deialdiak sare sozialaren bidez zabalduko dituzte.



GOTTIBERA

## Eraitsi SL kale antzerkia ekainaren 9an

*Eraitsi S.L.* antzezlanaren eskainiko du Goitibera antzerki taldeak, ekainaren 9an, 12:30ean, herriko plazan. Geuretik Sortuak ekimenaren baitan sortutako obra da, kale antzerkia eta espazio publikoaren eta jolasaren inguruan gogoetarako bidea irekitzen du. Adin guztietarako egokia da.

## Zinema denboraldiari bukaera eman diote

Maiatzean bukatu den zinema denboraldiaren balorazio ona egin du Miren Tirapu kultura teknikariak: «kalitatezko eta gaur egungo zinea proiektatzen segitzen dugu eta geroz eta ikusle gehiago ditugu». Leitzako eta inguruko herritarrei zinema zerbitzua eskaintzea da helburuetako bat, «zinemaz gozatu nahi dutenek hiriburuetara joan beharra izan ez dezaten». Horri lotuta, nabarmendu du Leitzako Herri Aretoan proiektatzen diren pelikulak zine areto nagusietan momentu horretan ematen ari direnak direla.



ENERITZ IRAOLA

## Itzaletik argitara, emakume artzainek egin duten lana

Emakume Artzainen Eguna ospatu zuten maiatzaren 19an eta herriko 40 emakume artzaini omenaldia eskaini zieten. Karrapean bilduta, «isilean gorputza, burua eta bihotza lurrari emanaz» egin duten lana eskertu zieten.

# Herriko komertzioa bultzatzeko bonu kanpaina hastear da

Ekainaren 10etik 16ra salduko dituzte bonuak eta ekainaren 17tik uztailaren 14ra erabili beharko dira

## TTIPI-TTAPA

Kaxkabeltza elkarteak eta Leitzako Udalak, herriko komertzioak bultzatzeko bonu kanpaina antolatu dute. Herritarrek eta bisitariak, herriko komertzioetan erostera bultzatu nahi dituzte. Kanpaina honetan parte hartzeko baldintza bakarra 16 urte beteak izatea izanen da; ez da beharrezkoa izanen Leitzan bizitzea. Bonuen kanpainen parte hartzen dutenek, hogeita hamar euro gastatzeko aukera izanen dute. Pertsona bakoitzak bost

bonu erosteko aukera izanen du; hau da, 100 euro erosi eta 150 gastatu.

Bonuak ekainaren 10etik 16ra jarriko dituzte salgai Kaxkabeltza elkarteko komertzioetan. Bonuak ekainaren 17tik uztailaren 14ra erabili beharko dituzte. Kanpainarekin bat egiten duten komertzioek kartel bat jarriko dute ikusgai. Epe hau igarota, bonuek bere balioa galduko dute eta ezinen dira itzuli edo erabili. Gainera, bonuak erabili ahal izateko, erosketak, gutxienez, 10 eurokoa izan beharko du.

## Jeikik ikuskizun erraldoia antolatu du ekainaren 15erako

Leitzako plazan festa giroa izanen da nagusi ekainaren 15ean. Jeiki abesbatzak, Lesakako Musika Bandak, Leitzako txistulariek, musikariek, Aurrerako dantzariak, erraldoi eta buruhandien konpartsak, gaiteroek eta bertsolariak parte hartuko dute eta hainbat sorpresa ere izanen dira.

## Ikasturtean egindako lana erakusteko ordua

Maiatzaren 31n, 17:30ean, *Baso magikoa* ikuskizuna eskainiko dute musika eskolako ttikiek Herri Aretoan. Ekainaren 4an, dantza garaikideko erakustaldia izanen da, 17:00etan, eta ekainaren 10etik 14ra kontzertu tematikoak eskainiko dituzte musika eskolako gaztetxoek.

## Sagardo Eguna ospatuko dute ekainaren 8an

Euskal Herri osoko sagardoak edateko aukera izanen da Leitzako plazan, 19:00etatik aurrera. Hamasei sagardogilek parte hartuko dute. Ez da erraza izanen pasa den urteko marka gainditzea; jendetza bildu zen eta 900 botila sagardo baino gehiago edan zituzten.

## 'Zaindu Leitzaldea' ekimena ezagutzeko aukera ekainean

Ekainaren 12an egitasmoaren aurkezpena eginen dute, 18:30ean, Herri Aretoan eta herritar guztiek eskura dituzten zerbitzuen berri emanen dute. Ekainaren 14an, goizean, ate irekiak eginen dituzte beraien egoitzan eta herritar guztiei luzatu diete gonbidapena.



UTZITAKOIA

## Jubilatuen bazkarian omenduak

Leitzako jubilatuen bazkarian 90 kide inguru bildu ziren. 85 urte bete dituzten herritarrek eta urrezko ezteiak bete dituzten senar-emazteak omendu zituzten eta herriaren alde egiten duten lana eskertzeko, Leitzako suhiltzaile boluntarioei eta LHL Erronkako kideei oroigarri bana eman zieten.



UTZITAKOIA

## Leire Retegi txistularia txapeldun Bilbon

Bilbon jokatu zuten maiatzaren 11n eta 12an Euskal Herriko Txistulari Gazteen Txapelketa. 17 eta 25 urte artekoen kategorian txapelduna izan zen Leire Retegi Fernandez herritarra. Maila horretan parte hartu zuten zortzi txistularien artean berak lortu zuen garaikurra.

## Hogeita hamar gosari banatu ditu Kaxkabeltza Elkartek

### TTIPI-TTAPA

Kaxkabeltzako kideek gosariak zozketatu dituzte maiatzaren 2tik 12ra arte elkarteko kide diren komertzioetan erosketak egin dituzten artean. Denera hamabost pertsona izan dira sarituak: Raul Izco, Maite Iturrarte, Alaitz Oiartzun, Aroa

Noble, June Otermin, Maite Arrizurieta, Esperanza Herrera, Iker Loitegi, Asun, Esther, Lurdes Zabalo, Nerea Arregi, Lurdes Mariezkurrena, Fatima Urkiola eta Aloña Mendizabal. Bakoitzak bi laguntzako gosaria eskuratu du Ogi berri, Zortziko edo Musunzarren.



Herritarrekin batera prozesu bat abiatzea da asmoa. ENERITZ IRAOLA

## Taberna eta denda faltari aurre egiteko irtenbide bila ari dira

Udalak lehentasuna eman dio gaiari eta herri kooperatiba bat sortuta taberna-denda bat irekitzeko proposamena egin du

### ENERITZ IRAOLA

Taberna, denda eta okinikgabe gelditu ondotik, irtenbide posiblez hitz egitea zen maiatzaren 16ko bileraren helburua. Herriarren egunerokoan eragin zuzena duten gaiak dira eta bete egin zen udaletxeko batzar aretoa. Udalak gaiari lehentasuna emateko konpromisoa adierazi eta herri kooperatiba bat sortuta taberna-denda bat irekitzeko proposamena jarri zuen mahai gainean.

Herritarrekin eta udal ordezkariarekin batera, proiektu honetan bidelagun izan daitezkeen hainbat eragile gonbidatu zituz-

ten. Cederna Garalurreko Mendialdeko teknikariak, Beñat Irasuegi Olatukoop eta Lander Urritza Bakaikuarrok proiektuko ordezkariak bertan izan ziren. Elena Irigoien Cederna Garalurreko teknikariak eskualdean egiten duten lanaren berri eman zuen eta herrietan proiektuak garatzeko dauden bitarteko eta

### EKAINAREN 10EAN BILERA DEITU DUTE, 18:00ETAN, UDALETXEAN

bide desberdinak azaldu zituen. Beñat Irasuegi zerbitzu faltari aurre egiteko Euskal Herrian barna sortu dituzten herri kooperatiben berri eman zuen. Bide horretan bidelagun izatea da Olatukoopen funtzioa eta herri kooperatiba bat sortzeko eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaldu zuen hainbat adibide emanaz. Herri kooperatiba horietako baten ordezkariak borobildu zituen azalpenak. Lander Urritza Bakaikuarrok herri kooperatibako kideak Bakaikuko dendaren itxieraren aurrean martxan jarri duten proiektuari buruzko xehetasunak eman zituen.

Udalak burutan duen proiektua azaldu zuen gero. Herritarrekin batera, prozesu bat abiatu, herri kooperatiba bat sortu eta herritarren artean kudeatuko litzatekeen taberna-denda bat sortzea da asmoa. Udala kooperatiba horren parte izango litzateke, baina herritarrek izango liriteke bere bultzatzaileak eta babesleak. Taberna eta denda hori jartzeko espazio falta da gainditu beharreko lehenbiziko oztopoa, baina proposatu dute aukera bat: «Udaletxeko eraikinean moldaketa egin, udal bulegoak lehenbiziko solairura igo eta eraikinaren beheko zatian taberna eta denda jartzea. Obra egitea eskatuko luke, baina eraikina bera gurea da eta kokapena ezin hobea da». Bestelako proposamenak ere egin zituzten bertaratutakoek eta udala horiek aztertzeke prest agertu zen.

### Edukiontzi marroiaren erabilera sustatu nahi dute

Organikoa bereizteko kubo eta poltsak banatu ditu Mendialdea Mankomunitateak. Hondakin organikoak bereizi eta herrian jarri dituzten hiru edukiontzi marroiak erabiltzera animatu nahi dituzte herritarrek. Patxikune atarian, plaza zaharrean eta Ollene parean jarri dituzte edukiontziak. Hasiera batean, erabilera librea izanen dute, baina etorkizunean sistema elektronikoa bat jartzeko asmoa dute eta hondakinak ongi bereizten dituztenak tasak ordaintzeko orduan saritu.

### Mendi martxa eta festak antolatzeko bilerak ekainean

Mendi martxa antolatzeko bilera ekainaren 4an egingo dute udaletxean, 18:00etan. Festa batzordeko bilera, berriz, ekainaren 13an izango da eskoletxean, 17:00etan. Herri bazkari menua itxi, lan taldeak finkatu eta txosnako txandean inguruan hitz egingo dute.

### Heziketa eta hezkuntzarako dirulaguntzak

Aresoko Udalak ikasleen heziketa eta hezkuntzarako gastuak ordaintzeko dirulaguntzak ematea erabaki du. Hamasei urte arteko gazte eta haurren eskolaz kanpoko jarduerak ordaintzeko izango da laguntza. Gastuaren erdia lagunduko da, gehienez 100 euro urteko eta ikasleko. Gastua egiaztatuta egin behar da ordainagiriaren bidez. Kirol jarduerari dagokienez, ikastaro ez-lehiakorrek hartuko dira kontuan. Dokumentazioa aurkezteko epea ekainaren 17an bukatuko da udaletxean edo egoitza elektronikoa.

### 'Kutsidazu bidea Ixabel' antzezlanaz gozatzeko aukera

Udaletxeko karrapean jarri zuten oholtza eta jende ugari hurbildu zen Berrobiko Txalo Talo konpainiako kideek eskainitako emanaldia ikustera. Juan Martinen xelebrekeriekin nahikoa barre egin zuten ikusleek.



ENERITZ IRAOLA



Sasoiko produktuak, artisau lanak... denetarik erosteko aukera izanen da. F. LOIARTE

## Azoka ibiltaria eta talo eguna prest ekainaren 8rako

Mendialdeko ekoizleen produktuekin batera, herritarrei ere eman diete postua jartzeko aukera

### TTIPI TTAPA

Mendialdeko Azoka Ibiltariak geldialdia egingen du herrian ekaineko bigarren larunbatean. Aurreko edizioetan bezala, elikagai ekoizle eta artisauen bilgune izanen da plaza inguru eta eguraldi txarra egiten badu eskolan egingen dute ekimena. Ez da eguneko hitzordu bakarria izanen, talo eguna ere egun berean ospatuko dute.

Goizean irekiko dute azoka eta Mendialdeko hainbat ekoizleek jarriko dituzten postuekin batera, herritarrek ere izanen dute tokia. Taloaren historia

azaltzen duen erakusketa ere jarriko dute ikusgai: tresnariarekin, argazkiekin eta hainbat testurekin. Herritarrei eskatu diete laguntza eta artasoroak ageri diren argazkiak, arbasoak taloak erretzen edo artoa kirkiltzen... ageri direnak jarriko dituzte ikusgai. Taloak egingen eta artoa kirkiltzen ere ariko dira eguerdian. Nola egingen diren ikusi bakarrik ez, taloak dastatzeko aukera ere izanen da Saralegi talogileek eta Goizuetako talogileek jarriko dituzten postuetan. Arratsaldean, umeentzako talo tailerra egiteko asmoa dute.



FELIX LOIARTE

### Goizutrail lasterketa arrakastatsua

Etxean ari zen lasterka eta denboraldi osoan erakutsi duen sasoiari eutsiz, ez zen ezustekorik izan txapel beltza banatzera-koan. Hodei Lujanbiok iazko garaipena errepikatu zuen ibilbide luzean eta Ane Eltzaurdia nagusitu zen emakumezkoetan. Giro paregabean, auzolanaren erakusle izan zen lasterketa.

**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicidade  
www.kulturkari.com

**Etiketak eta pegatinak**  
Paperean edo biniloan  
(opakua edo gardena)  
Bobinan edo soltean,  
formarekin mostuak...

### 'Ura eta gizakiak' erakusketa ikusgai ganbaran

Arantzadi Zientzia Elkartek *Ura eta gizakiak* erakusketa antolatu du. Herriko Etxeko ganbaran egonen da ikusgai ekainaren 3tik 17ra eta astelehenetik ostiralera, 09:30etik 12:00etara eta astelehenetik ostegunera, 18:00etatik 19:00etara.

### Palestinaren aldeko taldea sortu dute herritarrek

Palestinarrak jasaten ari diren egoeraren aurrean «ezer egin gabe ezin gara gelditu». Hala-xe adierazi du herritar talde batek eta gonbidapena luzatu. Whatsapp talde bat sortu dute eta palestinarrei elkartzuna adierazteko ekintzak antolatzeko asmoa dute.

## «Astean bitan pediatria izatea ez da aurrerapausoa»

LEITZALDEAN PEDIATRA ORAIN TALDEKO ORDEZKARIAK

### TTIPI-TTAPA

Bost hilabetez egon dira Leitzako Osasun Etxean pediatriarik gabe. Ehunka erreklamazio, hainbat elkarretaratze eta Iruñera egindako joan etorri ugari pilatu dituzte tarte horretan Leitzaldeko gurasoek. Maiatzaren 14an jakin zuten, maiatzaren 16tik aurrera pediatria zerbitzua izanen dutela astean bitan, hiru orduz, Leitzako Osasun Etxean. Salatu dute ez dela espero zuten neurria: «berriak hotz utzi gaitu; mesfidantzaz hartu dugu. Ez da merezi dugun erantzuna». Albiste bere horretan ez dela txarra diote, «gure haurrek astean bitan begiratuak izateko aukeraz izanen dutelako», baina ez ditu eskualdeko beharrak asetzen: «haur gutxi batzuk izanen dutelako artatuak izateko aukera».

Proposatutako neurriak «behin betikoa» behar zuela salatu dute:



Hainbat elkarretaratze egin dituzte.

«pediatria lanaldi osoan eta bete beharreko zerbitzu eta eginkizunekin behar genuen». Horregatik, iragarritako neurria, «berandu heldu den partxe bat» dela uste dute: «orain jarri behar duten partxe hau ilbeltzean, Leitzako pediatria faltatu zen momentutik, jarri beharreko neurria zen. Horretan ari diren politikoak ez dira gai izan lehenbaitziko momentutik, astean bitan, guztira sei orduz pediatria bidaltzeko? Ez zaie halakorik

okurritu lehenago? Mesedez, utzi adarra jotzeari».

Beldurra ere badutela aitortu dute: «beldurra dugu konformatuko ote garen. Edo konformatziko ote gaituzten. 'Behintzat bi egunetan joaten da' esanen ote diguten. 'Ezer baino hobe izanen da, ez?'». Osasun Departamentuak iragarritako neurriarekin «urak lasaitzea» bilatzen dutenaren susmoa ere badute: «jendea isilarazi; zarata asko egin dugu eta...». Horrek dakarren arriskuarekin: «espe-rientziakesatzen digu behin-behinekoa behin betiko bihurtzen dela. Eta ez gaude prest horretarako».

Goizueta eta Lekunberriko Osasun Etxeetan zer gertatuko ote den ere galdetu dute, Leitzako pediatria zelako bertan zerbitzua ematen zuena: «eskualdeko arazoa da edo eskaintzen den plazarena da? Ze irtenbide eman zaie bi herri horiei? Epe motzean momentuz bate-ze ez, luzean?».

Zer hobetu eta eskatu badela ikusita, lanean jarraituko dutela iragarri dute. Eskualdeko udalek ere bat egin dute beraien eskaerekin eta behin betiko irtenbide bat lortzeko beharrezko urratsak emateko eskatu diete Nafarroako Gobernuari.

## Lan orientazioko zerbitzua eskainiko dute Mendialdean

### TTIPI-TTAPA

Hamabostean behin, lan orientazioko zerbitzua eskainiko dute Mendialdean. Aurrerantzean, hilabeteko lehenengo eta hirugarren asteartean, Leitzako Mimukai zentroan edo Lekunberriko udaletxean jasoko dute lana bilatzen ari direnek beharrezko laguntza. Banakako aholkularitza eta inguruko aukerak identifikatzen lagundu eta bakoitzaren gaitasun profesionalak eta pertsonalak hobetzeko laguntza eskainiko zaie. Gainera, lan eskaintzen bilaketan lagundu eta prestakuntza ekintzetara bideratuko dituzte. Interesa dutenek, enplegu-agentzian, orientacion17@fundacion-ilundain.com helbidera idatzita edo 629 56 69 92 telefonora deituta eman dezakete izena. Cederna Garalurreko elkartek eta Nafar Lantareak egin duten akordio baten ondorioa da aurrerantzean Mendialdean eskainiko duten zerbitzua.

## Udako haur txokoa eta tailerrak eskainiko dituzte Leitzan

Uztailaren 1etik 26ra, udako tailerrak eta haur txokoa antolatu dituzte Leitzan. Lau txanda izanen dituzte aukeran eta erabiltzaileek aukera izan dute aste eta ordu kopurua erabakitzeko. Maiatzaren 24an bukatu zen izena emateko epea eta ikas mailaren arabera bi taldetan banatuko dituzte haurrak: haur hezkuntzakoak eta lehen hezkuntzakoak banatuz. Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak, Euskara Zerbitzuak, Leitzako Udalak eta Nafarroako Gobernuak elkarlanean antolatu duten zerbitzua da.



ENERITZ IRAOLA

## Zaintzaren bueltan ari diren eragileak bildu dira Leitzan

Cederna Garalurreko teknikariek, Mimukai eta ekintzailetarako programak baliatuta antolatu zuten hitzordua; Mendialdean zaintzaren inguruan garatzen ari diren proiektu desberdinetako eragileek elkar ezagutu eta elkarren artean sarea osatzen joateko.



laz helmugara iritsi zen azkeneko lasterkaria eta eskobak.

# EH Mendi Erronkaren hamargarren edizioa ekainaren 1ean

Irene Sarrionandia Unzueta mendi lasterkaria izanen da aurtengo omendua

## TTIPI-TTAPA

Hamargarren edizioa izanen da eta berrikuntza nabarmen bat dakar berekin: Nafarroako Mendi eta Eskalada federazioak eta Euskal Mendizale federazioak bat egin dute eta Euskal Herriko Ultra txapelketa izanen da aurtengoa.

Lasterketa herriko plazan hasi eta bukatuko da, Araitz-Betelu, Larraun eta Lekunberritik pasatu ondoren. 08:00etan hasiko da, baina hori baino lehen dortsalak banatuko dituzte: ostira-lean, maiatzaren 31n, 17:30etik 20:00etara eta lasterketa egunean, 06:00etatik 07:30era. 07:30etik 07:55era *korralitoa* izanen da eta 07:45ean omenaldia.

Irene Sarrionandia Unzueta zornotzarra izanen da aurtengo omendua, Euskal Herriko mendi lasterkari maiteenetakoa eta beteranoenetakoa. Bere balioek Euskal Herria Mendi Erronkaren izaerarekin eta balioekin bat egiten dutela azpimarratu dute antolatzaileek: «eredugarria da emakume honek inor aurretik ibili gabeko eremuetan aurrera egiteko erakutsi duen irmotasuna eta gogoia». Bide-urratzaila izan zen mendi lasterketen

hastapenetan eta, 75 urterekin, edizio honetan ere parte hartzekoa da, erreleboka.

Edizioak bi modalitate izanen ditu: batetik, 67 kilometroko lasterketa eta bestetik, errelebo lasterketa. Kasu horretan, lehenbiziko lasterkariak Leitzatik Putzuzarreraino egin beharko du (32,8 km eta 4.700 metroko desnibela), eta bigarrenak Putzuzarretik Leitzarainoko zatia (34,2 km eta 2.194 metroko desnibela). Ibilbideko punturik altuena Irumugarrieta izanen da (1.431 m). Aipatzeko beste datu bat: lasterketa osoan 400 boluntariotik gora ariko dira lanean.

## Lasterketa ikusteko lekua

Lasterketa ikusi nahi duenak hainbat aukera izanen ditu. Leitzan irteeran eta helmugan; Gorritin (aurrenekoa 08:45 aldera espero dute); Arriben (09:15), Gaintzan (09:30), Albin (11:00), Putzuzarren (11:30), Lekunberin (12:30) edota Berueten, Iontzan (13:45). Dena den, Gaintzara baimendutako kotxeak bakarrik joan daitezke eta argitu dute, taxiak jarriko dituztela Arriben Gaintzara joateko.

## «Auzolan erraldoi baten emaitza da»

JUNKAL OTXOTORENA SAGASTIBELTZA EHMEKO ANTOLATZAILEA

Atzerako kontaketa hasita, «auzolanean jo eta fuego» dabilta EH Mendi Erronkako antolatzaileak: «talde guztiak aktibatuta, ilusioz lanean». Lasterketako antolatzaileetako bat da Otxotorena eta argi dio boluntarioen lana dela arrakastaren giltza: «ez da lasterketa soil bat. Eskualde oso baten elkarlanaren emaitza da». 400 boluntario inguru dira inurri lanean ari direnak, «beraiek dira lasterketari zentzua ematen diotenak».

Hamargarren edizio izanen da aurtengoa, eta berrikuntza garrantzitsua dakar berekin: «bi federazioek bat egin dute eta Euskal Herriko ultra txapelketa izanen da». EH Mendi Erronkaren aldarrikapenetako bat zen hori, baina ez bakarria: «Etiketara Berdea egitasmoarekin bat egin dugu eta elkarbizitzan, berdintasunean eta jasangarritasunean oinarritzen den lasterketa da».

Erronka izena eman zioten lasterketari eta antolatzaileek ere izan dute urte hauetan guztietan beraien erronka: emakumeen parte hartzea sustatzea. «Hasierako urteetan ikusten genuen emakumeen parte hartzea oso baxua zela, ehuneko zazpi ingurukoa. Errelebotako aukera ematea erabaki genuen duela lau edizio eta orain bi lasterketen artean parte hartzaileen ehuneko hogeita emakumezkoa. Oso pozgarria da hori guretzat». Gainera, ibilbidea erreleboka osatzeko aukera: «poliki hasi eta luzerako saltoa egiteko bidea ere izan da askorentzat».

## «NABARMEN IGO DA EMAKUME KOPURUA»

Datuak dira horren adierazle, «Proba luzean, gehiengoa (202 lasterkari) 35 eta 44 urte artekoak dira. Erreleboka, 25 eta 34 urte arteko taldea da zabalena (56 pertsona)». Lasterkariak soilik ez, ikusleek ere badute gozatzeko aukera: «inguruko jende asko mugitzen du. Gaintza, Putzuzar, Lekunberrira... joan zaitezke lasterkariak ikustera, berarekin batera bidea osa dezakezu eta hori polita da». Gainera, Mendialdeko ordezkariak ere asko izanen dira: «lasterkari ezagunek, garrantzia dute, hor dagoelako lehia, baina niretzako lasterketa hau herrikoia da. Mendialdeko 65 herritarrek parte hartuko dute eta oso polita da inguruko jendea lasterka ikustea». Antolatzaile bezela aitortu du, «gustatuko litzaidake lehenengotik azkenekora arte hortxe egotea eskertza hori ematen. Lehenengoa bezain garrantzitsua da azkenekoa. Hamahiru orduz, mendian korrika egon den pertsonak meritu izugarria dauka». Ez da kasualitatea eszenatokiaren kokalekua: «sari banaketa zortzietan hasten da, baina bederatzietarako tarte horretan lasterkari asko sartzen dira helmugan. Argi dugu, denek jaso behar dutela bere esfortzua- ren saria eta aitortza».

Antolakuntzako kideei, lasterkariei bezalaxe, helmugako marra zapaltzean ahazten zaizkie bideko oztopo, lokatz eta miseriak eta lasterkariak bezalaxe heldu den urtekoari begira jartzen dira: lana da, baina gustura egiten dugu». Horixe da EH Mendi Erronkaren magia: urtetik urtera hobetzeko nahia izatea.

## Baztangoizako besta lehen aldiz ekainaren 8an Arizkunen

Amaiur, Arizkun, Azpilkueta eta Erratzu egun osoko egitarauaren bueltan elkartzea du helburu ospakizunak

### TTIPI-TTAPA

Arizkungo Herriak Baztangoizako besta antolatu du aurten lehenbiziko aldiz, eta ekainaren 8an egingen dute, egun osoko egitarauarekin. Herriko lau gazte aritu dira antolakuntza lanetan, tartean Jon Iriarte. Azaldu duenez, «lau herri-tako alkateek aspalditik zuten burutan besta sortzeko ideia, baina ez zuten inoiz momentua aurkitu martxan paratzeko. Aurten Imanol alkateak ideia proposatu zidan, eta hasmentan dudak banituen ere, lan talde ttiki bat sortu genuen eta eguna aitzinerat ateratzeko aukera ikusi genuen».

«Baztangoizako lau herriak elkartzeko eguna» ospatu nahi dute; «herriarrak elkartu eta gure arteko erlazioak sendotzeko aukera gisa ikusten dugu. Hortaz, lau herrietako ahalik eta partaide gehien izatea espero dugu. Hala ere, gainerako herrietakoak ere etortzera gonbidatuak daude». Aitortu duenez, «ideia ez da gurea, bertze eskualde batzuetan ere halako bestak egiten baitira.

Hori hartu eta Baztangoizara ekartzera animatu gara».

Prestaketa lanetan gogor ari dira, «eta nahiz eta iada dena loturik izan, oraindik horretan ari gara, eta lan aunitz dugu aitzinetik. Eguna hurbildu bezala lanak auzolanean egin beharko ditugu, eta egunean ere, lan batzuk herritarren laguntzaz osatu beharko dira: materiala paratu, kendu, txoznako txandak...».

Etorkizunera begira, «asmoa besta urtero herriz herri egitea da. Lehenbiziko edizioa Arizkunen izanen da, baina heldu den urtean bertze hiru herrietako batek lekukoa hartzea espero dugu, horrela besta urtero egiteko aukera izanen dugu. Aukera polita dugu urtero elkartu eta egun eder bat pasatzeko. Giro ederra izatea espero dugu!».

### «GURE ASMOA BESTA URTERO HERRIZ HERRI EGITEA DA»

## Baztangoizako besta

Egun osoko egitaraua prestatu dute ekainaren 8an.

- 11:00etan** herrien arteko herri kirol desafioa izanen da.
- 14:00etan** bazkari herrikoia egingen dute Iñaki Agirrek alaiturik. Bi sariren zozketa ere egingen dute.
- 19:00etan** dantzaldia izanen da Bizphiru Pelau taldearen eskutik.
- 20:00etatik 22:30era** bokatak izanen dira afaltzeko.
- 23:00etan** Bizphiru Pelau taldeak joko du berriz.
- 01:30ean** DJ Venturak girotuko du gaua.



Mutil dantzak aurtengo Iruñeko bestetan. UTZITAKOA

## Bestetan mutil dantzak dantzatzera animatu du Plazara Dantzara taldeak

### TTIPI-TTAPA

Taldeak adierazi duenez, «2023 Baztanen bazterketarik gabeko lehenbiziko urtea izan zen bezala, 2024a plazak betetzeko eta gure kulturaren aberastasuna harrotasunez erakusteko urtea izatea nahi dugu».

Izan ere, joan den urtean lehenbiziko aldiz mutil dantza ez baztertzaleak dantza-tu zituzten Baztango herri guzietako bestetan. «Ez dugu atzendu behar askatasunez dantzatzeko aukera hori edukitzeko bide luze eta gatazkatsua egin dugula. Hala ere,

bide hori irekia mantentzeko eta Baztango mutil dantzek bizirik irauteko, ezinbertzekoa da gure herriko plazan dantzatzea, ondare bezala duen balioa aitortzea eta egin zaion gutxiespen kanpaina gelditzea».


Hori dela eta, «lan hau ez da emakumeen eta mugimendu feministaren ardura bakarrik. Mutil dantza herri ondarea denez, herritar guztien ardura da bizirik eta aberats mantentzea. Beraz, bazterketarik gabe, lotsarik gabe eta boikotik gabe, Plazara Dantzara!».

## Tomas Sobrinoren pintura erakusketa Iruñeko Gotorlekun ikusgai

### TTIPI-TTAPA

Tomas Sobrino Habans margolari elizondoraren *Gelditzen zaizkigun zuhaitzak* pintura erakusketa ikusgai dago Iruñeko Gotorlekuko Mistoeren pabiloiko behe-itiko solairuan.

Maiatzaren 10ean egin zuten erakusketaren inaugurazioa eta ekainaren 30era arte ikus-teko aukera izanen da. Asteartetik larunbatera 11:30etik 13:30era eta 18:00etatik 20:30era, eta igande eta besta egunetan 11:30etik 13:30era zabalduko dituzte aretoaren ateak.



Tomas Sobrinoren margolanak.

Bidasoko Eskolako kide da Tomas Sobrino, eta naturan eta landareetan zentratuta, Baztango ibilbidea egin du bere margo bilduman, urtarokak irudikatuz.



# Lan Ikuskaritzak Lozy'seko langileei eman die arrazoia

ELAk paratutako salaketei erantzunez, enpresak langileen greba eskubidea urratu duela ebatzi du

## TTIPI-TTAPA

Hiru hilabete baino gehiago daramatzate greban Leka-zoko Lozy's Pharmaceuticals enpresako langileek, hitzarmen propioa lortzeko helburuarekin. Geroztik, ELA hiru salaketa paratu ditu, enpresak langileen greba eskubidea urratzen duela adieraziz. Berriki, Lan Ikuskaritzak horrietatik bi ebatzi ditu, eta arrazoia eman dio sindikatuari; greban dauden pertsonak legez kanpo ordezkatzeko ari dira. Hirugarren salaketa ebatzteko dago oraindik.

Horrez gain, «enpresak negoziazioaren edozein aurrerapen blokeatzen duela» salatu dute, eta «enpresaren itxierarekin» mehatxatu duela. Hala ere, Nafarroako Gobernuak argi adierazi du gezurra dela enpresa gobernuarekin lanean ari denik bertze toki batera mugitzeko.

Hori dela eta, ELA «negotziazioaren alde egiteko» eskatu dio enpresaren zuzendaritzari; «xantaia bertan behera uzteko eta langileekin adosteko gaitasuna erakusteko».

## Indarkeria matxistaren aitzinean jarduteko protokoloaren aurkezpenak

### TTIPI-TTAPA

Baztango Udalak 'Emaztekiekin Kontrako Indarkeriaren aitzinean Jarduteko I. Koordinazio Protokoloa' sortu du, eta ekainean aurkezteko saioak egingen dituzte kuarter guzietan, ortzegunetan. Lehenbizikoa Amaiurren izanen da, ekainaren

6an. Elizondon ekainaren 13an egingen dute, Arizkunean, eta ekainaren 20an Oronoz-Mugaireren txanda izanen da. Azkenik, Anizen ekainaren 27an egingen dute aurkezpena. Saio guziaz 18:30ean izanen dira. Protokoloa irakurgai dago [baztan.eus](http://baztan.eus) webgunean.



ONDIKOL ETA UTZITAKOA

## Giro ederra Iruritarako bestetan

Urteko lehenbiziko bestak ospatu zituzten iruritarrek maiatzaren 8tik 12ra. Baztango Gaiteroek eman zieten hasmenta besteiei eta Mikel Ortegak piztu zuen lehenbiziko suziria. Salvatore egunean, eguraldi ederra lagun, jendetza bildu zen plazan dantzarien ikuskizunaz gozatzeraz.



**Arotxa**

Aroztegia 1890az geroztik

M. 650 53 20 73 · T. 948 58 14 18  
31730 IRURITA  
arotxa.taller@gmail.com  
[www.arotxataller.com](http://www.arotxataller.com)

**GARAJEKO ATEAK** | **HORMANN** banatzaile ofiziala



**TOLDOAK - ESTOREAK** | Etxea-merkataritza-ostalaritza



Eguzkiak babestu toldo batekin

# Proiektu ugari maiatzean Elizondo Lanbide Eskolan

'Generoaren araberako lanbideak?' jardunaldian Mendaur Institututuko ikasleei orientazioa eman zieten

## TTIPI-TTAPA

Elizondo Lanbide Eskolak *Generoaren araberako lanbideak?* jardunaldia egin zuen Doneztebeko Institututuko 2. DBHko ikasleekin.

Alde batetik, orientazioa eskaini zieten ikasleei, «eskolako zazpi lanbide familietako (ostalaritza eta turismoa; fabrikazio mekanikoa; soldadura; erizaintza; administraritza; informatika; eta gorpuztuz heziketa) baliabideak aprobeztatuz».

Bertzetik, «generoaren arabera lanbideetan arrakala dagoela» azaldu zieten, eta lanbidea aukeratzean norberaren gogoaren lehenestera gonbidatu zituzten. Ikasle guztiak eskolako lanbide guztiak probatu ahal izan zituzten, eta horretarako gidari izan zituzten lanbide eskolako neska-mutilak.

Horrela, «lanbide eskolak orientazioa egin eta hezkidetzaren planean pauso bat gehiago eman du». Hurrengo jardunaldia Lekearozko institututuko ikasleekin egingen dute ekainaren 12an.

## Bigarren eskuko azoka

Administraritzako EMHZ-1eko ikasleek bigarren eskuko azoka antolatuz, *Zokotik soinera* proiektu solidarioaren bitartez, «objektuak berrerabiltzearen kontzientzia azaleratu nahian eta irakasgaietan ikasitakoa praktikan jartzeko». Azokak maiatzaren 16an eta 17an egin zituzten, Merkatuko plazan eta ikastetxean. Bildutako dirua Saray elkar-tearendako izan zen.

Horrez gain, «ehungintzaren industriako joeren inguruan kontzientzia sortzea eta joerak haustea» zuen helburu proiektuak. Horretarako, Iruñean Arropa Garbia kanpainak antolatutako erakusketa batera joan ziren, Ximiko berri dena bisitatu zuten eta ekonomia zirkularraren inguruko solasaldia izan zuten.

## Hazitegiak eskolendako

Oinarrizko Maila Fabrikazio-ko bigarren mailako ikasleek hazitegiak eraiki zituzten Almandoz, Gartzain eta Elizondoko eskolendako. Proiektuak emaitza bikainak eman zituen.



Herrigintzan parte hartzeko ekimen ugari egin ditu ikastetxeak. UTZITAKOAK

**MARMOLES SOULE** | LAPIDAK  
PANTEOIAK  
HILERRIAK  
ZAHARBERRITZEAK  
GARBIKETAK  
HARRI ZIZELKATZEA

www.marmolessoule.com

ARIZKUN | M. 688 605 182 | T. 948 453 444  
marmolessoule@gmail.com



**OSIRIA BUKAERAKO GARBIKETAK**  
NEKAZAL TURISMO ETXEA  
PARTIKULARRIEN ERABILTZAILEAK  
PROFESIONALENDAKO

\*Ondakia ere onitzen gara.

+34 671 756 572 | the.houtsend@gmail.com  
ELIZONDO

Oharritz Auzoa z/g - LEKAROZ  
T. 948 452 143 - 948 452 449  
info@harrilan.com www.harrilan.com



**HARRI LAN S.L.**  
GARBIAK

EDOZEIN HARRI MOTAREKIN  
LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU



# «Arras berezia» izan da Arizkun Rocken azkeneko edizioa

Giro goxoan eman zioten agurra Arizkungo plazan hamar urtez egindako jaialdiari

## TTIPI-TTAPA

Olatz Salvador, Olaia Inziarte, Xabi Solano eta Zigor DZ izan ziren maiatzaren 18an Arizkungo plazan, Arizkun Rock jaialdiaren azken edizioan.

Antolatzaileek azaldu duteenez, «arras kontent eta bihotza betearekin gaude. Arras polita izan zen dena. Jende aunitz etorri zen, espero ez genuena, eta eguraldiak opari bat eman zigun, zerua garbi izan baiguenen eta eguzkia ere atera zen. Kontzertuak arras politak izan ziren, formatu aise ttikiagoarekin ber-



Antolatzaile eta partaideak.

tze urtekoekin konparatuz, baina arras berezia». Horrez gain, adierazi dute «gogor salatzen dutela komunean agertutako pintaketak».



Giro paregabea izan zuten plazan. SOULE PRODUKZIOAK, MIKEL LIZARDI ETA ONDIKOL



50 lagun baino gehiago bildu ziren pintaketak salatzeko. ONDIKOL

## Pintaketak gogor gaitzetsi dituzte

Arizkun Rocken egunean pintaketak egin zituzten herriko komunetan, tartean mezu LGTBIQ+foboak zituztela, eta gertatutakoa salatzeko bildu ziren Harro Baztan, Baztango Talde Feminista, Iñarrosi Neska Gazte Taldea, Baztango Udala, Arizkungo Alkatetza Taldea eta Arizkun Rock. Alde batetik, «komun publikoa izaki, herritar guzien kontrako eraso izan da». Bertzetik, «agertutako mezu LGTBIQ+foboa onartezinak dira gure gizarte anitzean. Eraso hauek erakusten dute gorrotoak oraindik hor dirauela, eta alkoholak eta bertzelakoek ematen dietela jarrera hauekin jokatze eskubide eta zilegitasuna. Bide horretatik, jarrera hauek babestu eta onartzen duten konplizeak ere erasotzaileak zarete».

**JOSEPHINE'S**  
20 ★ 13  
**ENGLISH**  
BAZTAN  
Pedro Avular Iamika, 2 Elizondo

**BERTAKO IRAKASLEA**

**2024-2025 MATRIKULA IREKITA**

**Lehen Hezkuntza, DBH,  
Batxilergoa (B1, B2) eta Helduak**

Christina Irigoyen ☎ 637 176 572 ✉ josephinesenglish@gmail.com

**MÁRMOLES**  
**AMEZTI**  
Desde 1994

**SUKALDEKO ETA KOMUNEN  
ENTZIMERAK EGITEN DITUGU**

info@marmolesamezti.com • www.marmolesamezti.com

Iruñea Iruñe errepidea, z/g.  
ORNOZ-MUGAIRI

T. (+34) 948 592 325  
F. (+34) 948 592 295

# 'Bizi baldintza duinen alde' Elizondon

Baztan-Bidasoko Ernaik egun osoko jardunaldia antolatu zuen maiatzaren 11n eta hamarnaka gazte elkartu ziren

## AINTZANE ARIZTEGI

Poteo politikoak hiru geldialdi izan zituen: lehenbizikoan, Malen Alzuartek gazteen osasun mentalaren inguruko hitzartze bat egin zuen, bigarrenan, Xabier Sarratearen eskutik Lekarozko Lozy's Pharmaceuticals enpresako langileen grebaren berri izan genuen, eta akitzeko, Gorka Larnagak krisi ekosoziala eta zorientasunaren inguruko hausnarketa bat eskaini zigun.

Bazkaria izan genuen ondotik Amezti Elkartean, eta kafearekin batera eman genion

hasmenta 'Baztan-Bidasoan alternatiba!' tailerrari. Bertan zenbait ildo landu genituen eta eskualdean lurreratu: etxebizitza, bizi eredua, osasun mentala eta trantsizio ekosoziala.

Hortik Elizondoko plazara joan ginen, gure aldarrikapenak jendarteratzeko elkarretaratzerara. Egunari akabaila emateko, Maddi Ane Txopereña, Kattin Madariaga eta Joanes Illarregiren eskutik bertso afaria izan genuen Mendin, eta giro ederrean hetsi genuen eguna gazteok.



Eguraldia lagun, egun osoko egitaraua izan zuten. AINTZANE ARIZTEGI

## Bizikletaren mantentze lanak egiteko saioak antolatu ditu Talde Ekosozialak

### TTIPI-TTAPA

Hilabetearen behin Elizondoko Ahaztuen plazan (Fantxike ondoan) bilduko dira eta nahi duenarendako katea urinez-tatzeko, balaztak tenkatzeko, martxak erregulatzeko... laguntza emanen dute. Lehenbiziko hitzordua maiatzaren

16an izan zen, eta hurrengoa ereiarioren 27an egingen dute, 19:00etan.

«Bizikleta eguneroko ibilgailu gisa bultzatzeko etengabeko eginahalean» ari da taldea; «erregai fosiletan oinarrituriko kontsumo kultura birpentsatu behar dugu».

## Enara Beorlegi eta June Azpirozten arte erakusketa ekainean

Enara Beorlegi eta June Azpiroztek arte birziklatuen, teknika mistoen eta ilustrazio digitalen erakusketa aurkeztuko dute Arizkunenean, ekainaren 12tik uztailaren 6ra. Aste tarte arratsalde eta ortzirale eta larunbatetan goiz eta arratsalde irekiko dute.

## Piano eta biolontxelo emanaldia ekainaren 16an Elizondon

Jokin Taboada pianistak eta Paula Azkona biolontxelistak kontzertua emanen dute ekainaren 16an Elizondon. Zinemaren historiaren ibilbidea egingen dute, soinu banden bidez. 19:00etan Arizkunenean izanen da hitzordua.



**instalazioak**  
**IGOGAILUAK**

PROFESIONALAK  
KALITATE-BERMEA  
IRISGARRITASUNA  
MANTENTZE LANAK

- 1 **KANPOKO IGOGAILUAK**  
Kanpoko fatxadur guztiak integratuak. Portal barutik sarbidea. Inpaktu eta enjacepen minimoak. Mugikortasun arazoak dituzten pertsonentzako sarbidea.
- 2 **BARRUKO IGOGAILUAK**  
Eskalerrak tartean integratuak. Sarbidea portal barutik, inongo estroparik gabe. Mugikortasun arazoak dituzten eta garri-alkilak duenentzako egokituak.
- 3 **IRISGARRITASUNA**  
Mugikortasun arazoak dituzten eta gauri-alkilak duenentzako portierako sarbidea egokitzen dugu. Adar egiten ditugu lanak, enjacepen minimoak sortuz.




**EZ ZAITEZTE KEZKATUI!**  
gu ardurabuko gara proiektu osoa landu, obra baimenak tramitatu, dirulaguntzen eskaerak egin eta gremioak koordinatzeaz.

Santiago, 73 | ELIZONDO | M 619 424 999 | suteia@suteiazaldain.com



Txistuarekin ederki aritu ziren Mikel, Jone eta Aitor. UTZITAKOAK

# Txistulari baztandarrak EHko txapelketan sarituak

Guraso baztandarrak dituen Izar Inbuluzketa orkoiendarrak 2. kategoriako txapela lortu du bigarren urtez

## TTIPI-TTAPA

Maiatzaren 11n eta 12an Euskal Herriko Txistulari Gazteen II. Txapelketa izan zen Bilbon, Euskal Herriko Txistulari Elkarteak eta Bilbao Musikak antolatua. 38 gaztek parte hartu zuten, hiru kategoriatan: 8-12 urtekoak, 13-16 urtekoak eta 17-25 urtekoak.

Hainbat baztandarrek parte hartu zuten txapelketan, baita emaitza onak lortu ere. 1. kategorian Mikel Alzate Cordoba erratzuarrak bigarren postua lortu zuen, eta guraso baztandarrak dituen Jone Inbuluzketa Arroabarrenek hi-



Txapela lortu zuen bigarrenaz Izarrek.

rugarrena. 2. kategorian Izar Inbuluzketa Arroabarrenek lortu zuen txapela bigarren aldiz, eta Aitor Ripa Eritze iruritarrek lortu zuen hirugarren postua. Zorionak!



MAIALEN IANTZI

## Berroetako bestak bikain joan dira

Denetik izan dute aurten Berroetako bestetan: baztan zopak, mutxikoak, bertsoak, paella lehiaketa, dantzaldiak, herri kirolak... Maialen Iantzi herritarrek azaldu duenez, «arras besta parte-hartzaileak izan dira eta herritarrek gogotik disfrutatu dituzte. Gora Berroetako bestak!».

JOSENEA  
ZONE AUTO

ZURE ZERBITZURA:

Biriketa-  
Ulsteren  
abaketa

Eder-  
ogin  
Biluzak

Olinu  
abaketa  
Porramak

KALITATEKO MANTENTZE-LANAK  
PREZIORIK ONENEAN

Garbiketa-zentroa

Gasoldegia

Auto-garbitegi automatikoa

Taller mekanikoa

Hitzordua telefonoz edo whatsapp bidez:

+34 608 791 971

+34 948 599 236 · [www.josenea.es](http://www.josenea.es) · [centrauto@josenea.es](mailto:centrauto@josenea.es)

TAILERRAREN ORDUTEGIA: Astelehenetik ostiralera : 08:00 - 13:00 eta 14:00 - 18:00 Gasolindegia: 24ordu/24

Josenea Zone Auto (Dantxarriko mugan) Ctra. N-121-B Km 72,5 Dantxarrieta Nafarroa.

BRIKO  
BAZTAN, SL

Drogeria · Garbiketa produktua  
Ferreteria · Sukaldeko tresnak  
Mozorroak · Papertegia  
Kiroleko eta mendiko jantziak  
Moda · Oinetakoak  
Laneko arropa · Bitxiak  
Lurrin-denda  
Kosmetika, Elektronika  
Telefonoak · Poltsak eta mailetak  
Etab.

T. 608 016 052

San Andres, 66 · NARBARTE

(Sarrera Legasatik)



Haurrak jostetan jostaleku berrituan. MARIFA ETA KORO

## Haurrek jostatzeko tokia dute kolunpio eta joko berriekin

Frontoi zaharreko eremuan paratu dituzte, haurrek marrazkien bidez egindako proposamenak kontuan hartuz

### MARIFA ETA KORO

Haurrek jostatzeko toki berria dute maiatzetik honat. Herriko etxearen lanak direla eta, frontoi zaharreko eremua ttititu behar izan zuten, eta aitzaki horrekin kolunpio eta joko berriak jartzeko aukera izan dute. Zein joko jarriko ziren erabakitzeke, haurrek beraiek izan zuten eskatzeko aukera, eta bakoitzak marraztu zuen gustukoa ikusten zuen jostatzeko tokia. Horiek kontuan hartuta (eta aurrekontua ere, bistan da) aski toki ederra daukagu orain herriko etxearen ondoan.

Hauen aitzinetik zeuden kolunpioak duela 20 bat urte jarri ziren, baino herriak izan zituen lehenbizikoak 1970eko hamarkadakoak izan ziren. Haiek elizargietan eman ziren eta burdin azkarrekoak zirenez, denbora luzez iraun zuten.

Eta oraino gibelago joanez, lehengo denboretako haurrak plazako eskaileretan aritzen ziren txirristan: bazterreko aldeko zimentazko maldatzuan lurra pittat botatzen zuten (hobekiago errestatzeko), eta hantxe ibiltzen ziren goititik beheiti jausten (galtzak ederki zilatatu arte maiz aski)



MARIFA ETA KORO

## Xermani agurra plazatxo berrian

Berriki sortu den plazatxoan egin da lehenbiziko ekitaldia, maiatzaren 18an Xermanen errautsen despedida hor egin baitzen. Auresku bat, olerki bat eta Ruper Ordorikaren kantu bat izan dira plazatxo horrek bildu dituen lehenbiziko ekitaldiak, Xerman gogoan.

## Mendiko suteen kontrako plana lantzen ari da udala

PAMIF izeneko (Plan de Actuación Municipal por Incendio Forestal) mendiko suteen kontrako plan baten zirriborroa lantzen ari dira udalean. Behin onartuta, herritarren artean zabalduko dute, denak jakinaren gainean egoteko. Bien bitartean, herriko suteetako ur harguneak non dauden jakin nahi duten boluntarioek Herriko Etxean izena ematen ahal dute. Helburua da, noizbait behar izaten bada, pertsona horiek laguntzeko prest egotea eta nola jokatu behar duten jakitea.

## Herri Haitadarik ez da eginen herrian udazken honetan

Pandemiak geratu zuen Herri Haitada ekimen polita berriz ere martxan jartzera animatu ziren gazte batzuk eta Zugarramurdin egitekoa omen zuten udazken aldera. Hau horrela, Sara, Ainhoa, Urdazubi, Zugarramurdi, Bera eta Etxalarren artean antolatzen zen egun pasa berriz gauzatzeko bidean zen eta herriz herri hasiak ziren taldeak osatu eta bertzelako prestaketetan egiten. Baina, itxura batean, arazo frango sortu dira eta heldu den urtera gibeleratzea erabaki dute.

**BAZKARI BEREZI BAT? ONGI ETORRI GURE ETXERA**

**SUTONDO**  
PARRILLA

Euskal Herriko gastronomiaren zaporeak parrilla usain gozoarekin.

IBARDIN - BERA  
Tel. : +34 948 631 111

ventabrok.com



Gazteak giro onean ibili ziren. ARANTXA ETA IRAIA

## Giro ederrean joan dira aurten ere Salbatore bestak

Txupinazoaren aitzinetik emakumeek jokaturako bote luze partidarekin hasi eta 250 bildu zituen zikiroarekin bukatu ziren

### ARANTXA ETA IRAIA

Salbatore bestak ederki joan dira. Txupinazoaren aitzinetik nesken bote luze partidaren ikusteko lagun andana hurbildu zen herriko frontonerat eta ezkila jotzearekin eta suziri botatzearekin hasi ziren bestak. Egun handian meza eta gero aperitifa izan zuten. Aurtengo lehen berritasunak, bertso poteoak, plaza eta osatuak animatu zituen, ondo ko paelladarekin gaualdi eder bati hasiera emanez. Ortzira lean, herriko haur pilotari eta musikariek haien talentua erakutsi zuten eta gero kon-

tzertuez gozatzeko aukera izan zen. Ugarana emakume elkar-tekoek ere urteroko bazkaria egin zuten, lagun talde ederra elkartuz. Azkenik, larunbatean 250 pertsona inguru elkartu ziren urtero gisa zikiroaz gozatzeko eta mexikarren eta Gabezin erromeria musikarekin eman zitzaion egun borobilari akabera.

Igandean, pilota partidaren ondotik, boletoen zozketa egin zuten. Hauek dira zenbaki sarituak: 3987, Oihan Mujikak saldua; 1715 Urlei Sansiñenak saldua; 2142 Jaione Perurenak saldua.



Ugarana emakume elkartekoek bazkaria izan zuten. ARANTXA ETA IRAIA

### Eskolako ikasleak Huescan kanpaldian izan dira

Salbatore besten aitzinetik, Urdazubi eta Zugarramurdiko eskolako ikasle koxkorrenak Huescan izan ziren ikasturte bukaerako kanpaldian. Aski ongi pasa zuten Riglos inguruan, rafting, eskalada eta bertzelako jarduera diberti-garriekin gozatuz.



Eskolako ikasleak Huescan.

### Landa haurtzaindegiak eta Mugarkik udalekuak prest dituzte herrian

Landa Haurtzaindegiak, 3-7 urte arteko haurrei zuzendutako udalekuak antolatu ditu. Bi txandatan egingen dira, uztailaren 8tik 24ra, eta uztailaren 29tik abuztuaren 9ra (Kultur etxean elkartu eta 09:00tatik 13:00tara). Izen ematea ekainaren 17ra arte.

Mugarkik ere, 8-16 urte arteko gaztetxoei zuzenduriko multijarduera campusa antolatu du. Hau ere bi txandatan egingen da, uztailaren 22tik 24ra lehen, eta abuztuaren 5etik 9ra bigarrena (09:00-14:00). Hemen ere lehendik eman behar da izena.

### San Isidro eguna giro onean ospatu dute nekazariak

Maiatzaren 15ean, San Isidro egunez, urteoroko ohiturari eutsiz hainbat nekazari elkartu ziren. Lehenik meza entzun zuten eta gero, Zugarramurdiko Azketa ostatuan bazkari eder batekin eta giro eta konpainia onean ospatu zuten beraien eguna baserritarrek.



San Isidro egunean Azketan.

### Yusuf Solmar-ek eskuratu du 1.500 euroko txekoa

Herriko besten ondotik, beti izaten da bertze hitzordu garrantzitsu bat herrian: Pentekoste besta, Dantxarinoko besta, aurten maiatzaren 20an ospatu dena. 1.500 euroko txekoa zozketatu zuten bentek eta Yusuf Solmar baionarra izan da sariduna.

### 'Akellarre' antzerkia ikusgai izan zen kultur etxean

Virginia Imazen Akellarre antzezlan ikusgai izan zen maiatzaren 24an kultur etxean, Ugarana elkarteak udalaren laguntzarekin antolaturik. Clown antzerki parodia baten bidez kritikarako, hausnarketarako eta baita umorerako lekua ere izan zen.

## Sara Oinez antolatu du Har Hitzak ekainaren 16an

Bi mendi ibilbide izanen dituzte aurten aukeran eta euskaraz egiteko gomita egin du elkarteak

### GANEX

Har Hitzak elkarteak Sara Oinez mendi ibilaldia antolatu du ekainaren 16rako. Bi ibilbide aukeran izanen dituzte aurten: luzeena, 25 kilometro luze eta 1.400 metroko desnibela duena eta laburra, 12 kilometro luze eta 500 metroko desnibela duena.

Ibilaldi luzeko izena ematea 06:30etik 07:30era egin behar da (15 euro) eta irteera 07:00etatik 07:30era eginen dute mendizaleek. Ibilaldi ttikiko izen-emateak, berriz, 08:30etik 09:15era egin behar dira eta irteerak 09:00etatik 09:30era.

### Ibilbidea


Ibilbide luzea Sarako plazatik abiatuta, Zuhalmendi, Santinazio (6 km, jan-edariak), ardi borda, Altsanga, Zizkuitz (12,5



Bi ibilbide aukeran izanen dira.

km, jan-edariak), Larun Ttiki eta Gomendiako lepotik (18,5 km, jan-edariak) igaroko da, berriz ere Sarako plazara itzuliz. Ibilaldi ttikia berdin hasiko da, baina ardi borda eta gero herrira bueltatuko da.

Antolatzaileek aipatu dutenez, osasun postuak jarriak izanen dira eta ez da inolako sailkapenik egonen, ez baita lasterketa bat. Itzulia euskaraz egiteko gomita ere egin du Har Hitzak elkarteak.



GANEX

## Neskek euskal ligako kopa irabazi dute

Sarako Izarra errugbi taldeko neskek Euskal ligako kopa irabazi dute, maiatzaren 19an Animainean jokaturako partidari Txingudi taldeari 43-12 irabazita. Gizonezkoek, berriz, Frantziako txapelketako final hamaseirenetan galdu zuten Racing Club Ponteilaren aurka (17-6).



GANEX

## Olhain ikastolako sagarnotegi bazkaria

Olhain Ikastolak maiatzaren 19an egin zuen bere sagarno besta eguna. Jendea bazen, 200 bat lagun etorriak egun horretaz baliatzera eta ikastola sustengatzera. Bazkari ederra izan zuten ikastolako burasok egin eta zerbitzatua eta bazkalondoa giro bikaina, jokoekin eta musikarekin.

## Aizpurua anai-arrebak Gazte Xilaba finalera

Ereiaroaren Ilean, larunbatean, 10:00etan Itsasuko Sanoki gelan jokaturako den Gazte Xilaba txapelketako finalean kantaturako dute Haira eta Unax Aizpurua herriko bertsolariek. Maiatzaren 17an Baigorri lortu zuten finalerako txartela Aizpurua anai-arrebek.



Haira eta Unax Aizpurua Baigorri.

## Beti Gaztekoek bazkaria ekainaren 8an Baratchartean

Beti Gazte elkarteak uda aitzineko bazkaria egingen dute ereiaroaren 8an, larunbatean 12:30ean, Baratchartea jate-txean. Txartelak ekainaren 3ra arte eskura daitezke 05 59 54 21 34 (Jeannot), 06 31 62 90 66 (Maite) edo 06 28 28 08 24 (Anita) telefonoetara deituz.

## Iruzurren kontrako informazio bilera ekainaren 3an

Agir prebentzioaren eskutik, iruzurrei kontra egiteko informazio bilera egingen dute ereiaroaren 3an, astelehenean 18:00etan Lur Berri gelan. Izan ere, presuna batzuk dohain azkarra dute bertzeen engainatzen, asmamen handiko metodoak erabiliz.







Joaldunek ederki girotu zuten aintzira inguruak. JL BESSONART

## Jendetza handia giro ederrean bildu du Herri Urratsek

Eguraldia goizean kili-kolo bazebilen ere, gero altxatu eta euskalzale anitz bildu ziren aintzira inguruan

**JL BESSONART**

Ez dakigu gehiago nola kalifikatu urtero bizi dugun Herri Urrats egun xoragarri hori, erran genezake mundiala. Eguraldia goizean kili-kolo zebilen, zirimiru edo lantxurda nagusi, aldiz joanago eta hobeto arratsaldera buruz. Jendetza bildu da, gaitzeko giroan, musika, dantza, kanta, janaria eta edaria xoko guzietan, betiko Herri Urratsen irudi ederra. Haurrak, gazteak, helduak... denak irrifarrez, zinez loriatzeko eguna. Eskerrak antolatzaileei, keinu berezi bat senpertar laborariei, urtez urte



Kuxkuxtu klikakoak lanean.

beraien landak uzten dituztelako autoen aparkatzeko, bihotz onaren erakusgarri. Orain datorren urteko ekitaldiari itzuliak gara, aurtengo Ortzadarra zerk ordezkatzuko ote duen?



JL BESSONART

## Kanita-Urrats maiatzaren 9an

Salbatore egunez, Kanita-Urrats ekitaldiak, publiko handia ekarrarazi du pilota plazara. Ikusmina sortzen dute artisauen eskulanez, bereziki arotzaren lanak, ingudea eta ola baliatuz. 5. edizioa iragan da maiatzaren 9an, hogeit ganibet-egile eta lekuko eskulangile eta ekoizleak beraien produktuekin.



JL BESSONART

## Bildotsaren besta eguna

Hitz batez erraiteko bikaina izan da Bildotsaren Eguna. 600 bazkaltiar mahainetan, animazio ugari: Hats Berri abesbatza, Ur Begi tanborrada, Les Joyeux musika banda eta Kolpez Blai taldeko perkusionistak (argazkian). Gasna egite erakusketa Benat eta Mirentxu Ezcurraren eskuetatik iragan da.

BARDIN 11780 Bera    BEHOIA 20305 Iruin    LUZAIDE 31660 Luzaide    DANTXARINEA 31712 Urdax

Jantzi-dendak · Lurrin-dendak · Bitxi-dendak · Supermerkatuak · Tabako-dendak  
Harategiak · Jabetxeak · Ostatuak · Sugardotegia

www.venta-peio.com    Tel. +33 9 72 10 40 20 (Fr.)    Tel. +34 948 625 130 (Es.)

Egunero irekia,  
astelehenerik  
igandera arte  
\*Abenduaren 29<sup>a</sup> eta  
urtarrilaren 7<sup>a</sup> izan ekin

## Errugbian hozka bat gehiago egin du SPUC taldeak

Nork atxik gure mutikoa, Frantziako R2 mailako 16. finalean garaitu dituzte Aute-riveko jokalaria (38-17) Vic de Bigorreko kirol zelaian, maiatzaren 19an. Aitzineko igandean, Herri-urrats egunean, gaintu zuten Ramonvilleko ekipoa (67-31), Urruñan.

## Erreka gizonezkoen eskubaloi taldea kopako txapeldun

Jendez gainezka zegoen Doneztebeko kiroldegian maiatzaren 18an jokaturako finalean 33-30 irabazi zion BM Ardoiri

### TTIPI-TTAPA DONEZTEBE

Denboraldi bikainari bukaera gogoangarria eman zion maiatzaren 18an Doneztebeko Erreka gizonezkoen eskubaloi talde nagusiak. Kopako finala Donezteben bertan jokatzeari egokitu zitzaion eta kiroldegia ttiki gelditu zen hurbildutako zale guztiei aterpe emateko: harmailak ez ezik, pista inguruak ere jendez gainezka, giro bikaina eta kiroltasun handikoa izan zen. Azkenean, 33-30 irabazi zion Errekak BM Ardoi taldeari, kopa eskuratzeko.

### Lauko finalerako sailkatu eta kopan txapeldun

Gisa honetara denboraldi bikaina borobildu du Errekak. Ligan, hasierako fasean bigarren izan zen, bi partida bakarrik galduta. Honela, txapeldunen faserako sailkatu zen eta laugarren izan zen (hain zuzen, azken partida Ardoiren kontra galdu zuten). Lekunberriko lau finalerako, beraz, liga osoan partida alerik ere galdu ez zuten BM Loyola egokitu zitzaion Errekari eta amore eman behar izan zuten,

gerora txapeldun izan zenaren kontra. Kopako finalerdian ere BM Loyola egokitu zitzaion, baina, ustekabearen, Donezteben garaipena lortu zuten Errekakoek (Loyolak denboraldi osoan galdu duen partida bakarra), finalerako sailkatuz. Zailena egingo ziren baina BM Ardoi ere talde handia da, ligako txapeldunordea. Halere, Errekak partida bikaina jokatu zuen larunbateko besta egun handian eta kopa etxean gelditzea lortu zuen.

Kiroltasun handiz jokaturako partida izan zen. Horren erakusgarri, bi taldeek elkarrekin atera zuten argazkia eta txapeldunaren kopa Luismi Apezetxea atezain beteranoak hartu zuen lehenik (53 urterekin kopako txapeldun) eta eskuz eskuz ibili zen gero, zaleei eskaintzarekin batera. Egun borobila izan zuten Donezteben maiatzaren 18an. Finalaren aitzinetik, poteoa musikarekin, kiroldegiaren irekieran ere musika, finala eta gero herri afari jendetsua izan baitzuten.



Kopako txapeldunak eta zaleak harmaila betetzen. ERREKA KE



Doneztebeko kiroldegia ttiki gelditu zen final historikoan.



Denboraldi osoan bezala, joko bizi eta ikusgarria egin zuten Errekak.



Erreka eta BM Ardoiko jokalariek eta entrenatzaileek elkarrekin, finala eta gero.



Luismi Apezetxea atezain beteranoa, kopa eskaintzen.



Kukuprakak eta Mitxoletak aurrez aurre izan ziren Donamarian. ADOS PILOTA

# Donamarian hasi da Adosen bertso-pilota Udaberri txapelketa

Ekainaren 8an jokatu da finala Azpeitian eta ekainaren 2ko Atarrabiako jaialdia Yala Nafarroan Palestinaren alde izanen da

## TTIPI-TTAPA

Ados pilota elkartearen Udaberri Torneoaren bigarren edizioa azken txanpan sartua da. Iaz bezala hiru pilotariko lau talde ari dira, bertsolari baten laguntzarekin. **KUKUPRAKAK:** Ruiz de Infante, Etxekolonea zubietarra eta Mujika, Sebastian Lizasorekin. **MITXOLETAK:** Iturriaga leiztarra, Ruiz de Larramendi eta Mendiburu, Maialen Akizurrekin. **BITXILOREAK:** Zabala, Barrokak eta Etxebeste beratarra, Aitor Sarriegirekin. **EGUZKILOREAK:** Orbegozo, Agirre eta Aldaregia, Nerea

Elustondorekin. Jaialdi bakoi-tzean bi partida jokatu ari dira, lehenengoa lau eta erdiaren barrenean eta bigarrena binaka. Ligaxkako bi talde hoberenen artean jokatu dute finala Azpeitiko Frontoi Txikin ekainaren 8an. Aitzinetik, ekainaren 2an Atarrabian jokatu den jaialdia Yala Nafarroan Palestinaren aldeko elkartearekin batera antolatu dute. Beraz, bertan biltzen den dirua palestinarrei laguntzeko izango da.

Txapelketako lehen jardunaldia Donamarian jokatu zuten maiatzaren 11n.



UTZITAKOIA

## 4x4 sokatira txapelketako azken saioa

Nafarroako launakako sokatira txapelketako azken txapelak eman zituzten maiatzaren 18an Txantrean. Emakumeen pisu arinean (240 kilo) Beti Gazte izan zen txapeldun, finalean Berriozarri irabazita. Gizonezkoetan (300 kilo) alderantziz: Berriozar txapeldun eta Beti Gazte txapeldunorde.



UTZITAKOIA

## Goiuri Zabaleta finalerdian

Nafarroako Foru Komunitatea torneoko finalerdia jokatzeko zuten Goiuri Zabaleta leiztarrak, Galeanorekin batera, maiatzaren 25ean Burlatan. Lehen faseko lehen bi partidak irabazi zituzten (maiatzaren 17an, Bakaikun, 22-15 irabazi zieten Etxegarairi eta Aldairi, argazkian).

## Amestoi eta Bergerot nagusitu dira Antxitoneko Onenak paleta txapelketan

### TTIPI-TTAPA ELIZONDO

Elizondoko Antxitonea trinketeak Onenak paleta txapelketa antolatu du laugarren aldiz, oraingoan Xauli elkartearen alde. Maiatzaren 11ko finalean, Urruñako Ramuntxo Amestoi eta Arnaud Bergerotek 40-26 irabazi zieten

Mattin Legarreari eta Axier Gamiori. Iaz ez, baina lau txapelketatik hiru irabazi ditu Urruñako bikoteak. Finaleren aitzinetik, hirugarren posturako partida Joseba Arizmendik eta Mikel Argaratek 40-26 irabazi zieten Iñaki Iantzirri eta Iñaki Urrutiari.



Finalistak, Antxitonea trinketeak eta Xauliko ordezkariak. ONDIKOL

# AGENDA

## MAIATZAK 30 - EKAINAK 13

INFORMAZIOA BIDALTZEKO: Tel. 948 63 54 58 edo info@ttipi.eus



ALTAXATA

### ETXALAR XXXI. Gasna Lehiaketa eta Artisau Feria

Ardi zakur lehiaketa, trikitilariak, lan tresnen erakusketa, bazkaria, merkatua, gasna lehiaketa eta kontzertua. Ekainaren 1ean eta 2an. Xehetasun gehiago 22. orrian.

### MUSIKA

#### DONEZTEBE

##### Korrontziren 20. urteurrena

Bear Zana pilotalekuan, maiatzaren 31n, 21:00etan.

##### Herriko abesbatza

Elizan, ekainaren 1ean, 19:30ean.

#### LESAKA

##### Lesakako Soinularien kontzertu dinamikoa

Iturbenako plazatik, ekainaren 7an, 19:30ean.

##### Musika Eskolaren kontzertua

Harriondoan, ekainaren 13an, 18:00etan.

#### LEITZA

##### Musika Eskolaren kontzertuak

Herri Aretoan, ekainaren 10etik 14ra.

#### BERA

##### Musika Eskolaren kontzertua

Herriko Etxeko plazan, ekainaren 10ean, 18:00etan.

### IKUSKIZUNAK

#### LEITZA

##### 'Baso magikoa'

Musika Eskolako ttikiekin. Herri Aretoan, maiatzaren 31n, 17:00etan.

##### Dantza garaikideak

Herri Aretoan, ekainaren 4an, 17:00etan.

##### 'Eraitsi SL' kale antzerkia

Goitibera antzerki taldearekin. Plazan, ekainaren 9an, 12:30ean.

#### BERA

##### 'Mugaz gain' antzerki jaialdia

Ekainaren 5etik 7ra.

##### Porrotx eta Marimotots

Kultur Etxean, ekainaren 13an, 16:00etan eta 18:00etan.

#### ELIZONDO

##### 'rr\_6\_erre(AH)la' errezitaldia

Maialen Lujanbiorekin. Arizkunenean, ekainaren 9an, 19:00etan.

### SOLASALDIAK

#### BERA

##### 'Su festak' liburuaren aurkezpena

Jon Urzelairekin. Berlandetan, ekainaren 2an, 12:00etan.

#### SARA

##### Iruzurren kontrako informazio bilera

Agir prebentzioarekin. Lur Berri gelan, ekainaren 3an, 18:00etan.

#### LEITZA

##### 'Zaindu Leitzaldea' egitasmoaren aurkezpena

Herri Aretoan, ekainaren 12an, 18:30ean.

### AZOKAK

#### ELIZONDO

##### Baztango Artisauak eta Zaporeak

Plazan, ekainaren 1ean eta 8an, 10:00etatik 14:00etara.

#### BERA

##### Bertako ekoizleen merkatua

Berlandetan, ekainaren 8an, 10:30etik 13:30era.

### ERAKUSKETAK

#### ELIZONDO

##### 'Braulio Iriarte. Legamiarekin, zerealarekin eta urarekin: ogia eta garagardoa'

Arizkunenean, ekainaren 3tik 28ra.

#### Enara Beorlegi eta June

##### Azpirozen arte erakusketa

Arizkunenean, ekainaren 12tik uztailaren 6ra.

#### GOIZUETA

##### 'Ura eta gizakiak'

Herriko Etxeko ganbaran, ekainaren 3tik 17ra.

### JARDUNALDIAK

#### ELIZONDO

##### Mintzodromoa

Plazan, maiatzaren 30ean, 18:00etan.

#### DONEZTEBE

##### XVI. Errekaren Eguna

Ekainaren 1ean.

##### Mintzodromoa

Intzakardi parkean, ekainaren 6an, 18:00etan.

#### ZUBIETA

##### Bestaberri Eguna

Ekainaren 2an.

#### LEITZA

##### Sagardo Eguna

Plazan, ekainaren 8an, 19:00etan.

#### SUNBILLA

##### Malerrekako eta Bertizaranako Gazte Eguna

Ekainaren 8an.

## «Suediako kulturak eta unibertsitateak aunitz harritu naute»

IDOIA URRA FERRANDEZ ELIZONDOKO GAZTEA



Bidaiatzea maite duen neska gaztea da Idoia Urra Ferrandez elizondorria, «eta nire denbora librean irakurri, musika entzun, zakurrarekin mendira joan eta lagunekin ateratzen naiz». Matematika ikasketak egiten ari da Madrilen, eta aurten Stockholmera joan da Erasmus programarekin.

### Zenbakien artean

Ttikitrik argi izan du matematika ikasi nahi zuela; «betitik izan dut erraztasuna matematikarako eta nire irakasgai gustukoenetarikoa izan da. Hortaz, zer ikasi erabaki beharra nuenean, ez nion buelta aunitzik eman».

«Karrera zaila» dela aitortu du, «baina aunitz ikasi eta arras konstantea izan behar delakoz. Aitzinetik matematikari buruz izaten den ideia eta karrera arras desberdinak

dira». Hala ere, «niretako, aldaketarik haundiena izan da aunitz ikasita ere ezin duzula ziurtatu gaindituko duzunik».

### Elizondotik Madrilera

«Madrilgo Unibertsitatea hoberenetarikoa dela erran zidan institutuko irakasle batek»; eta bi aldiz pentsatu gabe, harat joan zen ikasketak egitera. «Elizondo ttikiegia zela iruditzen zitzaidan, eta hiri haundi batean bizitzea eta mila gauza egiteko aukera izatea espermentatu nahi nuen».

## «TTIKITATIK ARGI IZAN DUT MATEMATIKA IKASIKO NUELA»

Aldaketa «arras haundia» izan zela azaldu du; «jende pila bat leku guzietan, karrikan ez duzu inor ezagutzen, gauzak egiteko aukera ugari egunerokoan... baina aldaketarik haundiena, naturaz ingururuta egon beharrean, bat-batean hiriaren mugimendu guziaren erdian egotea izan da».

### Egonaldia Suedian

Bidaiatzeko grinari segituz, Stockholmeko Unibertsitate-ra joan da aurten Erasmusean. «Arras gustura nago eta dibertigarria da leku eta kultura guzietako jendea ezagutzea, eta bertze hizkuntza batean solastatzea. Gainera, gauza pila bat nire kabuz eta bakarrik egin behar ditut, eta pertsonalki heltzen ari naizela sentitu dut. Eta horrek arras ongi sentiarazten nau».

«Bertako kulturak» harritu zuen gehien Suediara ailegatzearan. «Etxean egoteko ohitura haundia dute, karrikan ez da jende aunitzik izaten. Gainera, suediar gehienak arras hetsiak dira, eta zuk ez badietzu lehenbizi solastatzen, seguraski ez dizute solastatuko. Metroan, adibidez, isil-isilik egoten dira, eta hori kristoren aldaketa da Madrilekin konparatuta».

Klasean ere alde haundia ikusi du; «matematika ikasteko metodoa berdina dela erranen nuke, baina orokorrean aunitz harritu nau jendea ikasketetan arras kontzentratuta dagoela ikusteak; galdera aunitz egiten dituzte, klaseak isil-isilik aditzen dituzte, goizetik jendea ikusten da unibertsitatean ikasten... Bertze aldaketa nabarmena ordute-

giak dira; bortz irakasgai aldi berean izan beharrean, bina-ka ematen dituzte. Adibidez, bi irakasgai izan ditut urtarrietik martxora, astean bi klase egun bakarrik izanda, eta azterketak egin ondotik, bertze bi irakasgai kurtsoa akitu arte. Egia erran, metodo hau arras gustukoa dut».

### Zero azpiko mundua

Stockholmek alde onak eta txarrak ditu: «neguak ilunak eta hotzak dira. Egun batzuetan -20 gradutara ailegatu ginen, baina normalean -5 gradu inguru egiten zituen, nahiz eta sentsazio termikoa guttiagokoa izan. Baina hotza ez dago horren gaizki, beti paratzen ahal duzulakoz arropa gehiago; okerrera, dudarik gabe, iluntasuna da. Negua nahiko tristea zen, arratsaldetako hiruretan iluntzen zuen eta ia ez genuen eguzkia ikusten, beti lainotuta zegoelakoz». Orain, aldiz, «goizeko hiruretan argi aunitz izaten da, eta gaez ez du guztiz iluntzen».

Baztango mendiak falta ditu, «Stockholm guztiz laua dala-koz». Hala ere, «baso eta laku pila ditu, neguan hormatzen direnak, eta hainbat jarduera egiten ahal ditugu; lakuetan bainatu edo patinatu, sauna-ra joan...». Gainera, «hiri batek eskaintzen ahal dizun guzia du, masifikatuta egon gabe».

Inguruko herrialde eta lekuak ezagutzeko aukera ere izan du: «Laponia, fiordoak, Danimarka, Finlandia, Herrialde Baltikoak... Fiordoak gustatu zaizkit gehien, ikaragarri politak dira eta hango uretan bainatu ginen, glaziarrak igo genituen, itsasontzian ibili ginen... dudarik gabe, politena».


Etorkizunera begira, «karre- ra akitu eta master bat egin nahiko nuke. Ondotik, matematikari batek enpresa batean duen lana ezagutu nahiko nuke».

## «NEGUAN -20 GRADUTARA AILEGATZEN GINEN»

## MERKATU TTIKIA

### ETXEBIZITZAK

#### ERRENTAN EMATEKO



**ALMUÑECAR.** Granadako kostan, partikular batek lagun bat edo birtentzako apartamentua errentan emateko du, abuztuko bigarren hamabortzaldian. Lehen lerroan, bista zoragarriak dituen terrazarekin, aire girotuarekin eta hagitz ongi hornitua. ☎658 94 37 02.

**LEGASA.** 81m<sup>2</sup>ko pisua errentan emateko. Eguzkitsua, 3 logela, bainugela eta sukalde-egongela, beheko suarekin; berogailua. Bizitzera sartzeko prest. Badu 22 m<sup>2</sup>ko lokala. Salmentako aukera. ☎639 53 06 59 / 606 58 96 36.

**BERA.** Herrigunean pisua errentan emateko. 3 logela, igogailua, garajea eta trastelekuarekin. ☎680 54 98 08.

#### SALGAI

**DONEZTEBE.** 100 m<sup>2</sup>ko pisua salgai, jubilazioagatik. Hiru balkoierekin. ☎619 80 87 23.

#### LANA

##### ESKARIAK

**BORTZIRIETAN** emakumezkoa garbiketara eta haurrak edo adinekoak zaintzen lan egiteko prest. Esperientziarekin. ☎623 57 02 44.

Gizonezkoa lan bila. ☎672 96 06 00.

17 urteko gazte bat udan haurrak zaintzen ariko litzateke, ahal bada Doneztebe aldean. ☎634 14 30 29.

#### ESKAINTZAK

**BERA.** Ansoneta ostatu-jatetxean zerbitzaria behar dute egun osoko lanaldian aritzeko. ☎649 33 77 23.

Astean behin etxeko garbiketara lanean laguntzeko pertsona baten bila ari dira. ☎659 73 96 77.

**ELIZONDO.** Bidaide fisioterapia zentroan fisioterapeuta behar dute. Lehenbailehen hasteko. Bidali curriculum: [bidaidefisioterapia@gmail.com](mailto:bidaidefisioterapia@gmail.com). ☎636 58 30 34.

Txoferra behar da kamioia gidatzeko. Gidabaimena C+E, trailerra lonarekin. Deitu edo idatzi. ☎608 41 53 32. [bihotz\\_alfonso@hotmail.com](mailto:bihotz_alfonso@hotmail.com).

**ELIZONDO.** Fruta-denda batean, astelehenetik larunbatera lanaldi erdiz aritzeko, langilea behar du.

## IRAGARKIA JARTZEKO:

☎ 948 63 54 58

🌐 [www.erran.eus](http://www.erran.eus)

☎ 744 48 43 61

@ [info@ttipi.eus](mailto:info@ttipi.eus)

Sail honetan **IRAGARKIA** jartzeko **10 euro** ordaindu behar da **ARGAZKIAREKIN** jarri nahi izanez gero **12 euro** iragarki bakoitzeko **GEHIENEZ 25 HITZ** onartuko dira

TTIPI-TTAPA aldizkariaren 2 zenbakitan eta ERRAN.EUS webgunean hilabete batez agertuko da

Ordainketak Rural Kutxako **ES86 3008 0080 5607 0330 4329** kontuan **Bizum** bidez (744 48 43 61)

TTIPI-TTAPAK ez du bere gain hartuko argitaratu diren iragarkien ondorioz sortu ahal diren operazio bidegabeken erantzukizunik

Bidali curriculum: [kifrut@gmail.com](mailto:kifrut@gmail.com).

**BERA.** Ibardingo Benta Gorrian zerbitzaria behar dute 12:00etatik 16:00etara aritzeko. Frantsesa jakitea kontuan hartuko dute. Bidali curriculum edo ditu. [bentagorria@hotmail.com](mailto:bentagorria@hotmail.com). ☎618 00 27 31.

**URDAZUBI.** Dantxarineko Mikelebordan sukaldeko laguntzailea behar dute. Urte osoko lana. ☎690 38 81 34.

**ELIZONDO.** Auxiliarrak behar dituzte Elizondoko zahar egoitzan lana egiteko. Goizez, arratsaldez eta gauzez lan egiteko. Bidali curriculum: [marazlbaztan.com](mailto:marazlbaztan.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen zerbitzaria behar dute asteburuetan eta jaieguneetan lan egiteko. Bidali curriculum: [rrhh@irrisarri-land.com](mailto:rrhh@irrisarri-land.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen ontzi-garbitzailea behar dute astelehenetik ortziralerara lan egiteko. Bidali curriculum: [rrhh@irrisarri-land.com](mailto:rrhh@irrisarri-land.com).

**IGANTZI.** Irrisarri Landen kamioi gidaria behar dute udararako. Beharrezko gidabaimenak: B + CE + DE + CAP (bidaia-iragarkia edota merkantziak). Bidali curriculumak: [rrhh@irrisarri-land.com](mailto:rrhh@irrisarri-land.com).

**ETXALAR.** Usoa kooperatibak langile bat behar du, udan hasteko.



## BASERRIA

#### BEHI-AZIENDAK

Aretze gizenak:

Idixkoak: €/kg kanal

- Extra 5,45 €
- 1.koa 5,33 €
- 2.koa 5,21 €

Urruxak: €/kg kanal

- Extra 5,56 €
- 1.koa 5,42 €
- 2.koa 5,31 €

Oharra: prezioak 180-220 kg kanalean pisatzen duten aretzeenak dira

Aretze ttiakiak

- (15 egun ingurukoak).

Aretze mestizoak

- Urruxak 150,00 €
- Idixkoak 210,00 €

Aretze nabarrak

- Urruxak: 50,00 €
- Idixkoak 90,00 €

#### ZALDI-AZIENDAK

Zaldikoak: €/kg

- Sortu berriak: 5,49/5,59 €
- Zaldi-behorrak: 2,52/2,69 €

#### ARDI-AZIENDAK

Bildotsak

- 6-8 kilokoak: 8,10/8,20 €
- 8-10 kilokoak: 8,20/8,90 €

#### ZERRI-AZIENDAK

Zerrikumea (19 kilo): 80 €

Zerri gizona 1,800 €

Zerramak 0,970€ kg/bizirik

Datu iturria: Nafarroako Gobernua maiatzaren 10etik 17ra bitarteko prezioak)

Bidali curriculum: [usoakooperati-ba@gmail.com](mailto:usoakooperati-ba@gmail.com). ☎615 70 52 15.

**BAZTAN**go enpresa batean langilea behar dute. Lanaldi osoan aritzeko. Astelehenetik ortziralerara. ☎948 59 23 25.

## ZERBITZUAK

### KLASE PARTIKULARRAK

**MALERREKA** inguruan klase partikularrak emateko prest. Irakaskuntzan esperientzia duena LHn, DBHn eta Batxilergoan. ☎622 31 09 68.

## ANIMALIAK

### SALGAI

3 ahari salgai: urtebetekoa, bi urtekoa eta sei urtekoa. ☎659 08 14 22.

### OPARITZEKO



**ETXALAR.** Zakur bat, 5 urtekoa eta bizi-bizia, oparitzeko. ☎627 01 98 26.



Artzain zakur eta border collie nahasketako zakurkume emea opari. ☎652 32 95 81 / 636 11 32 44.



Katakume jostariak eta goxoak etxe bila. Ama arront ehiztari ona. ☎652 75 08 17 / 948 61 50 05.



Border Collie arrazako 2 urteko zakurra oparitzeko. ☎609 48 60 52.

**MOTORRAK**

**SALGAI**



Ford Focus bat salgai. Gasolina. 125 zaldi. 2018koa. 32.104 km. ☎653 70 79 09.



Mercedes B200 autoa salgai. Kotxe ona, automatikoa, garajea egondakoa. 173.000 km. 7.500 euro. ☎675 60 35 27.



Kilometro dezente dituen Audi A3 kotxea salgai. ☎659 82 66 09.

**TAILERRAK**



**SANTESTEBAN  
TAILERRAK**



**RENAULT MEGANE  
1.5 DCI - 115 CV  
2019 URTEKOA  
40.500 KM**

[www.talleressantesteban.com](http://www.talleressantesteban.com)

DONEZTEBE - T. 948 450 282  
info@talleressantesteban.com

**DENETARIK**

**SALEROSKETAK**



Pago egurra salgai, bi neurritan, ekonomikarendako eta lurreko suarendako, etxera eramateko zerbitzua barne. ☎690 08 56 65.



Tximinia salgai. Prezioa negoziagarria. Neurriak; Altuera: 130. Sakonera: 110. Zabalera: 145. ☎644 01 54 98.

90 belar fardo saltzeko. ☎678 72 83 16.



Lurra iraultzeko makina salgai. ☎650 21 00 95.

**URTEBETETZEAK**



Zorionak **Oinatz Sarratea Arretxea**, 8 urte bete dituzu, jada!! Zein azkar pasatzen den denbora! Muxu erraldoia familiarean partetik, eta bereziki zure anai Julenen partetik.



Narbarteko **June Martin Argainek** maiatzaren 26an 10 urte bete ditu. Aunitz urtez familia guzieren partez, baina bereziki bere ahizpa Irairen partez.



## Herencias y Gestión

Zuregandik hurbil gaude

Mugaz gaindiko herentzien onarpena

Gizarte segurantzaren pentsioen eskaera

Herentziari lotutako gatazketan bitartekaritza

Santiago 55, ELIZONDO ☎ 948 59 67 11 - 610 40 18 36  
[www.herenciasygestion.com](http://www.herenciasygestion.com) • [herenciasgestion@gmail.com](mailto:herenciasgestion@gmail.com)

**KULTURKARI**  
Diseinu grafikoa | Publizitatea  
[www.kulturkari.com](http://www.kulturkari.com)

### Jatetxe eta ostatuak

Menuak, kartak, kartelak, mahai-oihalak...

URTEURRENA

**Maite  
IPARRAGIRRE IPARRAGIRRE**

Etxalarren, 2021eko maiatzaren 22an,  
45 urte zituela  
**III. URTEURRENA**

*Beti irribarrea zenuen lagunmin gauza denen gainetik aitzinerat ekin bizitzari helduaz gogo guziekin indar hau utzi duzu betiko gurekin maite izan zaitugun familiarekin.*



ZURE FAMILIA

URTEURRENA



**Vicente  
ALMANDOZ LARRAIN**

Irunen, 2021eko ekainaren 9an  
**III. URTEURRENA**

*Gogoan zaitugu.*

ZURE FAMILIA

## EZKONTZAK

- **Eduard Lapeyre** eta **Sophie Auriol** maiatzaren 11n, Saran.

## HILBERRIAK

- **Felipe Santamaria Alcocer**, Elizondokoa, maiatzaren 10ean, 82 urte zituela.
- **Daniel Goietxe Arizaleta**, Zugarramurdikoa, maiatzaren 10ean, 89 urte zituela.
- **Juan Bautista Telletxea Goikoetxea**, Ezkurrakoa, maiatzaren 11n.
- **Maritxu Alduntzin Caballero**, Leitzakoa, maiatzaren 12an, 89 urte zituela.
- **Bittorina Etxenike Mendikoa**, Iruitakoa, maiatzaren 15ean, 90 urte zituela.
- **M<sup>a</sup> Carmen Baraibar Ezkurdia**, Leitzakoa, maiatzaren 15ean, 81 urte zituela.
- **Jose Maria Otxandorena Juankorena**, Arraiozkoa, maiatzaren 17an hil zen, 65 urte zituela.
- **Ignacio Zubiria Apeztegia**, Lesakakoa, maiatzaren 18an, 92 urte zituela.
- **Juan Mari Iturria Mazizior**, Arantzakoa, maiatzaren 19an, 78 urte zituela.
- **Luis Alzuguren Esteberena**, Berakoa, maiatzaren 19an, 83 urte zituela.
- **Presentacion Mazizior Larralde**, Arantzakoa, maiatzaren 21ean, 90 urte zituela.
- **Valentin Endara Irazoki**, Berakoa, maiatzaren 21ean, 82 urte zituela.

**IRACHE**  
tanatorioak

Nafarroako familien zerbitzura 1976tik

BERA | DONEZTEBE | ELIZONDO | LESAKA | LEITZA

ETXEETAKO ZERBITZUA  
Trasladoak Iruñea, Donostia eta Irungo ospitaleetatik edozein herritara

24 948 63 74 04 / 948 19 70 70  
www.tanatoriosirache.es

Baztan Bidasoa | Ehorzketak

BAZTAN  
ELIZONDO · Santiago Kalea, 79  
MALERREKA · DONEZTEBE  
Mourgues etorbidea, 24

Baita BERTIZARANA, BORTZIRIAK, URDAZUBI ETA ZUGARRAMURDIKO ETXEETAKO ZERBITZUAK ere.

24 ORDU | 365 EGUN | **948 48 95 50**  
info@funerariabaztanbidasoa.com

Betiko taldea zu laguntzeko

**Oroigarriak**

- Pertsonalizatuak
- Oroigarri bikoitzak edo sinpleak
- Hainbat neurri eta kopuru
- Fotomuntaketak eta argazki-moldaketak
- Ereduak aukeran
- Gutun-azalekin entregatzen dira





**KULTURKARI**  
Diseño gráfico | Publicitate  
www.kulturkari.com  
Tel. 948 63 54 58



**IZARRA**  
HERRI, ZURE ONDOAN ANGEA NOLANDO

Gure burra, gure jendea, gure sustraiak








TANATORIOAK

- ELIZONDO
- BERA
- DONEZTEBE
- ARANTZA
- IGANTZI

24 h Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

948 05 90 90 www.izarratanatorio.com



## KONTATU KONTUAK



BAZTAN-BIDASOKO PENTSIODUNEN MUGIMENDUA

**Pentsiodunen hilabeteroko hitzordua.** Maiatzeko elkarretaratzea maiatzaren 20an egin zuten Baztan-Bidasoko Pentsiodunen Mugimenduko kideek. Elizondon egin zuten hitzordua eta 36 lagun bildu ziren. Orain arteko helburuak alde batera utzi gabe, proposamen berriak lantzen ari direla jakinarazi zuten.



SUNBILLAKO ESKOLA

**Malerrekako eskola ttiketako ikasleak igeriketan.** Malerrekako eskola ttiketako lehenbiziko eta bigarren mailako ikasleak igeriketan ibili dira. Apirilean hasi eta zortzi saio egin dituzte guztira. Aste honetan egitekoa zuten azkena, baina diploma eta domina banaketa eta gosaria joan den astean egin zituzten. Udan igerilekuan ibiltzeko prest dira neska-mutikoak!



UTZITAKO ARGAZKIA

**Mendekoste Eguna Dantxarinean.** Dantxarineko Merkatarien Elkarretak antolatuta, Mendekoste Eguna ospatu zuten maiatzaren 20an Dantxarinean. Egitarauaren barranean, Dantxarinean erabiltzeko 1.500 euroko txekoa zozketatu zuten eta Yusuf Solmar bai-narrari tokatu zitzaion. Horrez gain, tren, puzgarriak, musika, euskal dantzak, sagardoa, pintxoak eta herri kirol erakustaldia izan zituzten.



MIRENTXU IBARGARAI

**Gazte Xilabako finala.** Maiatzaren 17an egin zuten Ipar Euskal Herriko Eskolarteko Bertso Txapelketa edo Gazte Xilaba txapelketa-kanporaketa. Hamabi bertsolarietatik sei sailkatu dira ekainaren 1ean Itsasun eginen den finalera, tartean, Haira Aizpurua eta Unax Aizpurua saratarrak. Orduan erabakiko dute zein den txapelduna, baita zein sailkatuko diren Euskal Herriko Eskolarteko finalera ere.



JUAN MARI BARRIOLA

**'Baga biga higa' emanaldia Leitzan.** Maiatzaren 20an, Mikel Markezek eta Eñaut Elorrietak *Baga biga higa* emanaldia eskaini zuten Leitzako Herri Aretoan. Amazabalgo ikasleei zuzendutako saioa izan zen eta 200 bat ikasle elkartu ziren. Euskal musikaren historia errepasatu zuten, 60ko hamarkadako doinuetatik abiatu eta gaur egunera arte.



JAVIER CAMPOS

**Bidasoko Bide Berdea Elizondoraino luzatuko dute.** Nafarroan trenbidea berreskuratzeko proposatu duten bide berriak 15,3 kilometro luze izanen ditu, batez ere trenbide zaharrear eta, zenbait zatitan, herriko bide eta errepedeetan eginen dute. 1.815.447,27 euroko inbertsioa egin beharko dute eta Next Generation EU Europako funtsen bidez finantzatua izanen dela iragarri dute.

# PLAZAN BAZAN

## DOMINOAN



Urtebetetzeetarako oso aproposa den domino honek sei irudi ditu: banderatzxoak, kandela, tarta zatia, puxika, operia eta zorion txartela. Bete lauki zuriek, bakoitzari dagokion irudia marraztuz.

## ZORIONAK!

IRATI OSKARITZ EZKURRA

854. aldizkariko irabazlea zara!



## PASTELA

Bete itzazu sudoki honen hutsuneak PASTEL hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (P, A, S, T, E, eta L). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Marrazkiak: Garbifé Ubeada (Alumni)

## Plazan bazan egiteak BADU SARIA!

Egin denbora-pasak, eta bidali argazkia emaitzekin,  
Ttipi-Ttapako Whatspera: (0034) 744 48 43 61  
zure izen-abizenak jarrita.  
Ondoan duzun sortaren zozketan parte hartuko duzu!

Laguntzailea:

ibaizabal



## PASTELA



Maripurtzili atsegin zaion bizkotxoak honako osagai hauek ditu: hiru arrautza, ontzi bat irin, ontzi bat gozoki, ontzi bat olio, zorrotxo bat legamia, pota bat jogurt, limoi bat eta txokolatzeko krema. Zenbat bizkotxo aterako zaizkio?



**INTERNETEN ERE BAI!**

Kontsultatu soluzioak  
[www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak](http://www.PlazanBazan.eus/kioskoa/soluzioak)

<http://plazanbazan.eus/>

**Ttipi Txartela**rekin  
beti irabazten da!

DESKONTUAK, ZOZKETAK...  
TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA  
MUSU-TRUK  
-%80 ko DESGRABAZIOA  
ERRENTA AITORPENEAN  
Eskatu zurea: 948 63 54 58

Informazio gehiago:  
TTIPI-TTAPA  
Koskontako bidea, 7 LESAKA  
T. 948 63 54 58 | M. 744 48 43 61  
info@ttipi.eus | erran.eus  
www.ttipi.eus/ttipi-txartela

**854** zenbakiko irabazleak >



**ZOZKETAK**

**Donostiako Aquariuma - Bi sarrera**  
Angel M<sup>a</sup> Manterola Etxeberria | IGANTZI  
**Onddo ta punto - Kamiseta bat**  
Alejandro Santesteban | ZUBIETA  
**Hara Bi - Kamiseta bat**  
Ainhoa Arretxea Irigoien | IRURITA  
**BKZ Abentura - Sarrera bat**  
Miguel Otxotorena Arangoa | LEITZA  
**Salting Iruñea - Bi sarrera**  
Jabier Caballero Otaegi | ARESO  
**La Rhune - Sarrera bat**  
Juan Pedro Goñi Telletxea | OIZ  
**Fagoa - Bi pertsonendako bizikleta itzulia**  
Tomas Korteza Sarratea | ZIGA  
**AMA-UR - Garagardo lote bat**  
Jose Antonio Ubiria Maia | LESAKA  
**Ibaizabal - Lau liburu**  
Pabxi Obregozo Istilart | ARITZU

**DONOSTIAKO AQUARIUMA**  
www.aquariumos.com



Bi sarrera

**BUATXABAL**  
www.buatxabal.com



Kamiseta bat

**EZKEXA**  
www.ezkexa.com



Kamiseta bat

**IRRISARRI LAND**  
www.irisariland.com



Sarrera bat

**KIMETZ**  
www.kimetzbelarrenda.com



Lote bat

**WOW PARK**  
www.wowpark.fr



Sarrera bat

**ZUGARRAMURDIKO LEZEAK**  
www.turismozagarramundi.com



Sarrera bat

**KAPRITXO**  
619 45 02 49 - Leiza



Kamiseta bat

**Sartu**

[ttipi.eus/ttipi-txartela](http://ttipi.eus/ttipi-txartela)

webgunean  
eta ikusi  
abantaila guztiak!

DESKONTUAK  
ZOZKETAK  
ELKARRIZKETAK  
LAGUNTZAILEAK  
ARGIALETAK



Aprobetxa itzazu Ttapi Txartelak eskaintzen dizkizun abantailak, Ttapi Txartela onartzen duten denda eta zerbitzuetan erosiz.

**MUSIKA**

Hiru CD



Deskontuak eta zozketa: Ttapi-Ttapa aldizkari guztietan Ttapi Txartelaren informazioa argitaratzen da, zozketak eskainiz eta aukeran dituzun deskontuak oroitaraziz!

**baga-biga**  
www.baga-biga.eus